

Bukatzeaz da literatur lehiaketara
aurkezteko epea, Arrasaten | 13



Antzuolarentzat 2,5 milioi euro
pasa, EAJk kontra bozkatuta | 22



22 milioi euro pasa Bergararendako,
oposizioak kontra bozkatuta | 14



Malen Ruiz de Azua,
Jonathan Perez, Istar
Dapena eta Iñigo Uribarren,
Anoetan, eguazteneko
entrenamenduan.

MARKA GAINDITZERA

Asteburuan jokatu dute Arrasateko atletek Espainiako Txapelketa | 26

IMANOL BELOKI

Pla, Muguruza eta 'Refree' Arrasaten hilaren 13an | 24



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Elkarriketa Irujo eta Rezusta pilotariei

- Martxoaren 8a: Elgetako amamak protagonista

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Erain Debagoiena, 6.500 herritarren sinaduren bila

Erabakitze eskubidearen gaineko herri galdeketa antolatzaileek
debagoiendarren -Aramaio barne- babesa eskuratu gura dute | 2 eta 'Herriak' saila

SINADURAK

	Emakume, inspirazio iturri 7 AINHOA VITORIA
	7 Bustita eta zikin TXOMIN MADINA
	Azaldu ezinezko sentimendua 10 ENERITZ URRUTIA
	16 Talentua ASIER ELORTZA
	Saria 19 MARINA ETXEGOIEN
	21 Konplize ditut eta... RESU ABASOLO
	'Freethemall' 40 AGURNE BARRUSO

www.multiópticasgipuzkoa.com

2. betaurrekoak
DOAN
GAMA ALTUKO
mó progresiboak
erosita
197€

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENTERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikari kargurik gabekoak

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

6.500 sinaduratik gora jasotzeko erronka abian da

Erain Debagoiena ekimenak ekitaldiak egingo ditu bihar hainbat herritan

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Hasi dira lanean Erain Debagoiena ekimeneko kideak, eta aste bukaera honetan sinadura bilketak egingo dituzte Debagoieneko herri askotan [Ikus Herriak saila].

Joan den zapatuan aurkeztu zuten ekimena, eta hurrengo hila-beteetan emango dituzten pausoak argitu. Ekainaren 12an egingo dute herri galdeketa Debagoienean, eta honako galdera honi

erantzungo diote herritarrek: "Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?"

Horri babesa ematen 150 lagunitik gora elkartu ziren Arrasateko Kulturaten, zapatuan. Poli-

tika, kultura, sindikalgintza, merkataritza, enpresa, kirol eta beste esparru askotako herritarrak izan ziren ekitaldian, gazteak, helduak eta nagusiak, "jende eza-guna zein bailarako eguneroko bizitzan ezinbestekoak direnak", antolatzaileen esanetan. Eta orain, herritarren babesaren bila hasiko dira lanean.

Sinadurak jasotzeko dela

"Herri galdeketa egin ahal izateko herritarren sostengurik ahalik eta zabalena bilatuko dugu", jakinarazi dute ekimeneko kideek eta kideek galdeketa egiteko Deba-

goieneko eta Aramaioko 65.000 biztanleetatik %10en sinadura kopurua gainditzea gura dute. "Dema honetan jarritako sinadura kopurua lortzeko zalantzarik ez dugu", jakinarazi dute.

Ekainaren 12ra bitartean jarraituko dituzten pausoak zehaztuta dauzkate. Lehenengo fasean, *erein*, hau da, sinadurak jaso; bigarrenean, *loratu*, hau da, erabakitze eskubidearen aldeko atxikimenduak agerian jarri eta antolaketa lanak abiarazi; eta hirugarrenean, *uzta jaso*, hau da, herri galdeketa egin.

Zer lortu nahiko zenuke herri galdeketarekin?

AITOR LOPEZ REKARTE
FUTBOL JOKALARI
OHIA
ARRASATE



"Jendearen parte hartzea, erabakitze eskubidea dugun edo ez jakiteko. Ze gaur egun politika nola dagoen ikusita... gero eta gehiago saiatzen gara ahalik eta urrutien edukitzen. Ez dugu konfiantza handirik politikariengan".

GEMMA ZABALETA
PSE-EE-KO KIDEA
ARRASATE



"Ariketa demokratikoa da, eguneratzeko Euskal Herriko gizartearen asmoa marko demokratikoari dagokionez; azken batean, marko juridiko-politikoak islatu behar du euskal gizarteak nahi duena, eta hori jakiteko modu egokiena da galdetzea".

IGOR URIZAR
PODEMOS-AHAL
DUGUKO KIDEA
ARRASATE



"Beste herrialde batzuetan egin den bezala, pauso bat da, beste bide batzuk ez direnez ahalbidetzen herriaren ahotsa entzuteko. Podemosen helburuetako bat da herritarrei jabetza hori ematea, erabakitze eskubidea aldarrikatzea, eta hau aproposa da".

ARITZ ALUSTIZA
MUSIKARIA
BERGARA



"Mundu guztiak jakitea herri honetan zer nahi dugun eta ze sentimendu dagoen. Baditugu ordezkari batzuk politikariak direnak, baina subjektu politikoa herria izen beharko litzateke. Eta politikariak bideratu beharko lukete herriak pentsatzen duena".

JUAN LUIS BIKUÑA
KAZETARIA
BERGARA



"Bere nahia zein den esan ahal izateko aukera ematea herriari, guztiok daukagulako gure iritzia emateko eskubidea. Garrantzitsua horixe da, iritzia eman ahal izatea; hortaz, herritarrek parte hartzera animatuko nituzke".

ARANTZAZU ALTZELAI
IRAKASLEA
OÑATI



"Herri galdeketa batekin herrian edozein pertsonak gura duena da norberaren herriak etorkizuna bere kabuz erabakitze eskubidea edukitzea, eta herri borondatea zein den jakitea; hau da, jakitea zer gura dugun herritarrok horrekin".

ANJEL ITURBE
ALKATE OHIA
OÑATI



"Galderari ez diot arazorik ikusten. Herritarrok eta instituzioetakook, bereziki, kargu politikoak elkartzeko kapaz izan behar dugu, lortu ahal izateko erabakitze eskubidea. Bateratuta, denok bultzatuz, ideia ezberdinak errespetatuz eta ilusioz, lortuko dugu".

KEPA ERRASTI
AKTOREA
ARETXABALETA



"Herriari bere etorkizuna erabakitze eskubidea ematea, eskubide hori aldarrikatzea. Gizarteak badauka etorkizuna eta burujabetza erabakitze eskubidea, erantzuna dena delakoa izanda ere. Hortaz, anima daitezela herritarrek".

AMINA SENE
ETORKINA
ARETXABALETA



"Herri guztiak izan beharko lukete erabakitze eskubidea eta herritarrek iritzia emateko aukera. Senegaldik etorri naiz ni, oso ondo hartu naute herri honetan eta pozik nago; horregatik, eskaerarekin bat egitea pentsatu dut".

XABIER VILLAREAL
HERRITARRA
ESKORITATZA



"Herriak zein iritzi duen ezagutzeko aukera emango du eta Eskoriatzari horrek zertarako balio diezaiokeen jakin. Izan ere, herriaren alde lan egiteko ildoan dago Gure Esku Dago ekimena ere, euskararen alde, herritarren alde...".

AURITZ IÑURRATEGI
IKASLEA
ESKORITATZA



"Benetan positiboa iruditzen zait galdeketa, norberaren iritzia emateko aukera bikaina. Ni oso baikorra naiz, baietza lortu gura dudalako edo... baina garrantzitsua da herritarrek iritzia emateko aukera izatea; gero ikusiko da emaitza...".

MAIALEN GURIDI
ARROLA MENDI
ELKARTEA
ANTZUOLA



Erakusten duelako jendeak parte hartu nahi duela, eta iritzia eman. Gainera, sekula iritzia eskatu ez den gai bati buruz iritzia emateko aukera ematen du. Eta modu horretan, Euskal Herriak independentziaren gainean ze iritzi duen jakingo dugu".

PATXI URIBARREN
EUSKALTZAINA
ARAMAIO



"Herritarrek eskubide osoa dute libreki euren asmoa argitaratu emateko, eta hori botazio libre bidez lortzen da, oinarritzko eskubidea da. Eta gure herriak ezin izango du euskaldun izaten jarraitu bere esku ez dituen bitartean hori gauzatzeko baliabideak".

ELENA ELKORO
BOTIKARIA
ELGETA



"Parte hartze handia egotea gurako nuke nik, pentsaera eta ideia politiko ezberdinak dituzten herritarren parte hartzea. Gizarte bera mugitu behar da arlo honetan alderdien gainetik, horren gaineko elkarriketa eta eztabaida sortuaz".

ROBERTO OTAZU
ZINEGOTZIA
LEINTZ GATZAGA



"Erabakitze eskubidea aldarrikatzea eta herritarren parte hartzea. Edozein gatazkatan, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa garrantzitsua da, erabakia legitimatzeko. Politikariak ezin dute erabakirik hartu herriarekin kontaktu barik".

Arrasaten

Esan baietz betiko

RPS: 741/13

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal metodoa

Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE

Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa



Debagoiena eredu. Zabortegirik ez plataformaren aurkezpena. | GOIATZ ARANA

Zabortegiaren kontrako plataforma sortu dute Debagoienean

Hitzaldiak antolatuko dituzte hainbat herritan, eta sinadura bilketa abiatuko dute, ondoren Mankomunitatean aurkezteko asmoz

G.A./M.T. | DEBAGOIENA

Debagoiena eredu. Zabortegirik ez izeneko plataforma berria martxan da dagoeneko Debagoienean. Aste honetako martitzenean aurkeztu dute taldea, Arrasateko Kultureteko areto nagusian, eta zehaztu dituzten hainbat ekintzaren berri eman zuten han. Hain zuzen, ez dutela zabortegi nahasi bat onartuko eta horretarako euren esku dagoen guztia egingo dutela berretsi zuten plataformako bozeramaileek.

Azpeitiko zabortegia itxi ostean, Gipuzkoako zaborra kudeatzeko Foru Aldundiaren aukeretako bat Epeleko planta da, Bergarako lurretan eta Arrasateko herrigunetik gertu dagoena. Plataformako kideak ez daude horrekin ados, bereziki kontuan izanda Debagoiena dela birziklatze tasa handiena duen eskualdea.

Martitzenean salatu zuten Epelera ekarriko litzatekeen zaborra ez litzatekeela errefusa soilik izango, zabor nahasia baizik; hau da, errefusarekin batera bestelako hondakinak ere badituena nahastuta.

Hiru ekintza

Aipatutako aurkezpen horretan, aurki abiatzeko asmoa duten hiru ekintza nagusiak zeintzuk diren esan zuten.

Alde batetik, aste honetan bertan idatzi bat helarazi diote Debagoieneko Mankomunitateari, galdetuz zein harreman dituzten Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Gipuzkoa osoko zabor nahasia jasotzeko. Hori izan da plataforma gisa burutuko duten lehen ekintza.

Bestalde, aditzera eman zuten aurki eskualdeko hainbat herri-

DATUA

3

EKINTZA

Hiru ekintza egingo dituzte: Mankomunitatearen eta Diputazioaren harremanaz galdetzea; hitzaldiak eta sinadura bilketak.

tan hitzaldiak antolatzen hasiko direla, herritarrei zabortegi nahasiek sortzen dituzten arazoaren eta gainontzeko alternatibaren berri emateko.

Azkenik, herririk herri sinadurak bilduko dituztela azaldu zuten, ahalik eta gehien lortzeko asmoz. Ondoren, sinadura horiek guztiak Mankomunitatean entregatuko dituzte.

Debagoiena eredu

Debagoiena eredu. Zabortegirik ez plataformako kideen esanetan, hondakinaren %78 birziklatuz, debagoiendarrek "ardura eta errespetua" erakusten dituzte, eta gauza bera egiteko eskatzen diete gainontzeko gipuzkoarrei ere: "Zergatik ez da egiten Gipuzkoako beste herrietan? Debagoienean ere herri txikiak, ertainak eta handiak ditugu, alderdi politiko ezberdinek gobernatuak, eta posible da. Lehen hilabetetik lortu daitezke, gainera, emaitza horiek".

"Informazio falta"

Plataformako bozeramaileek gaia inguruan "informazio falta" dagoela salatu zuten, eta gaineratu zuten euren helburu nagusietako bat informazioa lortu eta herritarrei ematea dela. Edozein kasutan, eta dituzten datuen arabera, Kantabriara lau urtean 200.000 tona zabor nahasi eramateko hitzarmena dagoela esan dute, eta lurraldean 165.000 sortzen dira urtero.

Terminoak ere argitu nahi izan zituzten, esanez Epeleko plantara ekarriko litzatekeena ez litzatekeela errefusa izango, zabor nahasia baizik: "Errefusa da hondakinak gaika biltzetik geratzen den frakzioa, baina, gaikako bilketarik ezean, sortzen dena zabor nahasia da, eta hori da gutxitu beharrekoa, hain justu. Eta posible da; Debagoienean ondo erakutsi dugu hori".

Arrasateko Udalari ere egin zioten erreferentzia: "Hogei bat urtez Akeiko zabortegia martxan izan eta gero, zaborraren kupoa beteta dugu honezkerok, eta, horregatik, Arrasateko Udalak, bereziki, indarra egin beharko luke zabor nahasia Epelera ekartzeko aukera guztien kontra".

Podemos: boto emate epea zabalik

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Podemos Euskadik bertako zuzendaritza taldea eta idazkari nagusia aukeratzeko barne hauteskundeak abiarazi ditu. Bost zerrenda aurkeztu dituzte: Zurekin Ahal Dugu (Neskutz Rodriguez buru duena), Aurrera Begira (Nagua Alba buru duena) eta Kaliangora (Pilar Garrido buru duena) dira nagusiak; eta Si Se Puede eta No Mas Planchas dira babes gutxienarekin aurkeztu direnak. Atzotik (egue-na) domekako gauerdia arte eman daiteke botoa. Horretarako, izena eman behar da *Podemos.info* webgunean, eta nortasun agiria eta Euskadin erroldatuta egotea erakusten duen ziurtagiria nahikoa da botoa emateko. Emaitza martxoaren 8an jakinaraziko dute.

Lore eskaintza, Isaias Carrasco hil zuteneko 8. urteurrenean

Etzi, domeka, eguerdian elkartuko dira Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi sozialista hil zuten lekuan –bere etxearen kanpoko aldean–, haren heriotzaren 8. urteurrena gogora ekartzeko. PSE-EEko idazkari nagusi Idoia Mendia izango da, besteak beste, lore eskaintzan. Carrasco 2007ko martxoaren 7an hil zuten, lanera joateko autora igo berrian, tirokatuta.

MAKINATXO BAT LAN

GOIENA TELEBISTA

MARTXOAREN 8AN, MARTITZENEAN, 22:00ETAN



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Ehunka debagoiendarrek ospatuko dute Arnaldo Otegiren askatasuna

Ekitaldia Donostiako Belodromoan da, bihar, zapatua, 17:30ean, eta autobusetan zein autoetan gerturatuko dira eskualdeko herritarrak

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Donostiako Anoetako Belodromoa lepo beteko da bihar, zapatua, Arnaldo Otegi ongiatorria egiteko eta haren irteera ospatzeko. Debagoiendarrek ere ez dute hutsik egin gura, eta autobusak antolatutako dituzte hara joateko, zazpi baino gehiago izango dira. Izena emateko epea gaur eguerdian bukatuko da. Hona lekuak: Eskoriatzan, Inkernun; Aretxabaletan, Urbaltzen; Arrasaten, Iratin; Bergaran, Arranon, Txokoloterixan edo Pol Polen; eta Oñatin, Boga tabernan.

Leintz aldekoak elkarrekin joango dira. 15:00etan irtengo dira Eskoriatzatik, 15:15ean Aretxabaletatik pasatu eta 15:30ean Arrasatekoak jasoko dituzte. Oñatitik ere 15:30ean irtengo da autobusa, eta Bergarakoa, ostera, 16:30ean. Eta guztiak elkartuko dira Donostian. Antolatzaileek aditzera eman dute "irribarre jendetsua" irudikatzen ekitaldia izango dela.

Ezker abertzalekoak pozik

Joan den martitzenean, martxoak 1, irten zen Logroñoko kartzelatik Arnaldo Otegi, sei urte eta erdiko espetxealdiaren ostean. Jendetza elkartu zen han, askatu berriari harrera egiteko, eta Debagoienetik ere makina bat lagun joan zen; besteak beste, Ino Galparsoro, Jose Luis Elgoro, Martin Garitano, Xabier Zubizarreta eta Josu Lizarralde.

Sortuko kontseiluko kide Josu Lizarralde oñatiarrak Otegiarekin egon eta hura besarkatzeko aukera izan zuen. "Giro oso hunkigarria, jende andana eta ilusioa" bizi izan zirela zioen gero, eta harekin hitz batzuk trukatzeko aukera ere izan zuen. Momentu "erabakigarria" dela uste du Lizarralde: "Sortuz eta EH Bilduz harago, Euskal Herri mailako figura delako Otegi, estatu pertsona bat, hain zuzen". Ezker abertzaleak "aktibo" hori aprobetxatu behar duela uste du, eta gaineratu zuen Otegi prest dagoela bere ekarpena egiteko, "baita lehendakari bezala, herri hone-



Otegi agurtzen Xabier Zubizarreta eta Peio Urizar. | KEPA ORMAETXEA



Galparsoro eta Zubizarreta. | K.O.

tako pertsona klabe moduan".

Xabier Zubizarreta ere bertan izan zen. Arrasateko alkate ohiak nabarmendu gura izan du "pertsona inportante bat berreskuratut" dela. Hark ere besarkada emateko aukera izan zuen: "Poz handiarekin hartu dugu. Guretako pertsona inportante bat berreskuratut dugu. Hitzaldi laburra eman du irteeran, baina asmatu egin duela uste dut", azaldu zuen. Espetxe aurrean elkartutako "jendetza" eta hedabideen kopuru handia nabarmendu zituen Zubizarretak.

Arnaldoren lehen hitzak

Otegiren lehenengo berben zain zeuden asko, eta ikusmina eragin



Otegi, espetxe aurrean. | JOSU LIZARRALDE

zuten esandakoek: "Euskaldunak gara eta harro gaude. Euskaldun, independentista eta sozialista sartu ginen kartzelara eta euskaldunago, independentistago eta sozialistago ateratzen gara", esan zuen. Era berean, independentzia eta "presoak etxera" ekartzea aldarrikatu zituen, baita "lehendakari onena herria" dela esan ere.

Bigarren agerraldia Elgoibarren egin zuen, arratsaldean bertan. Plaza bete-bete eginda zela, herrikideen eta lagun askoren aurrean, luzeago egin zuen berba. Hirugarren ekitaldia izango da biharkoa, eta oraindik jende gehiagoren aurrean eta luzeago berba egiteko aukera izango du.

Alderdien balorazioak

Ezker abertzaleko kideek ez ezik, beste alderdi batzuetako ordezkariak ere pozik hartu dute Otegiren askatasuna. Podemos Ahal Dugu zirkuluko Igor Urizarren esanetan, "bazen garaia. Iruditzen zaigu giza eskubideen aurka egon dela preso. Gauza bat da ez partekatzea ideia politikoren batzuk baina ezin dena eztabaidan sartu da giza eskubideen urraketa egon dela eta preso politiko moduan egon dela kartzelan sartuta". Ildo horretan, "aurrera egiteko" aparteko aukera dela uste du: "Gizartea aurrerapausoak ematen dabil eta zentzu horretan alderdi politikoei egin beharko genuke ahalegin bat iragana atzean uzteko behingoz eta hasteko errekontziliazioaz berba egiten, guztiok mahaian jartzen, eta konponbideak bilatzen".

Batzar Nagusietako kide eta Antzuolako EAJko zinegotzi den Maria Eugenia Arrizabalagaren esanetan Otegiren espetxeratzea "bidegabekeria hutsa" izan da: "Mendeku politikaren eskutik egindako bidegabekeria, Rafa Diezena bezalaxe. Sei urte eta erdi luze pasa ditu espetxean horretarako inolako arrazoi objektiborik egon gabe". Kanpora irtendakoan eman duen mezueren gainean uste du "barne kontsumorako" mezua izan dela: "Ezker abertzaleak bere etorkizun politikoa Otegiren eskuetan utzi duela dirudi, harengan esperantza guztiak jarrita, eta ezker abertzalearen betiko indar politikoa ezagututa harri-garria ere gertatzen da, pertsona batengan jartzea bere proiektuaren etorkizuna. Iraganari eta iraganetik etorritako ondorioei" erantzuna ematen asmatu beharko duela uste du eta gaineratu du: "Bai bizitza pertsonala, bai proiektu politikoa gauzatzeko erabateko askatasuna edukitzea espero dut".

Alderdi Sozialistari galdetuta, aditzera eman du ez duela adierazpenik egingo horren gainean.

Jaurlaritzak AHTko lanak geratu ditu Antzuolan

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Eusko Jaurlaritzak AHT egiteko lanen lau zatitan obrak aldi baterako gelditzea erabaki du. Lau zati horietako bi Antzuolakoak dira: Antzuola-Ezkio mendebalde eta Antzuola-Ezkio ekialdea.

Euskal Trenbide Sareak dihardu lanak egiten; lanak geratzeko arrazoiak da proiektuetan hainbat aldaketa egitea eskatu dituztela. Egokitzapen horiek egin ahala, Jaurlaritzak berriro lanak hasteko baimena eskatuko du.

Antzuola-Ezkio zatiko bi obrak oso aurreratuta daude. Mendebaldeko zatian lanen geratzea erabatekoa izan da; ekialdeko zatian, aldiz, lanak ez dira guztiz geratu, proiektuan eskatu dituzten aldaketek ez dutelako obra guztian eragiten.

Otsailean %10,77ra jaitsi da langabezia tasa

JOSU BILBAO | DEBAGOIENA

Beheranzko joerarekin jarraitu du azkenengo hilabeteen langabezia tasak Debagoienean. 2015eko otsailean %12,29koa izan zen, eta 2014ko hil berean %12,72koa. Une honetan, 3.229 langabe daude.

Urtariletik otsailera bitartean 53 langabe gutxiago izan dira Debagoienean. Eskoriatzan izan ezik (%10,22ko tasatik %10,47ra igo da), beste herri gehienetan beherakada izan da. Hona langabe kopurua herriz herri: Antzuolan 76 (%7ko langabezia tasa); Aretxabaletan 287 (%8,36); Arrasaten 1.471 (%14,1); Bergaran 725 (%10,39); Elgetan 50 (%8,43); Eskoriatzan 212 (%10,47); Leintz Gatzagan 4 (%2,92); eta Oñatin 404 (%7,6).

BIDALI ARGAZKIAK

MARTXOAREN 6AN, DONOSTIAKO LILATOIKO ARGAZKIAK BIDALI ETA GOIENAN ARGITARATUKO DITUGU.

ARGAZKIRIK ONENA AUKERATU AHAL IZANGO DUTE GOIENA.EUS-EKO ERABILTZAILEEK.

ARGAZKI ONENAREN EGILEAK SARIA JASOKO DU: GOIENAKO BAZKIDETZA URTE OSORAKO.

BIDALI ARGAZKIAK ETA BOZKATU ONENA:

WHATSAPP: 688 69 00 07 E-POSTA: BERRIAK@GOIENA.EUS GOIENA APP: JAITSI APLIKAZIOA ETA BIDALI ARGAZKIA



Pio Gartzia | Oftalmologoa

"Laserra baliatuta edozeini ken diezazkiokegu betaurrekoak"

Gutxieneko baldintza batzuk besterik ez da behar Lasik edo Lasek sistemak erabiltzeko: 18 urtetik gorakoa izatea, urtebetean graduazioa puntu bat ez handitzea eta keratokono gaixotasuna ez izatea

Pio Gartzia 13 urteko ibilbidea du oftalmologo modura eta 2007tik dihardu laser bitartez atzeraeraginezko kirurgia praktikatzeko; betaurrekoak kentzeko kirurgia, alegia.

Zeinek egin dezake laser bidezko ebakuntza betaurrekoak kentzeko?

Betaurrekoak eramateko arrazoiak lau dira: miopia, astigmatismoa edo hipermetropia izatea eta 45 urtetik gora izanez gero presbizia izatea. Guk hainbat teknika ditugu betaurrekoak kendu ahal izateko. Gazteei, 45 urtetik beherako gehienei laser bitartez egiten diegu ebakuntza; 45 urtetik gorakoei, berriz, betaurreko multifokalak erabiltzaile. 40 urtetik behera, teorian, ezin da presbiziari ikusgarritasun beraz, laserra baliatuta miopia-urrutira ondo ez ikustea-, astigmatismoa -gauzak fokatu barik ikustea- edo hipermetropia -ondo ez ikustea ez urrutitik eta ezta gertura ere- dutenei egiten diegu ebakuntza. Laserra baliatuta ebakuntza egiteko bi teknika daude: Lasik eta Lasek (PRK).

Ze desberdintasun dago?

Desberdintasun nagusia ondorengo errehabilitazio denbora da. Lasik teknikarekin, hurrengo egunean bertan bizitza arrunta egin daiteke, baita gidatu ere. Hori bai, ebakuntza ondorengo arratsaldean etxean egon beharra dago, begiak itxita. Lasek teknikarekin, berriz, 3-7 egun behar dira ikusmen osoa berreskuratzeko. Hori bai, ebakuntza ondorengo arratsaldean bertan ikus daiteke telebista, irakurri, paseatu... Ez da erabat ondo ikusten, baina egin daitezke gauzak. Behin hilabete pasatuta, hori bai, berdin dio Lasik edo Lasek erabiltzaile ebakuntza egin izana, emaitza berbera da. Bestalde, kontaktu bako kirola egiteko -korrika egin, bizikleta...- astebete itxaron



Pio Gartzia doktorea paziente baten begiak aztertzen.

beharra dago eta kontaktudun kirola edo igeriketa egiteko, 15 egun. Bi teknikekin berdin egin behar da.

Hori horrela, zein kasutan erabiltzen duzue Lasik sistema eta noiz Lasek?

Lasik da teknika estandarra. Hau da, kontsultara datozenei Lasik erabiltzaile ebakuntza egiten ahalgintzen gara. Baina batzuetan ezin da: kornea mehea dutenei edo begia siku dutenei. Bi kasue-

tan, Lasik teknikak eskatzen duen prozedurak eragiten du ezinezko sistema hori baliatzea. Lasek teknikarekin, berriz, edozein pertsonari egin dakioke ebakuntza, baita kornea mehea dutenei zein begia siku dutenei ere. Eta, esandako moduan, epe luzeko emaitzak berberak dira bi kasuetan. Desberdintasuna da errehabilitatzeko behar den denbora.

Zeintzuk dira laserra erabiltzaile ebakuntza egin ahal izateko baldintzak?

18 urtetik gorakoa izatea eta graduazioa ez aldatzea azken urtean -dioptria bat baino gehiago ez handitzea azken urtean- eta keratokono gaixotasuna ez izatea. Bestalde, haurdun geratzea pen-

tsatuta duten emakumeek ere egin dezakete ebakuntza. Hau diot, askok uste baitute haurdunaldian graduazioa handitu egiten dela. Eta kasu batzuetan horrela den arren, normalean ez da horrela izaten. Gainera, graduazioa handitu den kasuetan ere, normalena da edoskitzearen ondoren lehengora bueltatzea. Jakina, haurdunaldian eta edoskialdian ezin da ebakuntzarik egin.

"Kontsultak eta jarraipena Arrasaten ere egiten ditugu"

Zenbat denbora behar da ebakuntzarako?

Bi teknikak erabiltzaile berdin: 5-10 minutu bi begietan ebakuntza egiteko. Izan ere, bietan batera egiten da ebakuntza.

Anestesia?

Hori ere berdin. Anestesia topikoa ematen da, pazienteak esna dagoela; tantak dira. Eta, gainera, Quironen dugu abantaila handi bat: bat da ebakuntza guztietan dugu anestesia bat, beti, baita laserra baliatuta egiten diren ebakuntzetarako ere. Modu horretan, adibidez, pazienteak urduri jarriko balitz, anestesiak lasaigarri bat emango lioke.

Hori luxua da...

Bai, hala da. Ebakuntza guztietan dugu anestesia. Nik uste dut Espainia guztian ez dela horrelakorik beste inon egiten.

Mingarria da laserra erabiltzea?

Ez, ez Lasik eta ezta Lasek teknikak erabiltzaile ere.

Ebakuntzak -irtenbidea- behin betikoak dira?

Medikuntzan ez dago ezer behin betikorik. Egia dena da laserra baliatuta 25 urte baino gehiagoan ebakuntzak egiten jardun ondoren, emaitzak mantendu egiten direla denborarekin. Noiz edo noiz atzera ere graduazioa agertu eta betaurrekoak erabili behar direla? Bai. Baina normalena da ezetz. Normalena da jendea betaurreko barik ibil daitekeela kataratak etorri arte. Beraz, ebakuntza behin betikoa da kataratak etorri arte; izan ere, orduan, berriro ere egin behar da ebakuntza, kataratak kentzeko.

Non egiten dira ebakuntzak?

Quironsalud Gasteizen. Baina neuk kontsulta pasatzen dut Arrasaten ere: Udaltz Zentro Medikuan, astelehen arratsaldeetan eta astearte goizetan. Ebakuntza egin ondorengo jarraipena ere Arrasaten egiten diegu bertakoei.

Betaurrekoei agur esan

690 euro begi bakoitzeko*

Plan Mediko Pertsonalizatua, miopia, hipermetropia edo astigmatismoa zuzentzeko, modu eraginkor eta seguruan, Quirónsalud-en garantiarekin.

Informa zaitez doan **900 250 255** telefonoan edo porquesabeselegir.es-en

*Promozioaren gaineko informazioa eta ze zentrotan dagoen eskuragarri: www.porquesabeselegir.es/es/laser-ojos

Quirónsalud Vitoria ospitalea
Esperantza kalea 3. 01002 Gasteiz
quironsalud.es

Hospital **quirónsalud**
Vitoria

Urkulu urtegiaren betetze maila %84,17ra iritsi da

Euriteekin, hiru egunean %7 handitu zen urtegiaren bildutako ur kopurua; hala ere, aurrealertan dago



Urkuluko urtegia eguaztenean. | UBANE MADERA

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Urkuluko urtegiaren egoera asko aldatu da otsailaren azkeneko hamabostaldian, eta, batez ere, hilabetearen azken egunotan. Datua da otsailaren 26tik otsailaren 29ra bitartean egindako eurien ondoren –Arrasaten 24 orduan 134 litro ur neurtu zituzten– urtegiaren maila %7 handitu zela. Metrotan begiratuta, 1,07 metro irabazi zituen urtegiak joan den asteburuan; bestela esanda, azken euriteekin 670.000 m3 sartu ziren egubakoitzetik astelehenera arte. Eta horri esker, pasatu da joan den asteko %76 betetze-mailatik oraingo asteko %84,17 betetze-mailara.

2016an bertan atzerago begiratzuz gero, aldea nabarmenagoa

da. Urtarrilean, esaterako, %64,27 zegoen beteta Aretxabaletako urtegia.

Gainera, eguaztenean atzera ere euria egin zuen eta iragarpenak dio hala segituko duela datozen egunotan; beraz, Urkuluk ura hartzen segitzen du.

Aurrealertan dago

Edozelan ere, Debagoieneko urtegia ez dago egoera normalean oraindik. Aurrealerta egoeran dago, eta Gipuzkoan aurrealerta egoeran dagoen urtegi bakarra da. "Araudi baten arabera eta urtegiaren bolumen historikoaren arabera egiten den konparaketak ematen du aurrealerta egoera hori", azaldu du Imanol Zabaletak, Debagoieneko uren arduradunak.

Bestela esanda, urteko sasoi honetan, baina bestelako urte batzuetan, urtegiaren maila handiagoa izan da, eta horrek eragiten du aurrealerta egoerari dagokion kalifikazioa. Adibidez, iaz, sasoi honetan %100,29an zegoen; 2014an, %100,88an; eta 2013an, %100,07an.

Neurri beharrik ez

Urtegiak kalifikazio hori izateak dakar, besteak beste, arduradunek egoera aztertu egiten dutela, erabakitzeke neurriten bat hartu behar den edo ez. Oraingo hau ez da kasua, hau da, "egoera hobea da eta ez dago aurreikuspenik neurririk hartzeko", dio Zabaletak. Desberdina litzateke, besteak beste, oraingo urte sasoi negua barik uda balitz.

Ur-kontsumoa behera

Bestalde, urtegiak duen ur-maila bi elementuk baldintzatzen dute: egiten duen eurien ur-sarrerak eta kontsumitzen den ur kopuruen ur-irteerak.

Bada, azken horri dagokionez, gutxitzeko tendentzia hartu du azken 15 urteotan. Hainbat arrazoiengatik: ur-azpiegituretako ihesak gutxitu egin direlako egindako hobekuntzengatik; ur-kontsumo arduratsuagoa egiten delako eta, besteak beste, jaitsi egin delako industriari dagokion ur-kontsumoa.

Urtebete pasarako ura

Gauzak horrela, gaur egun urtebete pasarako ura ziurtatu dago Urkulun. "Egunean 15.000 m3 ur

erabiltzen dira kontsumorako eta errelera isurtzen dira 8.000 m3 ur, errekaen bizitza ekologikoa mantentzeko araudiaren arabera", esplikatu du Zabaletak. Hain justu, hark azaldu du erreka isurtzen den ur kopurua gutxitu egiten dela udaberri eta uda sasoiaren eta handitu, berriz, gainontzean: "Errekak egingo zukeen gauza bera egiten dugu guk".

Historikoki maila handiagoa

Kontuak kontu, negu hasiera sikua izan arren, urtegia historikoki urte sasoi honetan izan duen mailara bueltatzen dabil, nahiz eta hori bai "normalena izaten da azarotik gora joatea, eta aurten, berriz, otsailera arte" ez den halakorik gertatu.

Alegazioak egiteko epea zabalik, Zabaletako Plan Bereziaren aldaketari

Oraingo astean bertan pasatu dira norbanoak Hirigintzatik dokumentazioa kontsultatzerara

U.M. | DEBAGOIENA

Arrasateko Zabaleta esparruko –udalerrri sarreran– Plan Bereziari Txomintxu promotoreak aurkeztutako aldaketa eskaerari dagokion dokumentazioa jendarean dago, eta hala egongo da martxoaren 21eko astra arte. Horrek ahalbidetzen du gaiarekiko interesa duen edozeinek kontsulta dezakeela Plan hori, eta baita alegazioak aurkeztu ere. Azken horren kasuan, berdin da Zabaleta eremuko lursailetak baten jabea izan edo ez, norbanoek, elkarteak eta interesa

duen edozeinek aurkez diezazkioke eta alegazioak dokumentuari.

Halakoetan ohi den moduan, alegazio epea bukatu ondoren, jasotako guztiak aztertu eta erantzuna emango du Arrasateko Udalak. Eta Hirigintza Sailetik esandakoaren arabera, dagoeneko norbanako batzuk pasatu dira egunotan bertatik dokumentazioa kontsultatzerara.

Errepidea eta aparkalekuak

Besteak beste, promotore bizkaitarrak proposatzen duena honakoa da: A eta B partzelen artean

–Cartonajes Esma eta Epele gal-daragintza artean– errepidea sortzea. Bi errailetak errepidea proposatzen du, mendi aldera biribilgune txiki bat izango zukeena. Eta Epele gal-daragintzari dagokion eraikina eta jarduera industrialak, berriz, kontsolidatzea.

Aparkalekuei dagokienaz, linean egokituko lituzkete –jatorrizko planak baterian aurreikusten zituen–, eraikitzen den 100 metro karratuko aparkaleku plaza bat –Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurraldeko Planari jarraiki–, horietatik %15 espazio publikoan egokitu behar dira. Era berean, proposatzen den aldaketak aukera ematen du eraikinen gainean aparkaleku pribatuak sortzeko.

Eta oro har, zazpi partzela pribatu izango lituzke Zabaletak. tartean, lau partzela jarduera ekonomikotara bideratuta, –industria arrunta zein industria mistoa jar daiteke bertan–.

Leku guztiak bete dira, emakumeei zuzendutako defentsa pertsonalaren gaineko mintegian

U.M. | DEBAGOIENA

50 emakumerendako lekua zegoen eta dena bete da, bihar, zapatua, Bergaran egingo den 14 urtetik gorakoendako emakumeendako defentsa pertsonaleko mintegian –10:00-13:00etara, Agorrosinen–. "Aretxabale-tako, Eskoriatzako, Oñatiko eta Debabarreneko emakumeak etorriko dira", esplikatu du Josean Iñarrak, mintegian parte hartuko duen irakasleetak batek.

Emakumeak ez ezik, irakasle-gidariak ere nahikotxo izango dira biharko mintegian: bost. "50 emakume izanda, asmoa da bakoitzari azalpenak emanda, hamarrek taldeetan jarri eta erakutsitakoa praktikan jartze-

rakoan zuzenketak hobeto egin ahal izatea", azaldu du Iñarrak. Mintegiaren gidari, edozelan ere, emakumezkoa izango da: Isabel Gomez Serrano ermua-rra, "normalean gizonak izaten gara gidari, baina oraingoa ahalegina egin dugu emakumea izan dadin", esplikatu du Iñarrak.

Elkartasun ukitua

Bestalde, defentsa pertsonala lantzeaz gainera, elkartasuna ere landuko dute bihar. Izan ere, mintegian parte hartuko duten emakumeek. beronen truke, elikagaiak eramango dituzte. Eta gero, elikagaiok Bergarako Elikagai Bankuari emango dizkiote.



ANTOLATZAILEA:

LAGUNTZAILEAK



IXADEBALDE

Aretxabaletako XII. merkealdi azoka

Martxoak 5, zapatua. 10:00etatik 20:00etara. Frontoian.

- 100 eurotako hiru bonu zozketatuko dira!
- 16:30etik 19:30era haurrentzako tailerrak.

Amaia Ume Denda
Asensio
Atai
Begira
Belar Meta
Brasileña
Gertu
Hankabeltz
Haurrak
Kilima
Mari Merke
M5
Tinta Beltza
Titare
Txakoli Taberna
Zubia Oinetakoak

ZABALIK



AINHOA VITORIA
goiena.eus/komunitatea/

Emakume, inspirazio iturri

Emakumeek inspiratzen naute. Bere burua maite duen neskak, emakume libreak direnak eta emakume libreak izan nahi dutenak. Taula gainean ozen kantatzen duenak. Ahotsa harro altxatzen duen neskak.

Sekretuan negar egiten duenak eta zure sekretu guztiak eza-gutu arren, epaitzen ez zaituen lagunak.

Irribarre batekin lasaitzen zaituenak; zure irribarreara ateratzen saiatzen denak.

Urteak elkar ikusi gabe egon arren, denbora pasatu ez dela konbentzitzen zaituen lagunak.

Lanean jo eta ke alboan sentitzen duzun kideak.

Maite duen pertsona zaintzen duen emakumeak eta maite duzun pertsona erditu duen amak.

Egunero zure zain dagoen amonak eta egunero zu besarkatzeko eta laguntzeko prest dagoen amak.

Zuengandik guztiongandik ikasten dut zerbait. Zer da ba bizitza, ikastea ez bada?

Egunen batean zu besarkatzeko eta laguntzeko prest dagoen ama izango naiz.

Egunen batean, zure zain dagoen amona izango naiz edota maite duzun hori erditu duen ama.

Maite dudan pertsona zaintzen jarraituko dut.

Lanean jo eta ke alboan sentitzen duzun lankide hori izango naiz.

Urteak elkar ikusi gabe egon arren, denbora pasatu ez dela konbentzituko zaitut.

Zure irribarreara ateratzen saiatuko naiz.

Irribarre batekin lasaituko zaituen lagun hori izango naiz.

Zure sekretu guztiak ezagutu arren, ez zaitut epaituko.

Bai, sekretuan negar egiten jarraituko dut.

Taula gainean, ozen kantatzera ausartuko naiz. Ahotsa altxa-tuko dut. Emakume librea izango naiz eta, zalantzarik gabe, nire burua maitatuko dut.

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmdina@goiena.eus

Bustita eta zikin

Gozeko bederatzia eta laurden. Autoa martxan jarri orduko ohartu naiz gurpil batek zuloa zuela. Ez naiz birao-zalea, baina minutu erdian 2016ko kupoa bete dut. Hasi gurpila aldatzen. Zikina. Euria. "Hau ere niri eta orain gertatu behar!". Zela edo hala lortu dut aldatzea. Berandu noala esateko lanera deika hasi eta... mugikorra, zoratuta; *Factory mode*-edo ez dakit zer! "Zer du munduak nire kontra?". 2017ko birao kupoa ere beteta. Lanera, epelera heldu, eta beharrezkoa dudan kafea hartu bitartean errefuxiatuen inguruko albistea ikusi dut ordenagailuan. Haiek ere bustita. Zikin. Auto eta mugikor barik. Noiz arte? Auskalo! Neure buruaz lotsatuta kafea amaitu eta lanean hasi naiz.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Lau urteroko otsailaren 29a?

Oier Lakuntza
<http://goo.gl/aAH9vQ>

Lau urtero gertatzen den bezala, 2016. urtean ohikoa baino egun bat gehiago dauzka egutegiak, eta otsailak 29 egun izango ditu. Julio Cesarrek, Alejandriako Sosigenes astronomoaren laguntzaz, zuzenketa hori egin zion gure egutegiari. Izan ere, lurra eguzkiaren inguruan bira oso bat emateko 365 egun eta sei ordu behar ditu. Era horretan lortzen da urtez urte egutegiaren eta urtaroen arteko oreka mantentzea. Azken batean, lau urteren buruan 6 ordu gehigarri horiek 24 ordu ematen dituzte, urte bisiestoen egun gehigarria.

Baina zuzenketa hau ez da zehatza, ez baitira zehazki 6 ordu 365 egunei gehitzen zaizkienak, 5 ordu 48 minutu eta 45 segundo baizik. Diferentzia honek eraginda, XVI. menderako udaberriko ekinozioa, egunaren eta gauaren iraupena berdina den eguna alegia, martxoaren 21etik martxoaren 11ra aurreratu zen. Hau konpontzeko, 1582an Gregorio

XIII. aita santuaren aginduz, zuzenketa berri bat egin zitzaion egutegiari: urtea 4aren multiploa bazen, 366 urte izango zituen, baina 100en multiploa bazen 365 egun, eta 400en multiploa bazen 366. Beraz, 2016 urtea bisiestoa da, 2000. urtea bisiestoa izan zen, baina 2100. urtea, aipaturiko arrazoiak direla medio, ez da bisiestoa izango. Esan bezala, lekuri gehienetan egutegi julianotik gregorianorako aldaketa 1582an eman zen, baina ez guztietan. Erlijio ortodoxoa nagusi zen estatuetan, Errumanian eta Bulgarian adibidez, XX. mendearen hasieran hasi ziren aldaketa hau gauzatzen.

Era honetan, egutegiak eguzki urtearekiko egun bateko diferentzia izateko, 3.200 urte pasa beharko dira. Beraz, badago denbora zuzenketa berriak pentsatzeko...

Jakina denez, gizakiari ordena bat mantentzea gustatzen bazaio ere, helburu horri entzungor, unibertsoak bere ezkutuko ordenari segiko dio beti.

Eta astronomiak unibertso hori ezagutu nahirik jarraituko du, gure ordena gosea ezagutza berrietara moldatuz.

Txisteak

Anjel Lertxundi
<http://goo.gl/S0wdDS>

Mundua ez baitzegoen arazo faltan, munduan ondo ibiltzen ikasteko moduko komikiak irakurtzen genituen. Ongia eginez eta gaizkiaren kontra jardunez santu izateko bidea erakusten ziguten *Vidas ejemplares* komikiek. Munduan gerrak zeuden, baina gerra guztiz onak eta gerra guztiz txarrak, heroiak eta bilauak, zintzoak eta traidoreak zeudela irakasten zuten *Hazañas bélicas* izenekoek. *Kriminalak ez dute sekula irabazten* izeneko serie bat ematen zuten irratian. Oesteko abentura konkistatzaileen istorioetan agertzen ziren indioak guztiz barbaroak ziren; kolono zuriak, aldiz, zintzo zibilizatzaileak. Ez, mundua ez zen ondo eginda egongo, baina iltzatu nahi ziguten ongiaren eta gaizkiaren arteko mugan ez zegoen argi-ilunik, zalantzarik.

Orion txisteak deitzen genien txikitako komiki haiei. Ondo begiratzen hasita, izena ez dago gaizki jarria: mundua konpontzeko modua txiste haietako eskeman kabituko balitz bezala gobernatzen gaituzte.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Garbifne Beitia.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale


Gipuzkoako Foru Aldundia


Arrasateko Udala


Bergarako Udala


Oñatiako Udala


Aretxabaletako Udala


Eskoriatzako Udala


Antzuolako Udala


Aramaioako Udala


Elgetako Udala


Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Ezin sartu Osasun Mentaleko Zentrora!

Arantxa Arregi Liziaga

Arrasate

Arrasateko Erguin kaleko 23. zenbakian dago Osasun Mentaleko Zentroa, eta, gutxienez, Arrasaten bertan erroldatuta dauden 22.000 biztanleei zerbitzu emateko gaitasuna izan beharko luke.

2016ko otsailaren 4an, familiarteko gertuko kide bat zentro horretara eramateko beharra izan genuen; egoera fisiko eta psikiko larrian zegoena. Txanda-eguna baino lehen dena prest eduki ahal izateko, aurrez joan nintzen lekua eta inguruak behatzera, eta zera ikusi nuen:

-Zentrora iristeko ez dago seinalerik inguruan.

-Bertara iritsi arte ezin da ikusi dagoen kartel bakarra. Eta berau ikusteko modua oinez joatea da, autoz joanez gero kontrako norabidean dagoen horman baitago eta espaloi mailatik behe-rago; beraz, ikusezina da.

-Sarrerako atea espaloiaren mailatik metro batzuk beherago dago; beraz, atera iristeko, bi eskailera-multzo jaitxi behar dira, bata zazpi mailakoa eta bestea sei mailakoa. Bistakoa da oztopo arkitektoniko honek sarbidea galarazten diela gurgil aulkia-ekin doazenei, eta makuluekin doazenendako ere ez da batere erraza bertara sartzea; gainera, bustita egoten da eta irrist egiteko arrisku handia dago.

-Antzeko oztopoak daude beste bide batzuetatik sartu gura bada; kasu honetan, eskailera-ko-koak dira eta ez dago igogailurik.

Zentroko harreragilearekin berba eginda, nire kexak entzun ondoren, anbulantzia bati deitzeko aholkatu zidan; izan ere, gidariak "familiartekoa jaitisiko zidala". Eta hau gehitu zuen: "Guk geuk, libre gaudenean, laguntzen dugu; libre bagaude, jakina".

Harrituta utzi ninduen beste zerbait ere gehitu zuen; hau da, urteak daramatzatela zentroa beste leku batera eraman dezatela eskatzen, eta Osakidetza-aren ospitale zaharra aipatu zuen. Jakina da bertako hainbat gune ez direla erabiltzen.

Honela, ba, inprimaki bat eman zidan nire kexa aurkezteko, eta egun batzuk geroago bete nuen.

Egoera hau ikusi eta ezagututa, hainbat galdera datozkit burura:

-Nori egiten dio mesede urteetako egoera honek?

-Balizko erabiltzaile eta familiartekoei halako oztopoak ezarriz zerbitzua ez erabiltzea da helburu?

Honela psikiatriako kontsulta pribatuek gora egin dezaten?

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

-Edo, oraingoan ere, Osakidetza-aren utzikeria da honen guztiaren arrazoia? Dena dala, egin beharreko maniobra guztien irudi bat izatea oso adierazgarri litzateke.

Antzuolako batxilergoko ikasleen garraio arazoa dagoeneko konpondu da

Mirari Lamariano

(Guraso batzordeko ordezkaria) Antzuola

Gure seme-alaben garraio arazoa konpondu dela eta, Antzuolako batxilergoko ikasleen gurasoek eskerrak eman nahi ditugu.

Eskerrik asko gure herriko alkate Beñardo Kortabarriari eta Ipintza Institutuko zuzendari Joxe Mari Juaristiri, eskatu diegun guzti-guztian lagundu digutelako.

Eta mila esker Foru Aldundiko Garraio arduradun Iñaki Pregori eta teknikari Xabier Lertxundiri eta Aintzane Lauzirikari, gure arazoaz jabetu eta irtenbide tekniko-a aurkitu dutelako.

Baita Euskadi Irratiko langileei ere.

Mila esker parte hartu duzen guztioi.

Goienari eskerrak; gure herriari eta inguruko jendeari mesede ederra egiten diozue, gure beharrei erantzuten.

Emakumeentzako eremu bat

Jon Albizu

(EH Bilduko zinegotzia) Aretxabaleta

Ezin naiz, ezta asmorik ere, emakumeen larruan jarri. Marika naiz eta gizon baten larrutik hitz egingo dut. Emakumeak ahalduntzeko espazio baten beharraz hitz egingo dut.

Iruñean ibili nintzen garaietan Kattalingorri espazio-ko kide izan nintzen: LGTBQ sentitzen ginen pertsonentzako espazioa zen. Lehenengo aldiz Aldapa kaleko lokalera ailegatu nintzenean, ederto hartu ninduten; etxean

baino hobeto sentitu nintzen. Pertsona anitzak ginen;

kolore zein izaera ezberdinetakoak. Babestuta sentitzen ginen gurea zen espazioan.

Bizitzaren bizipenez eta Kattalingorri- bizi izan nituen esperientziez indartu nintzen: ahaldundu nintzen. Hor bizi- t-ako guztia ez zen posible izango eremu *misto* batean. Ondo dakit ezetz.

Baina etapa bakoitzak bere bukaera du. Horrelako espazioetan ibiltzeak ito egin ninduen; jada ez nuelako horrelakorik behar.

Gaur egun, nirearen –eta marika, lesbiana eta trans askorena– eta emakume batzuen bizipenen arteko parekotasunak ikusten ditut. Gizarte patriarkal honek emakumeak ere gutxietsi ditu, gizonak goraipatuz. Ez ote dute behar emakumeek ere niri hain ondo egin zidan prozesua bera abiatzea? Baietzkoan nago. Eremu bat behar da, emakumeak ahalduntzen dituen-a; gero hegan egin ahal izateko.

Aretxabaletan horrekin bueltan gaude: beharra ikusten dutenak eta ezezkoan daudenak ditugu.

Horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko denon konpromisoa behar dugu; denon arteko adostasuna, alegia.

Zelan gauzatu behar den behar hori bigarren platererako utziko nuke; oraindik entsaladan gaudelako.

Ni baikorra naiz, nahiz eta gaia korapilatua egon; lana eta umiltasuna osagai onenak baitira.

Denbora inoiz ez da galtzen aukerak galtzen ez diren bitartean.

Oharra: beste egun baterako gaia: gizonak. Pribilegioz beteta gaudela ez dut dudan jartzen, baina dugun maskulinitate ereduak zoriontsu izaten laguntzen digu? Ez dut uste. Eta hori aldatzeko, ez ote dugu eremu aproposik behar?

Konfiantzazko gobernantza

Iñaki Idigoras

Oñati

Euskararen txantxangorria ezagutzen? Ba orain urtebete, kanpainan erabiltzen duten bideo horrekin topo egin nuen.

Ingalaterrakoa da, Gretna Greenekoa.

Eta txundituta geratu ere. Nola liteke horrelako sinkronizitatez mugitzea?

Talkarik batere egin gabe?

Gure komunitateok horrela funtzionatuz gero, bestelakoa litzatekeela bizitza, fluidoagoa, pentsatu nuen.

Horretara iristeko apur bat falta dugu. Eta bitartean zer? Partaidetza ahoz aho dabil, politikari- en mingainetan ere bai, zorionez. Transparentzia ere bai. Nola, baina, praktikan ipini?

Asanbladak baditugu, eskala txikian arin eta eraginkor direnak, baina handitzean oztopo gertatu daitezkeenak. CUP datorkit burura, eta Arizmendi- arrietak bultzatutako kooperatibok. Kontseilu errektorean egotea badakigu zer-nolako papeleta den. Nola kuestionatu zuzendaritzak eta bere *asesoreek* planteatutako estrategiak? Loa galtzerainoko gaizkiegona, goitik eta behetik estu hartuta.

Etsitasunetik, itzaletik, argi printza bat dakusat.

Konfiantzazko gobernantza deituko diot. Erabaki guneetako pertsonak, hartutako erabaki bakoitzeko, honoko hauek argi jaso eta publiko egitea:

(1) Erabakia (zer), Helburua (zertarako) eta Arriskuak (zeintzuk, probabilitatea, gertatuz gero zer...).

(2) Erabakiaren justifikazioa: erabilitako estudioak, baztertutako alternatibak, zergatik hau; denak ados? Horrela ez bada, kontrako- en argudioak.

Horrela, erabakia gauzatzen denean neurtu ahal izango dugu helburua bete duen ala ez.

Gaizki joango balitz, *galerak* aurreikusiaz leudeke eta ez genuke *ezusteko sorpresarik* sufritu beharko.

Batzar orokorrak gaine- an ditugu, eta bakoitzaren kooperatiban sistema sinple hau ezartzeko erabakia hartzea *@GureEskuDago*.

Udal, Aldundi eta Jaurlaritzan ere.

Bide batez, goian aipatu bideoko hegaztiok ez dira txantxangorriak, Arabako zozoak baizik.

Araba, zazpigarren alaba. Ikusi, entzun eta amestera gonbidatzen zaiztuztet:

https://www.youtube.com/watch?v=M1Q-EbX6dso.

Aurrerapausoak emateko baita utopia.

Aukera berdintasuna: familiatik, etxetik, lantegitik, konpromisotik

Marijo Etxegoien Arzuaga

(Oñatiko EAJ-PNVren zinegotzia) Oñati

Gaur egun, emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna aldarrikatzeaz gain, jendarte- eredu parekidearen aldarrikapena egiten da martxoaren 8an. Oraindik ere bereizkeria eta desberdintasun-egoera ugari bizi dira gure herrietan: besteak beste, lan-merkatuari buruzko datuek agerian uzten dutena, partaidetza- n eta erabakiak hartzean, etxeko lanak egitean eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzean, emakumeen aurkako indarkeria erabiltzean, pobreziaren aurpegietan... ematen direnak.

Egia da gizonen eta emakumeen arteko aldea txikitu egin dela, baina erritmo motelean ari da bata besteari hurbiltzen. Adibidez, zaintza-lanetan erantzunkide izatea proposatzen denean, zera esan nahi da: etxeko pertsona guztien artean banatzea eta guztien artean partekatzea lana. Orainsu arte, emakumeak arduratu dira, batez ere. Baina garaiak aldatu dira, eta, XXI. mendean, eredu berri horri eusteko, denbora eta indarra azken muturreraino eramane behar izaten dugu emakumeok. Kontua, hortaz, ez da zereginak partekatzea; kontua da erantzukizunak eta lanak, bizitza-proiektua, elkarrekin partekatzea eta banatzea.

Horretarako, emakumeek eta gizonak, eta familie- k eta etxeek eraldaketa sakona bizi behar dute, erantzukizunak, denborak eta zereginak banatzeko eta partekatzeko. Hala ere, ez da nahikoa. Benetako berdintasuna lortzeko, gizarte-maila guztien eta ekoizpen-sektorearen konpromisoa behar da: enpresak, sindikatuak, erakunde pribatuak...; baita erakunde publikoen lidergoa eta koordinazioa ere.

Adibidez, 2015ean 73 enpresak lortu dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetz- a Erakundea aitortpena. Berdintasunaren alorrean gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartu duten enpresak eta erakundeak nabarmentzea da Emakundek ematen duen aitortpen honen helburua. Alabaina, zerrenda luzea bada ere, bakarra da Oñatiko- a: MU Enpresagintza eskola. Badago, beraz, zer aldarrikatu gure herrian martxoaren 8an eta baita urteko beste 364 egunetan ere.

HERRIAK

ANTZUOLA

Eskualdeko 300 umek egingo dute ibilbidea

- Arrola Mendi Taldearen eskutik, eskola arteko ibilaldi neurtua
- Deba ibar osotik etorriko dira neska-mutikoak martxoaren 13an

LEIRE KORTABARRIA | ANTZUOLA
Aspaldiko partez –2007tik, hain zuzen ere– Antzuolari egokitu zaio Deba eskualdeko eskola arteko ibilaldi neurtua antolatzea. Mendi elkarteek antolatzen dute, Gipuzkoako Mendi Federazioaren eskutik, eta Arrolak du, hortaz, ardura hori aurtengoan. Egun berean eskola kirola egiten duten umeendako Gipuzkoan antolatzen diren bost ibilaldietako bat da hori; hain zuzen, Debagoien eta Debabarreneko zonalderako. Ekintza hori antolatzen den 29. aldia da. Martxoaren 13an, domeka, izango da, 08:30 eta 09:00ak artean abiatuta.

Ondarea ezagutzeko aukera
Ibilbidea erabakita dauka Arrola Mendi Taldeak, taldeko presidentea Maialen Guridik azaltzen duen moduan: "Bi ibilbide izango dira, bat alebinentzako (9-10 urtekoak) eta beste bat gazteagoentzako; alebinena pixka bat luzeagoa izango da. Herriko plazatik irtengo dira, taldetxotan; Kaxetara igoko dira eta, hortik, trenbide zaharra hartuko dute. Hortik, bi bidetatik, San Martzialera igoko dira; han hamarretakoa egin ondoren, antzinako elizbidetik Uzarragara joango dira". Gauza interesgarriak ikusiko dituzte: trenbide zaharra, Akinabeiko errota, San Martzial eta Uzarragako ermitak...

Ohi den bezala, txikienen bidea "pixka bat motzagoa eta errazagoa" izango da. Bi ordu eta erdian egiteko modukoa da; nagusitxoenek hiru bat orduan egin ahal izango dute dagokien bidea. "Zailtasun aldetik, badaude pare bat aldapa, baina, bestela, ez da zaila; bideak

DATUA

7,15
KILOMETRO

Ibilbide luzeenak 7,15 kilometro hartzen du; motzagoak, txikiendako, 6,1.

ESANAK


"Ekintza polita da herriko eta bailarako umeendako"

MAIALEN GURIDI | ANTOLATZAILEA

nahiko zabalak dira", dio Maialen Guridik. Ibilbide luzea 7,15 kilometrokoa da, eta motza, 6,1 kilometrokoa.

Izen ofiziala "lehiaketa" den arren, berez ibilaldia besterik ez da. Hiru kontrol egongo dira bidean; helburua ez da bakoitzaren denborak neurtzea, baizik eta ibilbide osoa egiten dela ziurtatzea. "Bukar, parte-hartzaile bakoitzari diploma bat emango" diotela ziurtatzen du Guridik.

Izen-ematea zabalik dago
Azken hilabeteotan lan handia egin behar izan du Arrola Mendi Taldeak, izan ere, otsailean Mendi Astea egin zuten, eta honako



Planoan ikusten dira Antzuolan egingo diren bi ibilbideak. | GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOA



2014an Aretxabaletan egin zuten eskola arteko ibilbide neurtua. | GOIENA

ibilaldiaren ardura ere izan du. Nahi baino asti txikiagoa izan du, hortaz. Pausoka Guraso Elkarrearen laguntza ere izan duten arren, "lana" izan da; baina, batez ere, herriko umeendako, eta baita Debagoien eta Debabarren osokoendako ere, "ekintza polita" antolatzearen poza ere izan du mendi taldeak. Goizekoa bakarrik da ekintza; autobusean etortzen dira bisitariak, goizeko ekintza-aren ondoren joaten dira bueltan, eta, beraz, Antzuolan aparteko gorabeherarik ez da espero.

Azken egunotan kezka agertu dute zenbait herritarrek, zabaldu zelako ibilbidea bidegorriko Iraetako tuneletik pasa behar zela, eta harriak jausi direlako bertan; are gehiago, Foru Aldundiak guztiz itxi du tunel hori, segurtasunagatik. Bada, Maialen Guridik dioenez, ibilbidea "inoiz ez" zen tunel horretatik pasatzekoa, baizik eta inguruan dauden beste hiru tuneletako beste batetik.

Denetara, 250 eta 300 ume artean eta haiekin etorriko diren helduak espero dituzte Arrola

Mendi Taldekoek; kontuan hartu behar da ibilaldi neurtuan parte har dezakeela Gipuzkoako ikasketxeren batean dabilen edozein ikaslek, eskola kirolean ibili zein ez. Izena emateko epea badago oraindik; hori egin nahi dutenak edo informazio gehiago nahi dutenak Arrolako presidente Maialen Guridirengana jo dezakete, astelehenean edo eguaztenean, 18:00etatik 20:00etara, 650 61 46 41 telefonora deituta; arrolamt@gmail.com helbide elektronikora mezua ere bidal daiteke.

Parekidetasunarentzat erreferente feministekin

- Angela Davis aktibista nabarmendu dute aurten Martxoaren 8ari begira
- Kongotik eta Mexikotik etorritako bi ekintzailek hitzaldi bana eskainiko dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaleko Emakume Sailak eta Emakume Txokoak, Alboan fundazioarekin, Emakume Martxarekin eta Ekin Emakumeak Elkar-tearekin elkarlanean, egitarau zabala antolatu dute Martxoaren 8ari begira. Ekitaldiak bihar bertan hasiko dira, *Gure parte hartze politikoa aztertzen: oztopoak identifikatuz, estrategia feministak eraikitzen* deritzon tailerrarekin. Aldez aurretik eman beharko da izena: 943 79 41 39 edo emakume-txokoa@arrasate.eus.

Astelehenean, martxoak 7, Justine Masika Bihambak, Kongoko Errepublika Demokratiko genero indarkeriaren aurkako plataforma bateko kideak, solasaldia eskainiko du Kultureko areto nagusian, 19:00etan; gaztelaniaz izango da. Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, manifestazioa irtingo da Seber Altube Plazatik, 19:30ean. Martxoaren 10ean *Ama txarren kluba* izeneko hitzaldia egongo da Kultureko Jokin



Iaz Gora Feminismoa! lelopean egindako manifestazioa. | IMANOL SORIANO

Zaitegi gelan (18:30): "Ilusioz eta umorez amatasunean bizi dugun ezinegenez, zalantzez eta kontraesanez mintzatuko gara", adierazi dute antolatzaileek.

Hilaren 12an, egun osoko plana Martxoaren 12an emakume artisauek eta baserritarren azoka egingo da goizetik eguerdira bitartean Seber Altube plazan. Ondoren,

15:00etan hasita, bazkari feministak egingo dute Jai Zale elkartean; bazkarian izena emateko azken eguna da martxoaren 9a, Ekin elkartearen egoitzan edo Emakume Txokoan. Afariaren prezioa da 15 euro -8 euro ikasle edo langabeendako. Eguna boro-biltzeko, Virginia Imazen *Sex o no sex* antzezlanak ikusteko aukera egongo da Kultureko areto

nagusian (20:00); gaztelaniaz izango da. Martxoaren 16rako beste hitzaldi interesgarri bat antolatu dute leku berean (19:00): *Aportes del zapatismo al feminismo*. Sylvia Marcos ekintzaile feministak mexikarra eta Itziar Gandarias izango dira hizlariak; gaztelaniaz izango da. Egitaraua borobiltzeko, Zinegoak Hedapena 2016 ekimeneko film laburrak helduko dira Amaia antzokira, 20:30ean hasita.

Angela Davis kartelean

Aldi berean, martxoaren 7tik 18ra, erakusketa jarriko dute lehiaketako karteekin. Emakume Txokoan jarriko dute; asteleheneetik eguenera, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era. Aurten Juan Diego Ingelmo izan da irabazlea: "Lehiaketan, jendarte parekidearen aldeko borrokan erreferenteak izan diren mugimendu feministak eta emakume feministak aldarrikatu nahi izan ditugu. Horregatik, aurten, feminismo beltzaren erreferente nagusietakoa den Angela Davisen figura nabarmendu dugu. Kartelak Davis aktibista feministaren figura askatasunaren aldeko borrokalari bezala irudikatzen du. Kateak apurtu eta zapalkuntza adierazpen anitzei -emakumea, arraza, klasea- aurre egiten dion emakumea irudikatu du egileak", adierazi dute.

22 lan aurkeztu dira eta antolatzaileek lanen kalitatea nabarmendu nahi izan dute. Egileak 450€uroko saria eskuratu du.

NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA



Azaldu ezinezko sentimendua

Ez da aurreneko aldia honi buruz hitz egiten dudala, baina aste-buruan kanpoan izan naiz eta hizketan aritu gara gauza bat dela eta bestea dela. Larritzen nau euskararen egoerak, larritzen nau haurren sentimenduak, larritzen nau jendearen pertzepzioak, larritzen nau, larritu larritu!

"¿A qué piso vas?", galdera. "Bosgarrenera, eta zu? Nola ba, gaztelara?", nire erantzuna. "Ez dakit, atera egin zait". Bazkaltzeko gogoia ere joan zitzaidan. Haur bat zen, 10 urte izango zituen. Barrua hustu zitzaidan momentu hartan.

Beraz, zein da gure eguneroko jarduna? Gazteenganako eta haurrenganako sentsibiltate eta ardura lantzea beharrezkoa dela ikusten dut. Aste bukaera eskiatzen aritu ondoren gaiari buruz galde-tu zidaten. Euskaldun sentitzen naiz eta guztiz harro nago. Nire bizitza da, nire egunerokoa. Min egiten dit haur bat kalean gaztelaraz hizketan ikusteak, lagunarteko giroaren aldaketak edota, zer esanik ez, kargu publiko askoren jarrerak. Ezin dut ulertu estralurtar sentitu nintzela momentu batez, eta horrek guztiak barrenak erabat mugitzen dizkit.

Baina muga, zailtasun eta oztopo guztien gainetik, egunez egun euskararen alde lanean eta irribarrea aurpegian dugula jarraitu beharra dago, inork ez baitu gure ordezkariaren alde borrokatuko.

"Euskararen alde jarraitu beharra dago, irribarrea aurpegian"

Bigarren goraino bete zuen Kulture San Felipe Apostolek

Jose Luis Amerigo notarioak testamentuen gainean astelehenean emandako hitzaldian goraino bete zen berriro ere Kultureko areto nagusia. Arrakasta ikusita, San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkarteko presidente Juan Jose Pagaldaik aurreratu zuen "seguruenik" hirugarren hitzaldi bat antolatuko dutela.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuko langileen auzia konpondu nahi du Udalak, enpresarekin batzartuta

Ongizate Sailak "inplikazio aktibo eta zuzena" izango duela dio, "bere eskumenetik harago"

J.B. | ARRASATE

Udaleko Gizarte Ongizate Sailako etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duen azpikontratutako enpresaren eta langileen artean desadostasunak sortu dira: "Etkez etxeko emakume langileen eskutik ezagutu ditugu lan baldintzak, aldarrikapenak eta eskaerak zeintzuk diren. Udalak enpresarekin bilduko da; gure nahia da eskaera horiek inplikatu guztien artean nola bideratu aztertzea eta lantzea", diote Udaletik.

Egoera horren aurrean, Udalak argitu du ez duela kontratatzen dituen enpresen langilariaren aurrean erantzukizun legalik: "Txosten tekniko eta baldintza plegu baten baitan egindako esleipena izanik, Udalak ezin ditu bere eskumenekoak ez diren erabakiak hartu". Hor-taz, gogora ekarri dute ez duela kontratatzen dituen enpresen langilariaren aurrean erantzukizun legalik: "Legalki Udalak ezin du langile horien gaineko erabakirik hartu, baina bere eskumenetik harago, inplikazio

aktibo eta zuzena izango du gai honetan. Bitartekaritza lanak egingo ditu, enpresak eta langileek elkartze-puntuak aurki ditzaten". Udaletik gaineratu dute jakitun direla lan kargak eta kontratazio kopuruak behe-eragin dutela, krisiak edota beste faktoreek eraginda, eta horrek, "ezinbestean" egoera zaildu eta adineko pertsonen zerbitzu ematen dieten emakume langile horiengan eragin duela "zuzen-zuzenean".

Irabazirentzat, "obligazioa"

Bestalde, Irabazi koalizioak uste du Udalaren "obligazioa" dela enpresa horretako langileen lan-baldintzak bermatzea: "Enpresa azpikontratatuak izateak ezin du Udalak salbuetsi lan-baldintzak errespetatzea exijitzeaz. Onartezina da kontratazio publikoek langileen egoera okertzeko balio izatea", adierazi du Irabaziko bozeramaile Juan Luis Merinok. Hala-ko egoerak ekiditeko Arrasateko Kontratazio Behatokia sortzea proposatu du Merinok.



Ezkerrean, "asmo txarreko" kartela; eskuinean, pintaketa "iraingarria". | UDALA



"Asmo txarreko" kartel eta pintaketa "iraingarriak" gaitzetsi ditu Udalak

J.B. | ARRASATE

Joan den egubakoitzean Maria Ubarretxena alkatearen eta Oscar García PSE-EEko zinegotziaren aurpegiak ingandako "asmo txarreko" kartelak agertu ziren alde zaharreko zenbait hormatan eta gauean, berriz, PNV-PSOE faxistak zioten pintaketa bat agertu zen: "Elkarbizitzaren, elkarren arteko errespetuaren eta iritziz aniztasunaren aurkako eraso da", adierazi du Udal Gobernuak prentsa ohar bidez.

Uste dutenez, "eraso horiek" ez dute lekurik gaur egun: "Behin eta berriz gaitzetsiko ditugu mota honetako hitz eta ekintza iraingarriak. Alkate eta udal ordezkarien aurkako erasoak ez ezik, arrasatear ororen aurkako erasoak ere bada, elkarbizitzaren, elkarren arteko errespetuaren eta

iritzi aniztasunaren aurkako eraso delako. Arrasate herri demokratiko eta askea izatea nahi dugu etorkizuna elkarbizitzan oinarrituta eraikitzeko".

EAJ: "Iraganeko jokabidea da"

EAJk, berriz, pintaketa gogor kritikatu du: "Elkarbizitza eta bakearen bidean oztopoak jartzea eragiten dute horrelako ekintza ulergaitzek. Elkarren arteko errespetuari falta bat izateaz gain, bizikidetzak kutsatu nahi duten ekintzak dira. EAJ-PNV talde politikoari irainak, talde politiko hau jarraitzen duten arrasatear guztiei ere irain egitea da. Herri demokratiko baten halako jarre-ek ez dute lekurik eta errespetua izanik lehentasunezko oinarri, era irmo baten salatzen ditugu iraganeko jokabide hauek".



Erain Debagoienak zapatuan iragarri zuen ekainaren 12ko herri galdeketa; irudian, bertan egon ziren arrasatearrak. | J. DOMINGO

Erabakitzeko eskubidearen aldeko sinadura bilketa hasiko dute bihar

Ekainaren 12ko herri galdeketa begira ekitaldi berezia egingo dute Herriko Plazan (12:00); orain, biztanleen %10en atxikimenduak lortzea da helburua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aste bukaera honetan hasiko du erabakitzeko eskubidearen aldeko sinadura bilketa Erain Debagoienak. Joan den zapatuko aurkezpenean azaldu zutenez, ekainaren 12an egingo den herri galdeketa lehen fasea izango da; *Erein* deitu diote, eta, fase horretan, herri galdeketa posible izateko Debagoieneko eta Aramaioko 65.000 biztanleetatik %10en baino gehiagoren sinadura lortzea jarri dute helburu. Ondoren, *Loratzea* izango da asmoa, herriz herri erabakitzeko eskubidearen aldeko atxikimenduak jaso eta galdeketa begira beharrezko antolaketa martxan jartzeko unea; eta, azkenik, *Uzta jasotzeko ordua* helduko da, herri galdeketa

eguna. Ekainaren 12an ahalik eta parte hartze altuena lortzea izango da helburua, emaitza bera bigarren plano baten jarrita.

Ekimena, "erritmo ikaragarrian"

Antolatzaileen arabera, Erain Debagoiena ekimena "ikaragarriko erritmoan" doa: "Lantaldeak osatzeko bi deialdi egitea zegoen aurreikusita, eta urte hasieran egindako lehenengoan izandako erantzunak bigarrena bertan behera uztera eraman gintuen". Otsailaren 27ko aurkezpenean "atxikimendu zabala" jaso zutela nabarmendu dute: "Egunerokotasuneko arlo guztiak ikusi ditugu ordezkatuak. Hainbat ideologia, belaunaldi, jatorri eta lanbide zeuden ordezkatuak".

Aurkezpene Herriko Plazan

Lehen faseari bihar emango diote hasiera, sinadura bilketarekin. Festa giroan egitea da asmoa: 11:30ean Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren eta gaiteroen kalejira egingo dute, herritarrek Herriko Plazako ekitaldira deitzeko. 12:00etan egingo da aurkezpen ekitaldia. Egitasmoaren azalpena, dantzarien agurra eta herriko hainbat pertsona esanguratsurekin argazkia aterako dute.

Gero, 12:30etik 14:00etara, bertsolariak, dantzariak, konpartsa, trikitilariak, txistulariak eta umeendako tailerrak izango dira plazan, besteak beste. Aurkezpenearen ondoren sinadura bilketa hasiko da, plazan bertan jarriko den mahai baten.

Martxan da bezeroa fidelizatzeko Ibai-Arteren sistema berria

J.B. | ARRASATE

Martxoaren 1etik aurrera, Ibai-Arte merkataritza elkarteak puntuen bidezko sistema alde batera utzi, eta hurrengo erosketan deskontuak lortzeko fidelizazio sistema berria jarri du martxan. Sistema berriarekin, bezero batek Arrasate Txartelarekin elkarteko denda baten -60 komertzio baino gehiago sartu dira- erosketa bat egitean, deskontu zehatz bat gordetzen zaio, dendaren arabera ezberdina dena, denda berean Arrasate Txartelarekin egiten duen hurrengo erosketarako.

Erosketa txartela ez dago gorde beharrik, txartelean bertan erregistratuta gelditzen

da-eta deskontua. Denda baten lortutako deskontua denda berean erabili beharko da.

Merkemerkaua, baldintzatuta

Bestalde, joan den zapatuko Merkemerkaua erabat baldintzatu zuen eguraldi txarrak. Biteri plazan, esaterako, ezin izan zuten posturik jarri, haizeak bota egin zizkielako karpak, eta batukadarik zein konpartsaren kalejirarik ez zen izan. Dendari bakoitzak ahal bezala moldatu behar izan zuen; batzuek espaloira atera zituzten produktuak eta beste batzuek parez pare zabaldu zituzten dendako ateak herritarrek barrura gonbidatzeko.



TXATXILIPURDI

Gustura 'Domeketan!' ekimenaz

Otsailaren 28an ekin genion *Domeketan!* egitasmoari Okendoko ludotekan. Ezagutza jolasak, kantu jolasak, ipuinak eta iritziak elkarbanatu genituen. Ondorio batera ere iritsi ginen, eguraldi txarra egiten duenerako espazio estali baten beharra badagoela herrian, jolas gidaturako zein jolas liberako.

Gustura asko aritu ginen, ederto pasa genuen euskaraz berbetan.

KOMUNITATEA GOIENA
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Ezker abertzalearen 'Abian' prozesuko lehen bilera bihar Kulturaten

Bihar egingo du ezker abertzaleak *Abian* prozesuko lehen bilera Kulturateko areto nagusian (10:00). *Euskal Herria Zutik eta Abian* deritzon txosteneko tesia bozkatuko da bihar, besteak beste. Martxoaren 19an eta apirilaren 16an egingo dituzte bigarren eta hirugarren bilerak, ordu eta leku berean.

Zurumurruei aurre egiteko formazio tailerra egingo dute

Etorkinekin lotuta dauden zurumurruei, aurreiritziei eta este-reotipoei aurre egiteko formazio tailerra antolatu du Elkarheitzeneke biharko, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 10:00etatik 13:00etara. Otsailaren 20an egin zuten lehena, bihar bigarrena egingo dute eta azkena martxoaren 19an izango da.

Halcon bidaiak.com

✓ Arrasatetik eta Aretxabaletatik irteerak

✓ Maiatzaren 17tik 31ra Torremolinosen egonaldia (hegazkinez; eta Arrasatetik autobusa)

Olarte 14 • Arrasate • 943 79 29 88



Bertan
igogailuak | ascensores

- 24 orduko emergentzia-zerbitzua
- Pieza guztiak barne
- Industriako inspeksioak
- Iraupen-konpromisorik gabeko kontratua
- Emergentzia-telefonoa eta argiak bakarrik itzaltzeko instalazioa DOAN
- Dena, 100€-tik aurrera
- Euskarazko zerbitzua eta Debagoienetik bertatik eskainia



www.bertan.eus | info@bertanigogailuak.eus

Garaia. Goiru 1A - 20500 Arrasate • Tel.: 943 90 34 50 | 691 64 79 65

Igoera fasea hasiko dute errugbiko seniorrek

Gernikaren kontra jokatu dute lehen partidua, zapatuan, 16:00etan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Bigarren mailako Euskal Ligako lehia guztiak irabazi ostean – hamaika – igoera faseari ekingo dio aste bukaeran errugbi taldeak. Bi multzoetako bina talde onenek euren arteko ligaxka jokatu dute. Sei partidu izango dira guztira. Joan-etorrikoak. Lehena bihar, zapatua, Gernikaren kontra (16:00). "Ligako bi partiduak kontuan hartuta, lehia gogorra izango dela esango nuke. Are gogorragoa, jokalariek gutxi ditugula kontuan hartuta", esan du Igor Isasi entrenatzaileak.

"Irabazteko aukerak"

Arrasatearrekin eta bizkaitarrekin batera, Iruña eta Universitario de Bilbao taldeak egongo dira igoera fasean. Talde onenak zuzeneko igoera lortuko du eta bigarrenak Lehen Mailako azken-aurrekoaren kontra jokatu du, hil edo biziko lehia. "Igoera fasea irabazteko aukerak baditugu, eta hala bada, iazko egoera berean egongo ginateke. Lehen Mailarako igoerarekin, baina jokalariek gutxi direla, gure antzera, beste talde batzuk", dio.



Arrasatearrak Gernikarren kontrako lehia. | IMANOL SORIANO

DATUA

6

PARTIDU

Horiek dira igoera fasean jokatu beharreko partiduak: hiru Mojategin eta beste hiru etxetik kanpo. Joan-etorriko ligaxka.

Liga txapelketa 26 jokalarirekin hasi zuen Kanpazar taldeak, baina egun, lehen lerroan gabezia handia dauka. "Bizkarrean eta belaunean min hartuta dauden jokalariek ditugu, eta partiduak irabazteko bermerik barik uzten gaitu horrek. Ligako partidu batzuetan asko sufritu dugu irabazteko, eta igoera fasean ere sufrituko dugu", azaldu du entrenatzaileak.

Murua eta Egiguren, Euskal Ligako finalean

M.B. | ARRASATE

Arrasateko bikote Ander Murua arrasatearrak eta Julen Egiguren azpeitiarrak Euskal Ligako finala jokatu dute etzi, domeka, Gasteizen, Lakuan, 11:30ean. Goizuetako bikote Aizkorbe-Apezetxea izango dute aurkari txapela jantzi ahal izateko.

Aurreko aste bukaerako finalerdietan gehiegi sufritu arren, "gogotsu" daude finalari begira. "Oso motibatuta daude. Aurretik irabazi dute pare bat txapelketa eta sasoiko daude finalaren aurretik. Euskal Liga kadete mailako pilota txapelketa inportantea da. Muruarendako eta Egigurenendako txapelketa hori irabaztea da urteko helburu nagusia", esan du Ibai Bolinaga entrenatzaileak.

Goizuetako bikotea

Goizuetako bikoteak ez die gauzak erraz ipiniko. "Oso indartsuak dira. Alde horretan, gure bikotea baino indartsuago. Baina, gurek pilota gutxiago galtzen dituzte eta tantoak oso ondo bukatu. Horiek izango dira gure baliabide nagusiak. Dena den, finala oso gogorra izango dela badakigu, baina gogotsu daude", azpimarratu du Bolinagak.



Julen Egiguren. | IMANOL SORIANO

Uarkapeko sabaia

Aurreko aste bukaerako euri-teen eta haize indartsuen ostean Uarkapeko sabaia hondatu egin zen. Une honetan, plastiko batzuk daude ipinita, perituak kalteak zenbaterainokoak izan diren zehaztu arte. Aseguruak bidaliko du peritua pilotalekura. Bestalde, kantzako egurra noraino hondatu den ikusi beharko da. Adituek diote hiru bat egun beharko dutela kalte guztiak zerrendatzeko. Teknikariak lanean dihardute.

Bien bitartean, Uarkape zabalik dago, baina ez dago erabilgarri %100ean.

Kopako finalerdietako itzulerakoak Zaldibarren

Bi partiduetako emaitzak hartuko dira kontuan eta berdinketa badago penaltietan erabakiko da

M.B. | ARRASATE

Zaldibarko kopa txapelketako finalerdietako itzulerako partiduak jokatu dituzte bihar, zapatua: 11:00etan Dribling eta Aldatz nor baino nor gehiago eta 12:00etan Abokajarro eta Rayo

Makabro aurrez aurre. Antolatzale taldeko kideak izango dira epaileak.

Kopako txapelketako finala zein bi taldek jokatu duten jakiteko, joaneko partiduetako emaitzak ere hartuko dituzte

kontuan. Hauek izan ziren emaitzak: Aldatz 3-Dribling 5 eta Rayo Makabro 7- Abokajarro 6. Emaitzek erakusten dute itzulerako lehiak ere oso parekatuak izango direla.

Zapatuko partiduetako arauzko denbora bukatu ostean, eta bi partiduetako emaitzak kontuan hartuta, berdinketa badago, hamar minutuko luzapena jokatu dute. Horren ostean, berdinketak jarraituko balu, penalti puntutik erabakiko lukete irabazlea. Talde bakoitzak bost penalti botako lituzke.

Ligako bigarren itzulia

Kopako finala jokatu ostean, liga txapelketari helduko diote berriro ere Zaldibarren. Lehen fasea bukatu ostean, bigarren itzulia izango dute helburu. Kopa txapelketan moduan, ligan ere indartsuenak Aldatz eta Dribling taldeak dira. 22na puntu dituzte sailkapenean. Atzetik daude Monte Taberna (18 puntu), Lasagabaster (18) eta Sonografos (16). Abokajarro, Elorra JMA, Betray, Olimpiakojos FC eta Rayo Makabro dira ligako gainerako taldeak.

Mojategikoak, urrezko puntuak Mondrarendako

M.B. | ARRASATE

Erregional Preferenteko liga bukatzeko bederatzi partidu falta dira, eta ez dago hutsik egiteko betarik. Bederatzi final ditu aurretik Mondrak. Lehen bihar, zapatua, Urkomen diren kontra, Mojategin (16:30). "Hiru partidu jarraian irabazi dituzte eta gorako bidean doaz. Ausart eta beldur barik jokatzen duen taldea da. Kontrarioarendako oso deserosoa, baina guk hiruak lortu behar ditugu puntuak. Bestela, bigarren lekua galtzeko arriskuan egongo gara", esan du Mondrako entrenatzaile Josu Zubiak.

Aste Santuko atsedenaldia

Aste Santuan egongo den atsedenaldia dute begiz jota arrasatearrek. "Hiru partidu gertzen dira ordura arte. Horietako bi, etxean. Lortutako emaitzek markatuko digute liga bukaera arteko erronka. Gure atzetik dauden taldeen kontrako norgehiagoka zuzenak izango ditugu; besteak beste, Bergara, Ikasberri eta Urola", dio.

Donostiatik Zarautzera, Santiagoko bideari segika

Santiago bidearen bigarren etapa egin zuten otsailaren 28an. Lagun talde ederra batu zen Donostiatik Zarautzerainoko bidea egiteko. Tartean, Igeldo eta Kukuarri tontorra igo zituzten. Hurrengo irteera martxoaren 13an egingo dute, GR-282 ibilbidean.



BESAIDE



Finalisten zerrenda maiatzaren 4an kaleratuko dute eta maiatzaren 12an izango da sari banaketa. | GOIENA

Literatur lanak bidaltzeko azkenengo egunak dira

Martxoaren 16ra arte aurkeztu daitezke idazlanak 29. Arrasateko literatur lehiaketetan parte hartzeko

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE
Bukatzeaz da Arrasate literatur lehiaketetara lanak aurkezteko epea. Martxoaren 16ra arte izango da horretarako epea. Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen edonork har dezake parte, eta parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake. Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatzen ditu, eta

helburu nagusiak literatur zale-tasuna eta euskarazko sormena sustatzea dira.

Nola aurkeztu lanak
Lehiaketara lanak aurkezteko bi bide daude: posta elektronikoz edo paperean inprimaturik. Lehenengo kasuan, aed@aedel-kartea-com helbidera bidali behar dira lanak. Hala, dokumentu

batean lehiaketara aurkeztutako idazlana joango da, lelo batez sinatuta eta egilearen izen barik. Beste dokumentuan, berriz, idazlanak daraman lelo bera eta egilearen datuak zehaztu beharko ditu parte hartzaileak (datu horiek dira: izen-abizenak, jaiotza-data, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta ikasturte honetan zein mailatan dabilen).

Bestalde, lanak paperean inprimatuta aurkezteko, idazlanaren hiru kopia entregatu behar dira, guztiak lelo berarekin sinatuta, eta horrekin batera gutun-azal itxi bat, aurrez aipatutako datuekin. AED elkartearen egoitzara bidali edo eraman behar dira lanok: Pablo Uranga 4, behea. 20500, Arrasate.

Oinarriak
Lanek euskarazkoak izan behar dute, orijinalak eta inoiz saritu edo argitaratu gabeak. Gaia librea da. Idazlanek tarte bikoitzez eta orrialde bakar batetik ordenagailuz idatzita egon behar dute.

Diziplinak eta kategoriak
Literaturaren barneko hiru diziplina desberdin landuko dira lehiaketan: ipuina, poesia eta bertso-paperak, eta kategoriak ikasturtearen arabera banatu dituzte antolatzaileek.

Lau kategoria izango dira diziplina bakoitzean: LH-5 eta LH-6; DBH-1 eta DBH-2; DBH-3 eta DBH-4; eta Batxilergoa eta nagusiak. Hurrenez hurren, 100, 125, 150 eta 200 euroko sariak jasoko dituzte irabazleek; bigarrenek, berriz, opari bat jasoko dute kategoria guztietan.

Lanen luzerari dagokionez, bertso-paperetan haxe da: LH-5 eta LH-6, hiru bertso; DBH-1 eta DBH-2, lau bertso; DBH-3 eta DBH-4, bost bertso; eta Batxilergoa eta nagusiak, sei.

Ipuinen kasuan: LH-5 eta LH-6 eta DBH-1 eta DBH-2, orrialde bat edo bi; DBH-3 eta DBH-4, 2-4 orrialde; eta Batxilergoa eta nagusiak, 3-5.

Bukatzeko, poemetan hau da lanen luzera: LH-5 eta LH-6, 20 lerrotik gora; DBH-1 eta DBH-2, 25 lerrotik gora; DBH-3 eta DBH-4, 30 lerrotik gora; eta Batxilergoa eta nagusiak, 35 lerrotik gora.

Landslide taldea igoko da oholtzara hurrengo Kooltur ostegunean

Bilbotik etorriko da datorren egunean, martxoak 10, Kooltur ekintzaren baitan gazte-txean kontzertua eskainiko duen taldea. Hard rock estiloko musika egiten du Landslide laukote bizkaitarrak, eta 70eko hamarkadako musikaren eragina nabarmena da euren abestietan. Ingelesezt kantatzen dute, nagusiki. Migel Mora gitarrista da liderra, eta berarekin batera Jokin Salaberriak, Gonzalo Portu-galek, Virginia Fernandezek eta Sara Iníguezek osatzen dute taldea. Kontzertua gaueko hamarretan hasiko da, eta sarrerak bost eurotan salduko dituzte.

The Northagirres-en rock doinuak gaur Iluntz tabernan

M.T. | ARRASATE
The Northagirres talde urretxuarrak kontzertua eskainiko du gaur gauean, hamaiketan hasita, Olarte kaleko Iluntz tabernan. Ez da sarrerarik ordaindu beharko emanaldia ikusteko. Rock-and-roll, country eta folk estiloetako musika jorratzen dute The Northagirresek. Duela lau urte sortu zuten seikotea, eta dagoeneko bi disko kaleratu dituzte: lehena *The Northagirres* izeneko (2014) eta bigarrena *Down the Highway* (2015). Iñaki Urizabal, Aitor Godoy, Iñigo Agirrebalzategi, Borja Aranbur, Iker Alvarez eta Ana Agirrebalzategi dira taldeko partaideak.

Maitasuna "hizki larriz" erakusten duen antzezlan

Familiei zuzendutako 'Amour' izeneko obra izango da ikusgai bihar arratsaldean Amaia antzokian

M.T. | ARRASATE
Amour antzezlan taularatuko dute Tartean eta Marie de Jongh taldeek bihar, martxoak 5, Amaia antzokian. Arratsaldeko bostetan izango da hitzordua, eta sarrerak bost eurotan daude salgai, bai Arrasateko Udalaren webgunean, baita leihatilan ere. Jokin Oregi soralezetarrak idatzi eta zuzendutako obra da, eta oraingoa izango da obra Debagoienean taularatuko duten lehendabiziko aldia. Amaia antzokia euren ikuskizunak egiteko “primerako plaza” dela uste du zuzendariak. Familia osoari zuzendutako ikuskizuna da *Amour*, eta bost urtetik gorakoentzat gomendatuta dago. Lagun talde baten istorioa kontatzen du, eta protagonistak ume garaian eta zahartzaroan irudikatzen ditu.

“Maitasunari buruzko istorio bat da, baina maitasuna hizki larriz”, hala dio zuzendariak. “Ildo nagusia bi emakumeren arteko maitasun istorioa da, zahartzaroan gauzatzen dena. Lehenik, umetan ikusiko ditugu, jolasean, helduak imitatu guran. Haserretu egingo dira umeak, eta bi neskatila horien arteko haserreak hirurogei urte iraungo du; eta gero salto bat egingo dugu zahartzarora. Eta hor, maitasunari aukera emango diote”, azaldu du Oregik. Baina hori ez da maitasun istorio bakarra, hainbat maitasun istorio desberdin kontatzen baititu antzezlanak.

Testurik gabe
Istorio horiek testurik gabe, hitzik erabili gabe kontatuko dituzte aktoreek, hori baita Marie de



Amour antzezlanean aktoreek maskarak erabiltzen dituzte. Irudian, protagonista nagusiak. | ANE PIKAZA

Jongh taldearen ikur bereizgarrietako bat: “Esaten den moduan, inportanteena ez da esaten duguna, baizik eta egiten duguna”. Azpimarratu du “denek ulertzeko moduko ikuskizuna” dela.

Sariak
Abenduaren 23an estreinatu zuten Bilboko Arriaga antzokian *Amour*, eta dagoeneko bi sari potolo jaso ditu. Batetik, euskal produktorik onenari Ercilla saria. 2015ean Bilbon izandako antzezlan guztien

artean egin zuten aukeraketa. Bestetik, joan den astean bertan sari nagusia jaso zuen Gijonen egin duten Feten-en, Europako Haurrentzako Antzerki Azokan. Sariketa hori estatu mailan garrantzitsuena da; eta mundu osoko taldeek hartzen dute parte. Horri esker antzezlan kanpoan aurkezteko aukerak zabaldu daitezkeela uste du Oregik: “Ustedut sariak berak ere oihartzuna emango digula eta uste baino lan gehixeagorekin aterako garela”.

Helduendako eta umeendako
Haurrei eta gurasoei zuzenduta dago *Amour*, eta guztiek gozatzeko moduko antzezlan prestatu dute, Oregik dioenez: “Emanal dietara umeak ez dira bakarrik joaten, helduekin baizik. Ez dugu nahi helduak aspertzear. Guztiak emozionatuko dituen ikuskizunak eskaintzea gustatzen zaigu, nola bait esperientzia partekatze”. Gaineratu du beti saiatzen direla obrak “arrastotxo bat, hausnarketarako bide bat” utz dezan.

Gobernuaren "ildo estrategikoak gauzatzeko" udal aurrekontua

- Kohesio soziala nahi dutela esan dute EAJk eta PSEk
- Partaidetza bultzatzeko asmoa ere adierazi dute

JULEN IRIONDO | BERGARA

"Zeharkako helburu" izendatutako koei buruz hizketan hasi zuen Elena Lete alkateak asteleheneko osoko bilkuran 2016ko udal aurrekontuari zegokion puntua; eta lehen berrikuntzaren berri eman zuen berehala: "Nabarmendu nahiko nuke Partaidetza, Bizikidetzak eta Herritarrak; horretara bideratu dugu aurten partida berezi bat –orain arte ez zegoen hala izendatuta–, 25.000 eurokoa". Beste helburuetako bat "kohesio sozia-

DATUA

22.021.145

EURO

lazioarekiko %2 hazi da aurtengo udal aurrekontua. Inbertsioetarako %27,7 gehiago bideratuko da (2.181.671 euro), eta garapen ekonomikorako 471.691 euro.

la" izango dela esanez jarraitu zuen alkateak, zehaztuz "esparru fisikoan, esparru sozialean, kirol esparruan eta kultur esparruan" lortu nahi dutela kohesio hori: "Esparru fisikoan, saiatu gara orekatzen nekazaritza guneen aurrekontua; 125.000 euroko aurrekontua da. Horrez gain, GHKko Angiozarko partida daukagu [160.908 euro iritsiko dira kontsortziotik, Epeleko konpost-gunearen lanak aurten bukatu eta kitatzen badira, eta Angiozarre-

rako izango da diru hori, hitzartutakoaren arabera], eta auzoetako ekipamenduetarako 25.000 euro".

Arlo sozialeko aurrekontua iazkoarekiko %5-6 igo dela azaldu zuen Letek, eta kirol taldeei emango zaizkien diru laguntzen zenbatekoa %20 eta kultur taldeena %6 hazi direla ere bai.

Eta, noski, hondakin bilketa sistemaren aldaketak ere izango du isla aurtengo aurrekontuan.

Sarrerak eta gastuak

Sarrera eta gastuei dagokienez, sarreretan –GHKtik letorkeen aipatutakoaz gain– Agorrosingo tasen igoerak –%20– eragina izango du, alkateak azaldu zuenez, eta foru funtsetik iritsiko den

kopurua ere "%6 inguru" haziko dela zioen.

Sarrerak txikitzea ekarriko dituztenen artean, berriz, ondasun higiezinaren gaineko zergako erre-kargua ezabatu izana aipatu zuen Letek, eta baita jarduera ekonomikoen gaineko zerga "moldatu" izana ere, "jarduera gutxiago dagoelako krisi egoera honetan eta, horretaz gain, hobari batzuk daudelako tartean".

Gastuei dagokienez, pertsonalarena %2,8 igo dela iragarri zuen; tartean, %1eko soldata igoera, "Eudelek proposatu zuena". Azkenik, Bergarako Udalak 6.938.188 euroko zor bizia duela jakinarazi zuen, %7,46ko zorpetze maila, eta maileguengatik aurten ordaindu beharreko interesek –120.501 euro– %36 egin dutela behera.

Irabaziren emendakinek

Irabazik osoko zuzenketa aurkeztu zion EAJk eta PSE-EEK pres-tatutako aurrekontuari. Azken urteetako "antzerakoa" dela zioen Aiert Lizarralde, eta "gai garrantzitsuenak" ez dituela kon-tuan hartzen, "krisi ekologiko,

ELENA LETE | ALKATEA

"Partida bat sortu dugu Arrizuriagako aurreproiekturako"

Aurrekontuaz eta osoko bilkuraz dihardu alkateak.

Ze inbertsio eta proiektu nabarmenduko zenituzke aurtengo aurrekontuan isla dutenen artean?

Ipintzako futbol zelaian estalitako harmailak egitera 100.000 euro bideratuko ditugu; Labegaraletako kiroldegia berritzera, berriz, 72.000. Labegaraletako ur bizien proiekturako 45.000 euro aurreikusi ditugu, eta 19.210 euroko partida bat sortu dugu Arrizuriagan aurreproiektu bat egiteko.

Zuzenketa osoaz gain, irabazik aurkeztu zituen beste zazpi emendakin; horietakoren batzuk adosteko modurik ez da egon?

Irabazik otsailaren 25ean aurkeztu zituen emendakin partzialak, –29an zen osoko bilkura–. Bileran izan genuen astelehen goizean; guk gure proposamenak eta ideiak azaldu genizkion, zazpi emendakin horietatik zeintzuk bai, zeintzuk ez, zergatik bai... Zazpi emendakin horietatik bi partzialki onartu genituen –Berdintasunarena eta Ingurumenarena–. Besteak

ez genituen onartu, ulertzen dugulako aurrekontuetan partida desberdinetan euren isla dutela; gainera, gaur egun gauzatzen ari dira batzuk, eta horrela azaldu genion.

EH Bilduk dio Lakuatik 300.000 euro jasoko direla Kulturarako eta aurrekontuan ez daudela Kulturara bideratuta, eta 160.000 euro GHKtik Angiozarre-rako eta ez direla hara bideratu.

300.000 euro horiek iaz eskutako diru laguntza bat izan zen, obran daukagun inbertsiorako laguntza, ondarearen ikuspuntutik, eta ez ekipamendurako, ez Kulturarako, baizik eta ondare aldetik obra garatzeko, eta horretara bideratuko da. GHKk jarritako dirua Angiozarren erabiltzen ari gara. Aurtengo proiektuak ez dau-



GOIENA

"Labegaraletako berritzera 72.000 euro bideratuko dira"

de oraindik defini-tuta, bertako ordezkari-ekin lantzen ari gara nora bideratu diru hori, baina oraindik ez dago zehaztuta. Horretarako, azterketa bat egingo da, bai Angiozarren eta baita beste auzoetan ere. Gure programan adierazi genuen moduan, agintaldi osorako planifikazioa izatea nahiko genuke. Aurten, zehazki, 125.000 euro dau-de auzoetarako, baina beste sail batzuetako aurrekontuetatik ere diru nahikotxo

bideratuko da auzoetara; adibidez, argiteria aldatzeko, kulturalen, ekipamenduetan...

Hirigintza sarrerei dagokienez, Udal arkitektoak zalantzak agertu ditu Gobernuaren aurreikuspenen gainean.

Arkitektoak bere txostena egin du, sarrerak zeintzuk izango diren jakinaraziz. Horretaz gain, beste hain-

bat bidetatik ditugu sarrerak, lehen esan dugun moduan. Bergarako Udaleko urteetako bilakaera ikusita egin dira kalkuluak, eta kontu-hartzaileak balioztatu zituen sarrera hauek; horregatik daude aurrekontuetan.

Kontu-hartzaileak dio batzordeetatik beharrean alkatetzatik jaso dituela partidaren zerrenda eta kopuruak, eta detaile horiek batzorde eta teknikari bakoitzak ezagutu behar dituela, aurrekontu exekuzioaren kontrola eramateko. Jarduteko moduan aldaketaren bat dago hor?

Aurrekontuaren prestaketaren prozedura ez dago araututa Bergarako Udalean; bai, ordea, kontu-hartzaileari nola helarazi behar zaion informazioa, eta hori hala egin da. Aurrekontu hauek arlo bakoitzeko teknikariarekin landu ditugu (zinegotzi bakoitzak bere arlokoak), eta ondoren lanketa guztia Alkatetzan bateratu, eta garatutako aurrekontuen lehen proposamena otsailaren 3an luzatu genien beste alderdiei. Ondoren, batzorde desberdinetan azaldu zen, proposamen bakoitza arloka. Gero, prozesu hau burututa, kontu-hartzaileari pasatu zitzaion proposamen osoa, eta honek balioztatu egin zituen.

M.C. BARRENETXEA
PSE-EE-KO ZINEGOTZIA

"Egiteko asmoa daukagunaren isla da"

"Aurten egiteko asmoa dugunaren isla da



GOIENA

EAJren eta PSE-EEren artean prestatutako aurrekontua. Gure asmoa da hainbat proiektu gauzatzea: lorategiak, Espoloia eta buruan ditugun eta gauzatuko diren beste hainbat. Ni buru naizen Gizarte Zerbitzuen batzordeari dagokionez, ez da garrantzitsuenak zenbat diru bideratuko den bertara, baizik eta ze ekimen gauzatzeko asmoa dugun. Berdintasun alorrean, adibidez, hainbat gauza egin daitezke, eta ez da soilik diruaren arabera. Beharra duten guztiengana iritsi nahi dugu".

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UREDERRA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

ekonomiko eta soziala", alegia. Zuzenketak aldeko boto bakarra jaso zuen; EH Bildu abstenitu egin zen –nahiz eta bat etorri aurrekontua mahai gainean uzteko eskakizunarekin, zuzenketaren edukia erabat ez konpartitzeagatik–, eta Gobernuako alderdiek aurka bozkatu zuten.

Baina osoko zuzenketaz gain, zazpi partzial ere aurkeztu zituen Irabazik. Gobernuak emendakinen kontra bozkatu zuen –nahiz eta Berdintasunerako eta Ingurumenerako kopuru gehigarri bat jar-tzea erabaki bilkuran bertan, 11.000 euro denera–, eta EH Bilduk alde.

Irabaziren emendakinen hari-ra, Agurne Barrusok adierazi zuen Gobernuak haiek atzera boto iza-nak erakusten zuela alkateak hasieran aurrekontuaren norabi-deari buruz esandakoa "praktikan ez dela horrela. Aipatu dira kohe-sio soziala, territoriala... eta Ira-bazik aurkeztutako emendakinak, orokorrean, bide horretatik zihoa-zen. 209.000 euroko aldaketa bat proposatzen zuen, ez da sekulako aldaketa".

Horrenbestez egin zuten 2016ko Bergarako udal aurrekontuaren bozketa, eta EAJren eta PSE-EE-ren aldeko eta EH Bilduren eta Irabaziren kontrako botoekin ate-ra zen aurrera.

EH Bilduk zuzenketarik ez

Oposizioako alderdi nagusiak ez zion emendakinik aurkeztu aurrekontuari, baina kritikiko agertu zen, edukiarekin eta Gobernuaren moduekin. Leire Iruin kexu agertu zen batzorde bakoitzaren aurrekontuaren informaziorik ez dutela-eta izan, eta areago, partiden zehaztasun faltagatik ere kexatu zen: "*Urbanizazioe-tarako 500.000 euro* jartzen dua-la demagun; baina horren barruan zer egin behar den jakin ez, eta horrela oso zaila da inongo pro-posamenik egitea". Idatziz eska-ria eginda desglosea jaso arren, Iruinek salatu zuen Gobernuak berariaz ez eman izana informa-zio horiek –Udaleko teknikariek ere ez dutela jaso zioen, aurre-kontuaren txosten teknikoak jasotakoari erreferentzia eginaz–. "*Gardentasun* hitza", antza, denek berdin ez dutela ulertzen gehitu zuen.

Edukiari dagokionez, "kon-tu-hartzailearen txostena oinarri hartuta", Lauri Askargortak adie-razi zuen Hirigintzako sarrerak "asko puztu" dituela Gobernuak: "Adibide moduan, eraikuntza zer-gan, arkitektoak 32.400 euroko sarrerak aurreikusten ditu, eta aurrekontuan 314.500 euro jarri dituzue". Honi dagokionez, Iruinek ohartarazi zuen kontu-hartzailearen txostenak dioela ez dela "gas-tuetarako konpromisorik onartu beharko" gastuotarako diru sarre-rak bermatu arte. Baina "sarrera eta gastu arteko loturarik" ez die-tela aurkeztu eta, beraz, aurrei-kusitako sarrera horiekin lotuta gasturik konprometitu ote den ezin dutela jakin zioen.

Kirol tasetatik etorriko diren sarrerren aurreikuspena egitera-koan ere Gobernuak goitik jo dua-la ere bazioen Askargortak, "kon-tuan izan behar delako ia 300 bazkidek baja eman dutela".

Gastuetan, enplegua sustatze-ko partidetan "EAJk agindu zuen salto kualitatiboa" ez dagoela zioen EH Bilduk; horrez gain, parte-har-tzea sustatzeko, 25.000 euroekin "gauza gutxi" egin daitekeela.

Zenbait alorretara bideratuta-ko kopuruaren txikitzea edo desa-gertzea arrazoitzerakoan, berriz, aurreko urteetan aurreikusitakoa gastatu ez izana –aurtengorako erreferentziatzat gastatutakoa hartuz; Euskararako, adibidez– jarri zuen argudio EAJk. Agurne Barrusok ez zuen onargarri jo argudio hori, esanez aurrekoetan ez gastatu arren ez dagoela zertan kopuruok jaitsi, eta beti dagoela diru hori erabiltzeko modu berriak pentsatzea. Jaitsierak egiten badi-ra, lehentasunak beste batzuk direlako egiten dela zioen. Alka-teak erantzun zion ondo ez dagoe-na dela "aurrekontuan aurreiku-spen bat egitea eta gero ez sustatzea politikak hori garatzeko", eta hori aurrekoetan gertatu izan dela –alo-kairu sozialari buruzko eztabaidan erantzun zuen hori alkateak–.

Kirol tasetako sarrerei dago-kionez, berriz, Sabino Azkaratek zioen "nahikoa prudenteak" izan direla, tasak %20 handitu arren %13,5eko igoera aurreikusi dute-lako sarreretan. Partaidetzarako 25.000 euroekin "hasi" egin nahi dutela ere bazioen alkateak.



Arrizuriaga jauregia. | JULEN IRIONDO

Aurreikusi baino milioi bat gutxiago

Udal Gobernuak otsail hasieran aurkeztutako aurrekontu zirriborroak oraingo kopurua baino 1.100.000 euro gehiago zituen. Arrizuriaga jauregiaren eta Seminarioaren arteko permutaren hitzarmena aldatzetik Udalak jasoko lukeen kopurua da, "kultur ekipamenduetan" erabiltzeko. Patronatuak ez du, ordea, hitzarmen berria oraindik egin; hitzarmena gauzatzean, osoko bilkurara eramango dutela iragarri zuen alkateak.

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA

Agurne Barruso | EH Bilduko zinegotzia



"Denbora gehiegi dedikatu barik landutako aurrekontuak direla dirudi"

"Alde batetik, esan beharra dago aurrekontuak lantzeko orduan Udal Gobernuak ez duela inolako boron-daterik izan oposizioarekin ezer adosteko. Beraien botoekin nahi-koa daukatela aprobetxatuta, *rodi-lloa* pasa dute".

Diru-sarrerak

"Bestetik, Udal Gobernuak jasotzen dituen diru-sarrerak ez daude ber-matuta (teknikarien hitzak dira hauek), eta horrek esan nahi du aurrekontuetan jasotzen diren zen-bait proiektu, agian, ezingo direla egin. Beraz, aurrekontuak ez dira fidagarriak.

Azkenik, esan kezka handia sortzen digula jakiteak Kulturara-ko 300.000 euro jasoko dituela Udalak Eusko Jaurlaritzatik eta ez dutela Kulturari gastatzea aurrei-kusten, eta Angiozarrerako dirua jasoko duela GHKtik, eta ez dagoe-

la aurreikusita Angiozarren gasta-tzea diru hori".

Partaidetza eta abar

"Herritarren partaidetzarako, gar-dentasunerako eta bizikidetzara-ko oso-oso diru gutxi jasotzen da aurrekontuetan. Nabaria da eremu hauetan ez dutela aurrerapauso nabarmenik egin nahi. Testimo-niala da Udal Gobernuarentzat bergararre hitza ematea.

Gazteak beraien etxetik irten ahal izateko diru-partida jartzeari ezezkoa eman diote, eta ez dute xentimo bat jarri nahi izan alokai-ru sozialeko etxebizitzak bultza-tzeko.

Ez dute zerbitzu sozialean edo ekonomian inolako proiektu berri-rik planteatu. Euskaran aurrekon-tua jaistea jasotzen du Udal Gober-nuaren proposamenak.

Auzoetarako ez dago ezer aurrei-kusita, nahiz eta Bergarak auzo asko eta berezituak dituen".

Aurrekontu "inprobisatuak"

"Hau da, aurrekontu hauek inpro-bisatuak dira guztiz, eta ez dituz-te jasotzen Bergararen errealitateak eskatzen dituen gastuak edo proiektuak. Gogo barik edo denbora gehie-gi dedikatu barik landutako aurre-kontuak direla dirudi.

Udal Gobernu honek diskurtso politak egiten ditu eta praktika eskasak garatu."

Aiert Lizarralde | Irabaziko zinegotzia



"Herriari ere barre egin diote guk egindako proposamenari barre eginaz"

"Irabazi Bergarak EAJk eta PSE-EEK erabilitako portaera agintzailea salatu nahi du. EAJk eta PSE-EEK bakarrik diseinatu dituzte aurrekontuak, eta beste herritar guztion parte-hartzea ezereztu dute. Baliabide gehienak azpiegitura erraldoietan eta euren politikarien soldatetan xahutuz, enplegua (759 langabe), alokairu soziala, berdintasuna, auzoekiko ekitatea edo ingurumena bezalakoak azken lekuan utzi dituzte. Gure proposamenei barre eginaz herriari ere barre egin diote. Dirua guztiona dela pentsatzen dugu, eta ez eura. Ez gaituzte ordezkatzek!".

Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak



GOIAZ! 2016

Lanbide Heziketaren Azoka

Marxoaren 15ean eta 16an;

Kulturaren, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza

Enplegu zerbitzuak

Ekintzaileentzat zerbitzuak

Tailerrak eta hitzaldiak

Aparatuak eta esperimenduak



goiazdebagoiena



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia



ikasmina

A lazne Gutierrez arrasatearrak Lanbide Heziketako goi-mailako ikasketak aukeratu zituen – Administrazio eta Finantzak –, lehenbizi, ez zeukalako garbi ikasiko zuen hori gustuko izango zuen edo ez. Egun, Enpresagintza fakultatean jarraitzen du, baina unibertsitateko ikasketak gauzatzen, lanarekin tartekatuz. Zer dauka Lanbide Heziketak azpimarraztekoa? Eta zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Batxilergoan nenbilela, ez nuen batere garbi zer ikasi nahi nuen, eta 4 urteko ikasketak hastea, garbi eduki gabe, arriskutsua iruditzen zitzaidan. Goiaz! Azokara etorri ginen, eskaintza ezagutu nuen, eta Administrazio eta Finantzak aukeratu nuen.

Zer eman dizu Lanbide Heziketak? Onena atzerrian egin nituen praktikak izan ziren. Erasmus bitartez, Birminghamera joan nintzen, 18 urterekin, eta oso esperientzia ona izan zen. Hain ona, unibertsitateko 4. maila eta praktikak atzerrian egiteko asmoa daukat! Zer lan egiten zenituen atzerriko praktika horietan?

Itzulpen enpresa bat zen, eta harrera eta administrari lanak egin nituen. Baina kultura eta herrialde askotako pertsonekin egon nintzen, 4 hilabete haietan, asko ireki zidan bizitzarako ikuspegia. Gomendatuko al zenioke ezagun bati Lanbide Heziketako praktikak atzerrian egitea? Zergatik?

Bai, zalan-tza barik! Unibertsitateko ikasleek Erasmus gehiago baliatzen dute, baina ezberdina da ikasle bezala joatea, edo enpresa batera, praktiketara joatea, Lanbide Heziketatik moduan. Momentuan lana lortu nahi izaten dutenek nahiago dute hemengo enpresetan praktikak egin. Baina nik argi neukan unibertsitatean jarraituko nuela.



"Batxilergoan nenbilela, Goiaz! Azokara etorri ginen, eskaintza ezagutu nuen, eta Administrazio eta Finantzak aukeratu nuen"

Arlo profesionalen, lanera begira, onurarik izan al du Lanbide Heziketako ikasketak egin izana. Lana bilatzea erraza izan al da?

LH bukatutakoan, bi urtetan, udan, Laboral Kutxan ibili naiz lanean, eta orain MUn nabil lanean, arratsalde, ikasten dudana bitartean. Beraz, esan daiteke baietz! Zuk biak probatu dituzu; Unibertsitate mailako ikasketen eta Lanbide Heziketako ikasketen arteko diferentzia zein da? Lanbide Heziketan, enpresan lanerako beharko duzuna ematen dizute, gauza konketu eta zehaztzen hezten zaituzte. Kontzentratuagoa eta praktikoagoa, proiektuetan aplikatuta. Unibertsitatean ikasgaiak lasaia ematen dira, poliki-poliki zoaz sakontzen, batxilergoko ikasgai batzuei jarraipena emanez bezala. Antzeko gauzak ere badaude, eta, horregatik, orain hainbat ikasgai baliozkotuta dauzkate.

Aurretik eta ondoren ere ospatu eta aldarrikatuko da herrian Martxoaren 8a

Hilabete osorako antolatutako egitarauaren barruan, ekintzaz beteta datorren aste hau izango da nagusia

JULEN IRIONDO | BERGARA

Martxanxeretatik –Udalarekin, Jardunekin eta Auzokorekin antolatutako egitaraua–, aipamen berezia egin nahi diete hilaren 7rako antolatutakoei: 18:30ean hasita, Bilgune Feministaren *Gure genealogia feministak* liburua aurkezteko hitzaldia egingo dute Irizar jauregian; horrez gain, baina, omenaldia egingo diete herriko ondorengo emakumeei: Lide Oregi, Mari Paz Alustiza, Mila Elortza, Anaje Narbaiza eta Arrate Bengoari (*in memoriam*).

"Lehenengo biak *Lan eta lan emakumea Bergaran* liburutik hautatu ditugu, pasa den mendeko lanaren ordezkari gisa", azaldu dute, gehituz "Martxanxeretik ekingo dute bidearen hasia" haiek landatu zutela. Elortza, Narbaiza eta Bengoari dagokienez, berriz, "bakoitzak bere arloan egindako lanari aitortza" egin nahi diete, "gizarteari ekarpen handia" egin eta egiten diotela uste dute eta: "Guztiak bide urratzaileak izan dira". Aukeratutakoak omendu ahal izango liratekeen guztien mostra bat baino ez direla argitu dute talde femi-

nistakoek, eta datozen urteetan omenaldiekin jarraituko dutela iragarri.

Bestalde, Martxoaren 8rako antolatutako kalejiraren ardatza –19:00etan plazan– aldarrikapena izango dela azaldu dute, hiru gairi ikusgarritasuna emateko, bereziki: "Indarkeria sexista; emakumeak lan munduan: egoera eta eskubideak; intersektionalitatea: sozialki zein kulturalki eraikitako zapalkuntzen aurrean (arrazismoa, sexismoa, klasea, orientazio sexuala), identitate desberdinei aitortza egin eta horiek onartzearen aldeko aldarria, zapalkuntza mota horiek ez baitira independenteak, elkarrreraginaren bitartez desberdintasun sozial sistematikoa eragiten dutenak baiziki".

Plazan amaituko da kalejira, eta bertan, bertsoak, musika eta aldarrikapenak uztartuko dituzte. Ostean, luntxa egingo dute Artatse elkartean.

Aurrez, baina, bihar –zapatua–, *Bertsolaritzaren sekretuak*. *IXilduriko emakumeen historia* ikuskizuna izango da Zabalotegin, 20:00etan. XIX. mendeko emaku-

me bertsolariei ahotsa eman nahi dien saioa da.

Bertsorekin lotuta, baita ere, hilaren 9an *Kapulana bat zintzilik* izeneko emanaldia eskainiko du Miren Amurizak, Irizarren, 19:00etan. Bertso, testu eta ipuin bidez deskribatuko ditu Amurizak Mozambikaren egindako egonaldiko bizipenak eta bertan ikusia, Eider Eibarren ilustrazioekin.

Martxanxerak taldekoek antolatutako ekintzetan parte hartzekei egin diete herritarrei, "gizarte parekideago eta justuagoaren bidean, denon parte-hartzea ezinbestekoa baita".

Alderdien adierazpen adostua

Asteleheneko osoko bilkuran alderdi guztiek konpromisoa hartu zuten berdintasun mahaia sortzeko, herriko "emakume eta talde feministekin batera", eta baita 2017 eta 2019 artean Berdintasunerako aurrekontua urte-urtera handiagoa edo berdina izateko. Zentzu honetan, Gobernuak 9.000 euro gehigarri bideratu zituen aurtengo –29.000 dira denera–, azken orduan.



MIRARI ALTUBE

Elorregiko hilerrirako bidea

2014an gertatutako lur-jausi baten ondorioz, egoera txarrean zegoen hainbat baserritarra ere badaraman bide publikoa. Lur-jausi hark eragindako kalteak konpontzeko eta halakoak prebenitzeko lanak egiten dihardute orain. 109.765 euroko aurrekontua dute lanek, eta hiru hilabeteen amaituta egotea aurreikusten da.



ENEO AZKARATE

Sahararren egoera gogoan

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutela 40 urte bete zirela–eta, ekitalditxoak egin zuten zapatuan: aureskua eta ikurrin dantza egin zituzten Moises Azpiazu taldeko dantzariak. Udaltzako alderdi guztiek adierazpen instituzionala onartu zuten, berriz, asteleheneko osoko bilkuran, gaiarekin lotuta.

Sinadura bilketari hasiera Oxirondon, alderdietako ordezkariak haritza landatuta

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | BERGARA

Herri-galdeketa egin ahal izateko, herritarren sostengurik ahalik eta zabalena bilatuko da atxikimendu sinadurak bilduz. Hasierako fase honetan, beraz, beharrezkoa izango da Debagoieneko eta Aramaioko 65.000 biztanleetatik %10ek, behintzat, sinadura ematea. Bergaran are erronka handiagoa jarri dugu, herritarren

%15en babesa lortu nahi dugu. Bihartik –zapatua– aurrera egongo da horretarako aukera: Oxirondoko merkatuaren ondoan haritza landatuko dute hainbat alderdi politikotako ordezkariak 11:30ean –*Jende zoriotsua herri libre batean* lelodun plaka ere jarriko dugu–, eta 12:00etan hasiko gara sinadurak batzen.

Beraz... zatozte zapatuan Oxirondoko azokara!



Bergarako taldea Debagoieneko galdeketaaren aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

Udaleku irekietan hiru edo lau aste aukeran, aurrerantzean

Lana eta haurren zaintza uztartzeko zailtasunak tarteko, familia batzuek egindako eskaeragatik hartu du erabakia Udalak, eta osoko bilkuran zehaztu dituzte lau asterako familientzako prezioak: 67 euro ume bategatik, 60 bigarrenagatik eta doan hortik aurrerakoak.

OHARRAK

HITZALDIA: HERENTZIAK

Miguel Altunan izango da, San Joxepe antolatuta, hilaren 10ean, 19:00etan. *Oinordetza euskal zuzenbide zibil berrian*; hizlaria: Juan Carlos Gonzalez.

ODOL EMATEA

Odola emateko hurrengo aukera izango da hilaren 9an, 18:00etan hasita, anbulatorioan.

NIRE USTEZ

ASIER
ELORTZA



Talentua

A tentzioa ematen didate talentu berezia erakusten duten pertsonek: Maradona, Mozart, Usain Bolt, Picasso, Shakespeare, Leonardo da Vinci, Clint Eastwood, Einstein, Groucho Marx, Pasteur, Elvis... mundua aldatu duten pertsonen zerrenda amaigabea da.

Hirugarren Munduari edo herri behartsuei buruzko notiziak entzuten ditudanean, galdere berdinak etortzen zaizkit burura: bertan jaiotzen diren artean, zenbat talentu berezi egongo dira? Ze aukera izango dute beraien talentua garatzeko? Goiko zerrendan agertzen diren moduko pertsonen fruitua galtzen ari gara?

Ziur nago Afrikako herri pobreenetako baten oraintxe jaiotzen ari den ume batek mundua ahozabalik lagatzeko moduko artelanak egiteko talentua duela... baina ze pena, sekula ez du aukerarik izango...

Seguru nago Afganistanen 12 urterekin ezkondu berri duten burkadun neskatila hori inoiz ikusi den abeslaririk onena izateko jaio dela... baina ze pena... Ziur nago Siriatic ihesi itsasoan itota hil diren mutiko eta neska haiek minbizia sendatzeko modua asmatuko zuketela... baina ze pena... Zenbat aprobetxatu gabeko talentu...

Beharbada, ikuspuntu hone-tatik ikusita (giza eskubideen ikuspuntutik ikusten ez dugunez), herrialde aberatsoi gogoia sortuko zaigu aukera gabe jaio diren pertsonei laguntzeko...nork daki...

"... baina ze pena, sekula ez du aukerarik izango"

'Plaza bete poz' haurrentzako erromeria berezia izango da domekan Zabalotegin

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Domeka honetan, martxoak 6, Lankuren eskutik *Plaza bete poz* ikuskizuna izango da Zabalotegi aretoan. Bereziki lau eta hamabi urte bitartean dituzten umeei zuzendutako erromeria giroko jaialdia da *Plaza bete poz*, eta "haur dezente batera mugitu dezakeen jarduera dinamiko eta parte hartzaile" bezala aurkezten dute antolatzaileek.

Sarrerak lau eurotan izango dira salgai Zabalotegi aretoko leihatilan.

Bertsozale Elkartek bertso-

laritzaren azpiegitura indartzeko sortutako kultur enpresa da Lan-ku, eta bere helburu nagusiene-tako bat da herri mugimenduaren antolakuntza errespetatuz ber-tsolaritza eta kultura jarduerak indartzea.

Jolasak eta dantzak

Erromeria horretan, jolas pau-satuekin hasi eta mugimendura pasatuko dira, dantzara.

Hala, txikiek ezagutzen dituz-ten kantu parte hartzaileekin hasiko dira; *Ran Roberra* beza-lakoak, esaterako. Ahotsarekin

eta inprobisazioarekin ere jolas-tuko dira: galde-rantzunak, erre-pikatzeak... Handiagoek ezagutu ditzateketen kantuak entzun eta abestuko dituzte ondoren (*make-tume, ping pong pilota...*), ondoren kantu horien koreografia lantze-ko.

Irudimen bidezko kontsignak eman eta dantzak bideratuko ditu gidariak (orain txoriak gara, orain hostoak, orain robotak...)

Bukatzeko, dantza librea egin-go dute, mota guztietako musikaz lagunduta: Pirritx eta Porrotx, Carlinhos Brown...

Partidu lehiatuak izan dira lau t'erdiko txapelketako lehenengo jardunaldian



Alberdi eta Zubizarreta. | M.T.

M.T. | BERGARA

Martitzenean izan ziren lau t'er-diko txapelketako lehen bi parti-duak Udal Pilotalekuan. Prome-setan, 18-22 irabazi zion Alberdik Zubizarretari. Lerenak zen joka-tzekoa, baina eskuan min zuen, eta Alberdik ordezkatu zuen.

Nagusietan, Santxok 18-22 irabazi zion Errandoneari. Kasu honetan ere, Urbietaren ordezkoa izan zen Santxo.

Euskal Ligan, Arrasateko fina-lurrekoan 22-5 galdu zuen Etxa-niz-Gartzia bikoteak, eta ez zuen finalerako sailkatzea lortu.

Hurrengo partiduak

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, bi partidu izango dira Udal Pilota-lekuan. Alebinetan, eskuz binaka, Pereira eta Etxaniz bergararre-k Tolosako bikotea izango dute aurrean. Horren ostean, gazte mailako paleta partidua izango da: Guridi eta Agi-rrezabal bergararrak Su Berriren aurka.

Martitzenean, berriz, martxoak 9, lau t'erdikoa itzuliko da. Gazte mailan Salaberria Riolen aurka arituko da eta seniorretan, Laso Ugalderekin kontra, 19:30ean. hasita.

Joseba Mansoren marrazkiak ikusgai gaurtik aurrera Aroztegi aretoan


M.T. | BERGARA

Joseba Manso eibartarraren *Marrazkiak sepia kolorean* erakusketa irekiko dute gaur Aroztegi aretoan, arratsaldeko sei-etatik aurrera, eta bertan izango da ikusgai hilaren 20ra arte.

Mansok 1989 eta 2006 urteen bitartean marraztutako lanak dira, Euskal Herrian, Errioxan zein Burgosen kokatutakoak.

"Eguneroko edertasuna"

"Har ditzagun marrazki hauek eguneroko edertasunaz goza-tzera garamatzan zerbait beza-la; izan ere, gertuan darabilgu beti edertasuna, baina gehie-gitan, izan eguneroko zeregi-nengatik, izan, besterik gabe, ohituragatik, ez dugu gozatzen". Hala aurkezten du Joseba Man-so marrazkilariak bere erakus-keta.



Logroñoeko eliza. | JOSEBA MANSO

Erraldoi taldearen ate irekiak domekan

M.T. | BERGARA

Bergarako erraldoi taldeak gonbidapena zabaldu die sei urtetik gorako herritar guz-tiei, haur zein nagusiei, dome-ka honetan, martxoak 6, egin-go dituzten ate irekietan par-te hartzeko.

Goizeko hamaiketatik aurrera Udal Pilotalekuan izango dira ikusgai taldearen erraldoiak, eta herritarrek haietaz gozatzeko aukera izan-go dute.



Erraldoiak pazkoetan. | I.SORIANO

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Arrano Zabalik-SVC	6-6
Poteo Izarrak-Errefuxa	6-4
Estrella Coja-River City	2-7
HIS-Komando Piperrak	3-9

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	33	13
2 Errefuxa	30	13
3 Komando Piperrak	27	13
4 River City	26	13
5 Poteo Izarrak	23	13
6 America	20	12
7 Birgerias	15	12
8 Arrano Zabalik	12	13
9 Vodka Juniors	10	12
10 Sanpe United	9	12
11 HIS	9	13
12 SVC	7	13

PARTIDUAK

Martxoak 4, egubakoitza
16:30 Sanpe U-K. Piperrak / Arrano Z.
17:30 Arrano Z.-Vodka J. / Sanpe U.

Martxoak 5, zapatua
18:15 SVC-River City / America
19:15 America-Birgerias / SVC

Lehiaketa martxan da: Pentekoste jaietako egitarauaren azala

Apirilaren 4an amaituko da lanak aurkezteko epea; uda-letxean aurkeztu behar dira. Lehiaketako irabazleak 400 euroko balioa duten bonuak eskuratuko ditu, herriko komertzioetan trukatzeko. Edonork har dezake parte.

OHARRAK

HILAREN 9AN: KAFEKONPON
16:30ean, San Joxepen.

TXORIMALO ERAKUSKETA
Eguaztena da Erramu Zapatu-ko txorimalo erakusketan izena emateko azken eguna, Jardunen: gaztejardun@topagunea.com.

EGUAZTENEKO AZOKA
Zumba erakusketa eta ikastaro irekia Candem Town akade-miarekin, 18:00etan. Pintxo-po-tea, Pol-Polen eskutik.

BERTSOAK, HILAREN 18AN
Andoni Egaña, Maialen Lujan-bio, Beñat Gaztelumendi, Oiha-na Bartra eta Eneritz Artetxe.

Sarrerak salgai, www.bergara.eus-en eta Zabalotegi aretoan.

KANTUJIRA, BIHAR
Aritzetaren 37. urteurreneko Kantujira bihar, 19:00etan, San Martin plazan hasita.

KOLDO ELEIZALDE
Martxoaren 17ra arte aurkeztu daitezke lanak Koldo Eleizalde literatura lehiaketan. Oinarriak eta informazioa: www.bergara-koeuskera.eus webgunean.

PENTEKOSTEAK: BILERA
Jaiak antolatzeko bigarren deial-dia, herritarrentzat: hilaren 10ean, 19:00etan, udaletxean.

Eskubaloiko talde nagusiak lehia bi izango ditu asteburu honetan

Jokalaria falta zela-eta 13. jardunalditik atzeratuta zeukaten parti-dua jokatu dute gaur BKEko eskubaloi taldeko mutilek, 20:30ean, Labegarietan, Legaz-piren aurka. Domekan, berriz, Pasai Donibaneren aurka izango dute norgehiagoka, hori ere etxean, 12:15ean hasita. Une hone-tan, sailkapenean liderrak dira pasaitarrak.

Soraluce BKEk Askatuak taldea bisitatuko du bihar

Pasa den jardunaldian Santo Tomas lizeoaren aurka etxean 59-55 irabazi ostean, Cafes Aito-na Askatuaken aurka jokatu-ko dute bihar Jon Beistegiren mutilek. Partidua 20:00etan izango da, Donostiako Altza auzoko kiroldegian. BKE den-boraldiko hirugarren garai-pena lortzen saiatuko da za-pigarren doazenen aurka.

Ehiza txiki txapelketa hilaren 12an, Ariznoa Oilagorrek antolatuta

Ariznoa Oilagorra ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta, ehiza txikiko txapelketa txakurrarekin egingo dute dato-rreren egubakoitzean, goizez, Txoriarteko *El Castillo* ehiza eremuan (Araba). Hilaren 9ra arte eman daiteke izena, 35 euro ordainduta, Belengua eta Iraho tabernetan (18:00ak arte). Federatuentzat.

Piraguismo hitzordua izango da zapatuan Labegarietan

Infantil eta alebin mailetako piraguistek hartuko dute par-te bihar, zapatua, Labegariaetan jokatu dute eskola arteko proban. 10:30ean hasi-ko da, eta Beti Bustiko sei gaztetxok hartuko dute parte. Klubak neska-mutikoak ani-matu nahi ditu bertaratzeraz, eta laguntzaileei eskerrak eman dizkie.

Isidro Monzonen erakusketara bisita gidatua egunean

Datorren egunean, martxoak 10, Isidro Monzonen erakus-ketako bisita gidatua izango da Laboratoriumen, 18:00etan. Gean Idiarte arkitektoak gida-tuko du bisita. Isidro Monzo-nen lana aztertzen aritu zen arkitekto taldeko kidea da Idiarte, eta Monzonen lana oso ondo ezagutzen du egin-dako azterketaren ondorioz.

Jasangarritasuna, osasuna eta mugikortasuna helburu

- Hezkuntza Mahaitik atera den proiektua da Oñatiko Eskola Bidea
- Herria oinezkoendako berreskuratzeko pauso bat da

AMAI TXINTXURRETA | OÑATI

Hezkuntza Mahaitik sortutako proiektua da Oñatiko Eskolako Bidea. Helburua da ikasleek eskolara egiten dituzten joan-etorriak modu "iraunkor, aktibo, autonomo eta seguruan egitea", Nerea Zubia zinegotziak adierazi duen moduan. Batzuk modu motorizatuan joaten dira eskolara, beste batzuk, berriz, modu ez motorizatuan; eta, hain justu ere, modu ez motorizatua sustatu nahi dute, autoen eta autobusen erabilera murrizteko. Hori oinarri hartuta, "herria oinezkoendako berreskuratzeko" gura dela gehitu du Zubiak.

Oñatin Lehen Hezkuntzako ikasleen erdia oinez joaten da eskolara, herena autoz, eta gaitortzeak patinetz, autobusez eta bizikletaz, hurrenez hurren. DBHn eta Batxilergoan oinezkoak gehiago dira; %71, hain justu ere, modu motorizatuan ia %12 joaten dira, eta falta diren beste gehienak bizikletaz. Eskola mugikortasunaren diagnostikotik atera-



Eguaztenean udaletxean egindako aurkezpenean. | A.T.

tako ondorioetako batzuk dira horiek. "Ikusi dugu Oñatin ikasleen jasangarritasuna eta autonomia maila altuak direla, eta hori hobesten da", adierazi du diagnostikotik atera-

Hezkuntza Mahaitik sortutako proiektua da Oñatiko Eskolako Bidea eta ikastetxeetako ordezkariak, guraso elkarteetakoak eta udalekoak parte hartzen dute. Denak egon ziren eguaztenean aurkezpenean.

Bagabiltz

Irakasleen izenean Maite Aiaituik hitz egin zuen, eta azaldu ikastetxeetan mugikortasun jasangarria landu dutela ikasleekin eta bertako puntu bat izan dela umeak eskolara oinez joan daitezen sustatzea. Gurasoen aldetik, berriz, Mirari Letek hartu zuen hitza eta adierazi zuen euren seme-alaben segurtasunak eta osasunak arduratzen dituztela eta autoekin izan dezaketen menpekotasuna gainditzea garrantzitsua dela.

Horretarako, eta jasangarritasuna, osasuna eta mugikortasuna kontuan hartuta, Bagabiltz leloa jarri diote proiektu honi. Logotipoa ere badu, eta bi kolore erabili dituzte: berdea, jasangarritasuna adierazteko; eta urdina, osasuna irudikatzeko. Eguaztenean aurkezpenean erakutsi zuten.

Argazkiak

Proiektu honen barruan, umeek eskolarako bidean ikusten dituzten gustuko eta ez hain gustuko egoerak argazkitan jaso gura izan dituzte; gaur, egubakoitza, da argazkiak entregatzeko azken eguna. Jasotakoekin erakusketa zabalduko dute hilaren 14tik 18ra kultura etxean, eta sariak ere egongo dira.

Umeek jasotako iritziekin, herri ereduaz hausnartu gura du Udalak. Proiektua ez da umeengana soilik zuzentzen, baina eurek espazio publikoa, bide-segurtasuna eta hirigintza nola bizi dituzten jakitea garrantzitsua dela iruditzen zaio.

Hamabi urtekoak ere joan daitezke udaleku irekietara

O.E. | OÑATI

Lau urte eta hamabi urte arteko ume eta gaztetxoak joan daitezke aurtengo udaleku irekietara. Horixe da berrikuntzetako bat; adin tartea LH-6ra arte luzatu dute.

Ekainaren 27tik uztailearen 22ra izango dira udaleku irekiak eta martxoaren 7tik 18ra egongo da zabalik izena emateko epea. Prezioa da 70 euro umea eta beste 50 euro zaintza zerbitzua gura izanez gero. Behin ordainketa eginda, banketxeko ziurtagiria eta izen-emate orria beteta entregatu behar dira udaletxean (goizez)

edo Txaloka ludotekan (arratsalde). Bigarren berrikuntza da izena Internet bidez ere eman ahal izango dela, udal webgunearen bidez. Hezitzaileak kontratazio deialdia apirila aldera izango da.

Arte udalekuak

Bestalde, arte udalekuak ere egun beretan egingo dira, Bidebarrietako eskulanean gelan. LH-6 eta DBH-3 arteko gaztetxoek zuzenduta egongo dira eta plazak mugatuak izango dira. Maiztza bukaeran zabalduko dute izena emateko epea eta gaztelekuan egingo da.

Landareak, zuhaitzak eta fruta-arbolak izango dira biharko azoka berezian

O.E. | OÑATI

Zuhaitz azoka egingo da bihar, zapatua, goizean, Natur Eskolak XX. aldiz antolatutako ingurumen jardunaldien barruan. 09:00etatik 14:00etara egingo da, Foruen plazan. Guztira, zazpi mintegitako salmenta postuak egongo dira.

Bestalde, aurtengo jardunaldietan ere bi zuhaitz landa-

keta egingo dituzte. Lehena joan den domekan egin zuten, Bidebarrietan. 60 zuhaixka landatu zituzten, haginak eta urkiak. Beste landaketa Aloñako Lagunak taldeak deituta egingo da. Martxoaren 20an izango da eta izena emateko bideak dira Fernando Maiztegiaren denda edo helbide hau: aloina lagunak@gmail.com.



Kale zaharrean egon da bulegoa. | O.E.

Udaletxean aldatu behar dira hondakinen ontziak aurrerantzean

O.E. | OÑATI

Hiru urte pasatxo egin ditu zabalik Oñatiko Kale Zaharreko bulegoak. Herenegun itxi zuten. Astelehenetik aurrera udaletxean eskatu ahal izango ditu herritarrek ontziak, txartelak eta olio poteak, arratsaldez. Gainerako intzidentzietarako, Mankomunitatera deitu beharko du.

Duela urtebetetik hona bulegoa birritan zabaltzen zen astean, eta zerbitzu horren maiztasuna handitu gura du Oñatiko Udalak. Hala, martxoaren 7tik aurrera, egunero izango dute herritarrek aukera kuboak aldatzeko, olio pote berria eskatzeko edo hondakinen gaineke edozein informazioa

eskatzeko. Udaletxeko harreraren egin ahal izango dute hori, 15:00etatik 20:00etara. Gainerako intzidentzien berri emateko, Mankomunitatearekin jarri beharko dute harremanetan bide hauek erabiltzaileak: 943 50 47 21 telefonora deituta edo atezate@debagoiena.com eta hondakinak@debagoiena.eus helbideetara mezua bidalita. Konposta egiteko poltsek ohiko dendetan jarraituko dute salgai.

Kartela

Martxoan zehar kartel bat egongo da bulegoko erakusleihoan, hondakinen inguruko informazioa aurrerantzean udaletxean eman gura dutela gogorarazteko.



Kiroldegiko aparkalekua. | O.E.

Astelehenetik TAO sistema egongo da lurpekoetan

O.E. | OÑATI

Astelehenetik aurrera TAO sistema egongo da kiroldegiko eta Kalegoieneko lur azpiko aparkalekuetan. Sarrera-irteeran ez da barrerarik egongo eta propio jarriko diren makinak erabili beharko dira txartela hartzeko.

Batean zein bestean, lehen bi orduak doan izango dira eta hirugarrenetik aurrera 0,02 euro izango da minutu bakoitzaren prezioa, 1,20 euro ordua. Hala ere, makinan jarrita egongo da ordu bat, bi, bi eta erdi edo hiru ordu apartzeak ze kostu duen, erabiltzaileei kalkulatuak errazteko. Gertec enpresak zainduko ditu makinak.

Bonuak

Egun bakoitzaren gehiegizko prezioa hamabost euro izango da. Bestalde, badaude bonuak ere. Hamabost euroko txartelak bost ordu doan aparkatzea ahalbidetzen du. Udaletxean eros daitezke.

'Abian' prozesuko lehen bilera bihar da

O.E. | OÑATI

Ezker abertzaleak hasi duen Abian prozesua Oñatin ere eztabaidatuko dute. Hiru fase-tan egingo dute eta lehen saioa bihar, zapatua, da, 10:00etan, gaztelekuan. Ordu pare bat iraungo du.

Zutik EHtik gaur egun arteko balantzea eta testuingurua da biharko gaia. Txostenean defendatzen den tesi nagusia bozkatuko dute ostean. Txostena lortu gura duenak helbide honetara mezua bidalita eska dezake: sortuonati@gmail.com.

Bigarren saioa martxoaren 12tik 19ra egingo da eta proiektu politikoa eztabaidatuko dute, besteak beste. Azkena apirilaren 16an da; emendakinak bozkatu ostean behin betiko txostena aurkeztuko dute.

Emakumeen eskubideen aldeko oihu gehiago

Patinetan, bizikletan, oinez zein korrika har daiteke parte gaurko Sortzintxikan

EMAKUMEEN EGUNERAKO ANTOLATUTAKO EGITARAUA		
MARTXOAK 4	20:00 'Grandma' filma, zineklubean.	feministas por el derecho a decidir'. Jarraian, mahai ingurua.
18:00 Sortzintxika, Foruen plazan (Atzeko kalea, Kale Barria, plaza, Kale Zaharra, Lizaur kalea, Aita Madina, unibertsitatea, plaza.	MARTXOAK 12	'Mugimendu feminista Euskal Herrian eta munduan emakumeon giza eskubideak aldarrikatzen: erabakitze eskubidea'. Hizlariak: Rebeka Maestro, Anabel Sanz eta Joana Etxano.
MARTXOAK 8	10:00 Emakume artisauen azoka, Foruen plazan.	MARTXOAK 18
18:30 Elkarretaratzea, Foruen plazan.	15:00 Emakume bazkaria, gaztetxean.	19:00 'Zer duzu Amy?' antzezlan, kultura etxean.
MARTXOAK 10	MARTXOAK 16	
18:00 Familiendako ipuin kontaketa haur liburutegian. 'Berdin eta desberdin mila ipuin'.	18:30 Irakurle talde irekia helduentzat. 'Alice Munro: idazle ikustezina'. Udal liburutegian.	
	19:00 Dokumentala Euskaldun Berria gelan. 'Dantzan: logros	

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Emakumeon eskubideen aldeko martxa herrikoia egingo da gaur, 18:00etan. Foruen plazan hasiko da eta herriguneko kaleak zeharkatuko ditu. Baina Sortzintxikaz gain, emakumeen eskubideak eta emakumeekiko errespetua eskatzeko ekitaldi gehiago antolatuta dira martxorako. Egitaraua zabala da. Herriko eragile ezberdinen artean antolatu da, gainera. "Eta hori da ona, guztion artean lortu behar ditugu-eta emakumearen eskubideak", Andraitz elkarteke Maria Pilar Urteagak dioenez.

Beste behin, herriko talde feministek ez ezik, zineklubak, liburutegiak, gaztetxeak eta Udalak berak antolatutako ekintzak osatzen dute berdintasun sailak kaleratu duen egitaraua. Horien artean aipatzekoak dira, adibidez, gaurko lasterketa herrikoia eta hilaren 12an egingo den emakumeen artisau azoka; 16 emakumek eman dute izena dagoeneko. Gaia- ren inguruan hausnartzeko mahai ingurua egingo da, eta baita familiendako ipuin kontaketa ere. Egunean bertan, Martxoak 8, aldarrikapen elkarretaratzea egingo da Foruen plazan, 18:30ean.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN



Saria

Datorren astean Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu, eta, hau dela eta, hainbat ekitaldi antolatuko dira genero berdintasunaren inguruan. Aldarrikapen hauek beharrezkoak direla uste dut, gure gizartean oraindik sexismoa erroturik baitago arlo askotan.

Sexismoa edonon aurkitzen dugu. Publizitatean, esate baterako, ohikoa da (telebistako iragarki batzuk ikusi besterik ez dago), eta soldatetan oraindik nabaria da aldea (emakumezkoek gizonezkoek baino %36 gutxiago kobratzen dute lan berbera egiteagatik). Hori horrela izanik ere, gizonezkoen zenbait kirol jardunalditan mantentzen diren adierazpen sexisten inguruan hitz egin nahi dut.

Txirrindularitzan gertatzen dena, adibidez, betidanik harritu nau. Bestela, nola ulertu daiteke XXI. mendean bi azafata, dotore, gazte eta ezin ederrago, txirrindularien proba baten ostean podiumean agertzea? Zein da beraien papera, estetikoa? Emakume hauek, irribarrerik politena erakusten duten bitartean, irabazleari lore sorta bat eta musu pare bat ematen dizkiote. Zentzurik ote du?

Ez ditut azafatak zalantzan jarri nahi; gizonezkoen proba batzuetan azafatei esleitzen zaien papera, ordea, zeharo kritikagarria da. Tamalez, beti pentsatu izan dut irabazlearen saria ere horretan datzala, eta hori da kezka garriena.

"Txirrindularitzan gertatzen denak, adibidez, harritzen nau"

OHARRAK

BRAHMS-EN KONTZERTUA
Brahms-en *Requiem*a entzuteko sarrerak Txokolateixian eta www.ganbara.sacatuena-trada.es atarian daude salgai 10 eurotan.

PARKOUR SAIOA
Parkour saio didaktikoa egingo du Iñaki Lasagabasterrek domekan gaztelekuko topalekuan, 17:00etan.

Konfiantza hartuko dute ardatz Txantxiku ikastolan



Urzelai, Arana eta Ibarzabal, Santa Anan egindako aurkezpenean. | O.E.

O.E. | OÑATI
Konfiantzaren pedagogiaren hau-tua egin dute Txantxiku ikastolan, eta, ikasturte berrian, Ixutu proiektua izango dute 0 eta 6 urte arteko haurren geletan. Haurra izango da ardatza, eta berari konfiantza ematen eta emozioak pizten saiatuko dira hezitzaileak zein gurasoak, "alde biek elkarlanean gauzatu beharreko proiektua" baita, Zigor Ibartzabalen, Txantxiku ikastolako zuzendariaren, esanetan. Aldaketa pedagogiko honek aldaketa estrukturalak ere ekarriko ditu eta espazio berriak sortuko dira. "Espazio zabalak izango dira, jolas anitzekin, eta aske mugitzeko denbora eta aukera izango dute umeek", azaldu du Ibartzabalek. Martitzenean aurkeztu zuten proiektua gurasoen aurrean. Lanak auzolanean egingo dituzte, "guztionean artean erakitzeko konfiantzaren pedagogia".

Spinning eta zumba maratoiak martxoaren 12an

O.E. | OÑATI
Spinning eta zumba maratoiak egingo dituzte Zubikoa kiroldegian martxoaren 12an. Zumbako saioa bi ordukoa izango da, 10:00etatik 12:00etara, eta 120 lagunendako tokia egongo da. Spinningerako, berriz, 140 bizikleta jarriko dituzte eta 40 minutuko lau saio egingo dituzte; saio bakoitza begirale batek gidatuko du.

Baterako zein besterako izen-ematea martxoaren 9an bukatzen da. Kiroldegian bete daiteke inskripzioa, edo baita udaleko webgunean ere, www.oinati.eus atarian.



ELKAR HEZI

STARTinnovan sarituak

Elkar Heziko hiru talde STARTinnova lehiaketako lehen bost postuetan sailkatu dira. Betaurrekoak pertsonalizatzeko aukera ematen duen modua, boligrafoak pertsonalizatu eta tinta hodiak birkargatzeko aukera eta berotzeko zein hozteko balio duen mikrouhina dira aurkeztu dituzten proiektuak.

San Martingo baratzeetan hamalau ortu daude libre

San Martin auzoko baratze parkean aisialdirako hamalau ortu esleitzeko bidea jarri du martxan udalak. Deialdia zabalik dago eta interesa dutenek martxoaren 7a aurretik eman behar dute izena udal bulegoetan. Lursailen erabilera urtebeterako utziko du udalak eta urtez urte luzatu ahal izango da lagapena, gehienez, bost urteko mugarekin.

Haurrendako antzezlan egongo da domekan Santa Anan

Gaueko entziklopedia koxkorra antzezlan ekarriko du domekan 2 Princeses Barbudes konpainiak haurrendako. Familia osoarentzako musika-ikuskizuna da, pailazo, objektuen antzerki eta ikusizko poesia ukituekin. Santa Anan izango da, 17:00etan, eta sarrerak 3,50 balio du. Aurrez, <http://bibe.me> helbidean eros daitezke.

Miren Lacalleren 'Ultrachef' liburua berri bihar gaztetxean

Miren Lacallek idatzitako *Ultrachef* liburua aurkeztuko dute bihar, martxoak 5, 17:00etan, Antixena gaztetxean. Gaur egungo sukalde telebista programari egiten dio kritika eleberriak. Iruñean sortu zen Las Tampones taldeko abeslaria eta gitarra jotzailea da Miren Lacalle eta hau da bere lehen liburua. Patxi Irurtzunena da sarrera.

Aldarrikapena eta aitorpena eskutik

- ▶ Martxoaren 8aren bueltako ekitaldiak daude bihartik
- ▶ Lau Bankuko Plazan bi emakume omenduko dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAK

Berdintasuna lortzeko patriarkatuarekin bukatu behar dugu! leloarekin, aldarrikapena, aitorpena eta jai giroa batuko ditu Emakumeen Nazioarteko Egunak datozen egunotan. Udalak, feminista elkarteak eta herriko beste hainbat eragilek –ikastetxeak, besteak beste–, bat egin dute, eta egitarau dotorea gertatu, honako hau aldarrikatzeko: "Emakumeen ahalduntzea, gizonen inplikazioa

eta berdintasun politiken sustapena", eta gaineratu dute: "Gutako bakoitzaren jarrerak berrikustea ezinbestekoa da".

Bihar, zapatua, hasiko dituzte ekitaldiok. Herriko hainbat emakumeren lanak –ilustrazioak, argazkiak, pinturak, eskulanak, diseinuak...– jarriko dituzte ikusteko goizean Ixadebalde azoka inguruan (Mitarte kalean edo pilotalekuan). Eta hori girotuko dute trikitilariak eta bertsolariek.

Domekan, ostera, UDAk antolatutako III. frontenis txapelketako finala jokatu dute; hiru garren eta laugarren postuak erabakitzeko Lur Delgado eta Dorleta Elkorobarrutia, Idoia Elkororen eta Iratxe Bravoren aurka; eta finala izango da Lore Martinez Axpe eta Rosa Ojuel, Ainara Mugaren eta Amaia Ariznabarretaren aurka. 12:00etan hasiko da finala, eta, bukatutakoan, 13:00etan, kalejiran joango dira Lau Bankuko Plazara. Atxabaltako Feminista Elkartiak antolatuta, erratzak banatuko dizkiete han bi emakumeri, "berdintasuna lortzeko bidean egindako ekarpenaren aitortza" legez.

Martitzenean elkarretaratzea

Urtero egin ohi den elkarretaratzea martitzenean egingo dute, Martxoaren 8an. 19:00etan elkartuko dira Herriko Plazan, eta bertsolariek girotuko dute ekitaldia. Ondoren, 19:30ean, *Non gaude?* antzezlan izango da Arkupen (sarrera, 4 euro). Lakrikun taldea –Gurutze Eizmendi, Idoia Uranga eta Alaitz Olaizola– inkonformista eta iraultzaile etorriko da oraingoan ere, bazterrak astintzeko gertu.

Eguaztenean, hilak 9, ostera, mahai-ingurua izango da Arkupen. Lorea Agirre kazetariak eta Idurre Eskisabel kazetari eta EHUko irakasleak hausnartuko dute honako gai honen inguruan: *Izan zaitezke euskal-*



Lau Bankuko Plazan iaz egindako omenaldia. | MIREN ARREGI

tzalea, feminista izan gabe? Udalak, Loramendi elkarteak, Udal Euskaltegiak, Kurtzebarri eskolak, Arizmendi Ikastolak eta Huhezik antolatu dute elkarla-

nean, eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte haiekin batera hausnartzera, zalantzak argitzera eta kontu kontari jardutera.

Hegan egitteko erratzak

Martxoko eguzkiza peligrasua dala esaten da baiña peligrasuaguak dien eta askotan eguzki goxo itxuran mozarrotuta datozen jarrerak eta pertsonak badaz. Martxuak 8 hau be ustezko normaltasun jendarte baten kokaketan da. Dana ondo dauelako sentsaziñua oso zabaldua dau, baiña zoritxarrez, ondio badaz puntu baltzak, eta ez gabitz kale kantoi illunetaz bakarrik.

Ezin geike ahaztu egunero jasaten dittugula eraso sexistak emakumion ahalduntzian kontrako pentsakeria daukienen aldetik. Pertsona honeingaittik izeten gara iraindduak, zapalduak, gutxietsiak. Gaurko honetan, puntu baltza berbaz bortxatzen gaittuzten honeiri emun gure dutzagu.

Baiña guk inddartu eta txalotu gure douena parekidetasuna lortzeko bidien egitten dan ekarpena da; eta herrixen, eta baita baillaran be, badaz hegan egittia ondo merezitta daukien emakumiak, eta honeiri emun gure dutzegu puntu moraua.

Emakuma horreittako bi omenduko dittugu martxuen 6xen, domekan. Omenaldi xume hortan, euren eguneroko lana aitortu eta eskertzeko, hegan egitteko erratzak banatuko dittugu.

Animau egun honen bueltan antolatuta dazen ekintzetan parte hartzen. Urten gaittezen danok kaliak morez pinttetan.

Baiña ez ahaztu! Jarraitu daigun martxan eta eguneroko borrokan!

Atxabaltako Feministak Elkartia

EGITARAUA

MARTXOAK 5

11:00 Emakume sortzaileen lanen erakusketa, pilotalekuan, bertsolariekin eta trikitilariak.

MARTXOAK 6

12:00 Emakumeen III. frontenis txapelketaren finala, pilotalekuan.

13:00 Lau Bankuko Plazara kalejira eta omenaldi ekitaldia.

MARTXOAK 8

19:00 Elkarretaratzea, plazan.

19:30 Antzerkia: *Non gaude?* Lakrikun taldearekin, Arkupen.

MARTXOAK 9

18:30 Mahai-ingurua: *Izan zaitezke euskaltzalea, feminista*

izan gabe? Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelekin, Arkupen.

MARTXOAK 12

18:30 Fun Dantz ikuskizuna, kiroldegian.

MARTXOAK 13

11:00 Areskoren I. Emakume Martxa Aretxabaletatik Eskoriatzara.

APIRILAK 23

10:30 Tailerra: Adimen emozionala, autoestimua eta emakumeon ahalduntzea. Gidaria Clara Wolfram. Izen-emate epea hilaren 31 arte (debalde): 943-71 18 62 edo berdintasuna@aretxabaleta.eus

Kalitatea bermatuta, prezioa behera Ixadebalden

Aretxarteko hamabost merkatarik baino gehiago elkartuko dira bihar, zapatua, Mitarte kalean



Udako jeneroa saltzeko egindako azokan herritarrak, iaz irailean. | M.A.

M.A. | ARETXABALETAK

Neguari bukaera eta, era berean, udaberriari ongietorria emateko, Ixadebalde merkealdien azoka egingo dute, beste behin, Aretxarteko merkatariek. Postuak Mitarte kalean jartzeko asmoa dute, baina, eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan elkartuko dira, 10:00etatik 20:00etara.

Hamabost merkatarik

"Prezioak beheraino jaitsiko ditugu oraingoan ere, eta, zelan ez, kalitatezko jeneroa eskainita, betiko legez", iragarri du Idoia Elexpuruk, Aretxarte merkatarien elkarteko presidenteak, eta gaineratu du: "Ikusi; ikusitakoak probatu; eta dastatu ere egin ahal izango da egun guztia iraungo duen azokan". Arratsalde partean, gainera, umeendako tailerrak egingo dituzte, gurasoak lasai ibil

daitezen azokan; 16:30etik 19:30era bitartean izango da hori.

Hamabost merkatarik baino gehiago elkartuko dira han. Hona hemen horiek: Amaia ume denda; Asensio; Atai; Begira; Belar Meta; Brasileña; Gertu; Hankabeltz; Haurrak; Kilima; Mari Merke; M-5; Tinta Beltza; Titare; eta Zubia oinetakoak. Jatekoa eta edatekoa eskainiko dute, hain zuzen, Hankabeltzek, Gertuk eta Brasileñak. Horiekin batera, Txakoli tabernak ere jarriko du postua, eta horrek ere jatekoa eta edatekoa eskainiko ditu. Kurtzebarri eskolako ikasleek, berriz, ikasketa bidaia-rako dirua eskuratzeko postua jarriko dute.

100 euroko txartelen zozketa

Ixadebaldetik pasatutako bezeroen artean zozketa egingo dute azoka itxi aurretik. 100 euroko hiru

txartel zozketatuko dituzte, Aretxarteko dendetan gastatzeko. "Ez dago esan beharrik herritar guztiak daudela gonbidatuta; ez dira damutuko!".

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

Erain Debagoiena aurkeztu eta sinadurak jasotzen hasiko dira

Bihar, zapatua, egingo dute ekitaldia Arkupe kultura etxean, 11:00etan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletan ere jarriko dute abian Erain Debagoiena ekimena. Joan den zapatuan, Arrasaten egindako ekitaldian, hainbat esparrutako aretxabaletarrek

eman zioten babesa, eta orain, herritar guztiei aurkeztu gura diete hori. Arkupen da ekitaldia, bihar, zapatua, 11:00etan.

Han azalduko dituzte zer den Erain Debagoiena; nondik dato-

rrren, nora joan gura duen eta zein den helburua. Arrasaten aurkeztutako legez, helburua ekainaren 12an jarri dute, orduan egingo den herri galdeketa, hain zuzen ere. Eta hara bidean eman beharreko pausoak aurkeztuko dituzte biharko ekitaldian.

Sinadurak jaso

Galdeketa posible izan dadin, sinadurak jaso behar dira lehenengo; Debagoieneko 65.000 biztanleren %10 baino gehiagoren sinadura lortu beharra dago. Eta zapatuan bertan hasiko dira horiek jasotzen Aretxabaletan eta beste hainbat herritan.

Erain Debagoienako kideek herritar guztiak gonbidatu gura dituzte biharko aurkezpenera, ekimena ezagut dezaten, batetik, eta galdeketarako bidean harekin bat egin dezaten, bestetik.



Ekimenari babesa emandako aretxabaletarrak zapatuan Kulturaten . | J. DOMINGO

Liztor beltzaren gaineko kontuak ezagutzeko erakusketa dago Arkupen

Josu Agirianok jarri du eta hilabete osoan egongo da zabalik

M.A. | ARETXABALETA

Erle kontuak ditu gustuko Eskoriatzako Mendiola auzoko Josu Agirianok, eta azken urteotan asko ugartitu den liztor beltzaren gaineko argibideak ematen dituen erakusketa jarri du Arkupen.

Martxoan esnatu

"Zer den liztor beltza edo *avispa velutina* erakutsi gura izan dut, zelakoa den haren bizimodua, eta, horretarako, habia bat ekarri dut; iazko udaberriatik udazkenera bitartean zintzilik egon den habia", jakinarazi du.

Negu partea lotan pasatu dute liztorrek, eta martxoan hasiko dira esnatzen: "Habia txikiak egingo dituzte orain, eta han jaioko dira lehenengo erreginak. Hain zuzen, erreginak harrapatzea da garrantzitsua, horiek gero habia propioak egin-



Josu Agiriano, liztor beltzaren gaineko argibideen aurrean. | M.A.

go dituzte eta". Hala, zelako tranpak egin eta non jarri ere argitzen du Arkupen jarritako erakusketak. Baita bertako liztorraren eta liztor beltzaren

artean bereizten ere. Izan ere, "nahasmen handia" dagoela bi horien artean uste du Agirianok, eta "garrantzitsua" dela herriarrek horiek bereizten jakitea.

NIRE USTEZ

RESU
ABASOLO



Konplize ditut eta...

Martxoaren 8a. Ez gauden ospakizun honen kontra. Martxoaren 8a emakume langileen lan baldintzak ezagutarazteko sortu zen Chicagon 1908an, lantegi batean, 146 emakume sutan erre zituztelako. Gaur egun, emakumeen aurkako jarrera baztertzaila desagerraraztea lortu ez duen nazioarteko eguna da eta berdintasuna errebindikatzeko erabiltzen dugu. Adibideak esparru askotan ditugu: politikan, erlijioetan, heziketan eta baita lanean ere.

Urtez urte egun honetan, egia esateko, errebindikazio berdinak egiten ditugu eta munduaren erantzuna ere berdina topatzen dugu. Akaso, gu geuk, emakumeok, elikatu egiten dugu geure bazterketa? Akaso, neurri baten konplizeak gara egoera hau *etien sekula sekulorum* mantentzeko?

Zer-nolako jarrera eta baloretan oinarritzen da gure eguneroko jarduna? Eta gure ingurukoena? Etxekoena? Lanekoena? Lagunena?...

Emakumeari, barneratu arte atxikitu zaizkion baloreak hauek izan dira: sumisia, itsu-itsuan obeditu beharra, bigarren lerroan egotea esparru guztietan, gure mundua mundu domestikoa dela soil-soilik pentsatzea eta ez daukagula ezer egiterik mundu publikoan. Dudarik gabe, ordua da jarrera eta portaera horiek alde batera utzi, zulo sakon batean betiko sartu eta orain arte izan ez dugun erantzukizuna eta bizitzaren jabetasuna gureganatzeko eta aurrerantz "lepoan hartu eta segi aurrera" egia bilakatzeko.

Jauzi hau emateko nondik indarberrituko gara emakumeok? Filosofiatik? Erlijiotik? Familiatik? Justiziatik? Edo beste emakumeengandik?...

Duda barik, beste emakumeekin indarrak batuz, elkartasunean, solidaritatean eta maitasunean oinarritutako giza taldea osatu eta sortu bedi gugandik gurekiko maitasuna, autoestimua, errespetua eta balorazio positiboa. Uxue Alberdik dioen moduan: "Konplize ditut eta maite ditut denak".

Bakarrizketa saio umoretsua dago gaur Arkupen

Jaime Caravaca aktore eta umoregile ezagunak eta eskarmentu handia duen Bocabeats taldeak barrea eragitea helburu duen bakarrizketa saioa eskainiko dute gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arkupeko Zeraia aretoan (sarrera da lau euro).

Puzgarriak egongo dira umeendako igerilekuan, bihar

Ibarra kiroldegiko igerilekuan puzgarriak jarriko dituzte bihar, zapatua, 16:30etik 19:15era bitartean, umeek eta gaztetxoek jolas egin dezaten.

Kiroldegiko abonatuak debalde joan ahal izango dira, eta gainerakoek 5,02 euro ordaindu beharko dute.

Edu Portilla adituak aitatasunaren gainean jardungo du

Haurtzaroaren gaineko trebakuntza zikloaren barruan, Edu Portilla adituak aitatasunaren gaineko argibideak emango ditu datorren eguaztenean, martxoak 9, Ibarra kiroldegian. Hitzaldia gazte-leraz egingo du 15:00etan eta euskaraz 18:00etan.

Batzar orokorra egingo du Basotxok martxoaren 11n

Basotxo erretiratuen elkarte-ko zuzendaritza batzordeak batzar nagusia deitu du hilaren 11rako, egubakoitza. Egoitzan egingo dute; lehen deialdia da 16:00etan eta bigarrena 17:00etan. Iazko kontuak onartu eta aurtengoak aurkeztuko dituzte, besteak beste.

ARGAZKI DESBERDINAK.....

943 53 49 45

Begira
argazkilaritza

ILARGI PLAZA 1
ARETXABALETA

Herri "hobea" egin gura duten aurrekontuak

- EH Bilduren botoei esker 2.675.343,65 euroko aurrekontua onartu dute 2016rako
- Hirigintzako Plan Orokorra elkarlanean egitea adostu dute EH Bildu eta EAJ alderdiek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

2.675.343 euro pasatzeko aurrekontua onartu zuten martitzeneko osoko bilkuran. "Bizitzeko herri hobea egitea da helburua; baita etortzen direnendako herri hobea izatea ere", azaldu zuen Beñardo Kortabarría alkatea. "2015-2019ko plangintza egin dugu; aurrekontu errealistak, parte-hartzaileak, elkarreei gauzak erraztu egingo dietenak, berritzaileak, elkartasunezkoak, hezitzaileak eta gardenak dira".

Azpimarratu behar da EAJ-rekin elkarlanean Antzuolako Plan Orokorra landuko dutela; eta 2025erako nolako Antzuola gura den hausnartuko dutela.

Inbertsio nagusiak

Ia 250.000 euro bideratuko dira inbertsioak egiteko. Diru partida handiena ur-parkeak eroango du: 133.000 euro. Antzuolako base-rrietako ur sarea berritzen segituko du Udalak (40.000 euro). "Ur tratatua eraman gura dugu base-rri guztietara. Aurten, beste fase bati helduko diogu, eta ea Txangala auzoraino iristen garen", azaldu du alkatea. Lur azpiko argiteria sarea ere hondatuta dago eta aurten Ondarren hasiko dira berritze lanak egiten: "Hondatuena dagoen auzotik hasiko gara argiteria sarea konpontzen (7.400 euro). Aurten, Ondarretik. Gero, Antiguan eta Kalebarrenean egingo ditugu konpontze lanak".

Torresorua atzealdean bolatokia eta toka jokorako gunea jarriko da herritarrendako (3.000 euro). Eta Beheko auzoko hezetan arazoak ere konponduko dira, besteak beste (12.000).

Lehen sektorea indartzeko

HAZiRekin, Landa Garapeneko elkartarekin, eta Diputazioarekin, Antzuolan proiektu pilotu bat martxan jarriko dute lehen sektorea indartzeko. "Herriko baserriaren errealtatea nolako den jakiteko, lehenik, argazki zehatz bat egingo dugu. Ezagutzaren ondotik ikusiko da nola jokatu sektoreari bultzada bat

2015EKO ETA 2016KO AURREKONTUAK		
	2015	2016
Ongizatea	500.123 €	534.062 €
Hirigintza-zerbitzuak	481.238 €	473.062 €
Nekazaritza-Ingurumena	88.441 €	90.286 €
Kultura	116.671 €	104.500 €
Euskara	55.300 €	56.35 €
Gazteria	34.127 €	165.175 €
Hezkuntza	65.186 €	64.400 €
Kirola	74.878 €	90.225 €

emateko. Diagnostikoa egitearekin batera, ekimen txikiak bultzatuko ditugu. Adibidez, eguneko menua ematen duten herriko enpresetara jo genezake eta erabiltzen dituzten produktuak bertakoak izateko erabakia hartzen saiatu gaitezke. Debagoienean industria da nagusi eta nekazaritza mundua ia anekdotikoa da. Hori da errealtatea. Hala ere, uste dugu zerbait aldatzea bada goela, pauso txikiak emanda eta baserriari begira gehiago jarrita".

Aiherra eta Antzuola

Aiherra-Antzuola senidetzaaren etorkizunari begira jarri nahi du Udalak. "Senidetzea osasuntsu dago, baina herri bietako gazteen artean ez dago harreman handirik; eta horrek kezkatu egiten gaitu. Egoera ikusita, iruditu zitzaigun gaztetxoaren arteko harremanak landuz gero, harremana asko hobetzeko aukera geneukala. Hortaz, pentsatu dugu Aiherrako umeak Antzuolako udalekuek ekartzea. Astebete hemengo gaztetxoekin igarotzeko eta Antzuolako etxeetan ostatu hartzeko. Aiherran asko gustatu zaie ideia. Orain, lantzea tokatzen zaigu ea zenbat antzuolar dagoen Aiherrako umeren bat etxean hartzeko prest, eta ea zenbat aihertar dagoen prest udalekuek etortzeko. Guri ilusio berezia egiten digu proiektu honek".

Kreditu globala

Antzuolako Udalak 2016rako 18.300 euroko kreditu globala dauka aurreikusita gabeko gaiei aurre egin ahal izateko. "18.000 euro helburu zehatzik gabe utzi ditugu; nahita, bidean ustekaberen bat sortu edo zerbait berria abiatzen badugu nolabaiteko finantzazioa ziurtatua edukitzeko. Kreditu globala deitzen diogu horri", argitu du alkatea.

Herriarrek eskatuta, ur-parkea

Herriko gazteen eta helduen aisialdiak egun duen hutsuneetako bati irtenbidea eman guran, ur-parkea egingo du aurten Udal Gobernuak. Horretarako 133.000 euroko diru partida onartu dute.

Sagasti auzoan jarriko dute ur-parkea, bizikletak garbitzeko gunearen ondoan. "Horrelako instalazio bat urtetan eskatu du herriak. Gainera, bestelako arrisku eta gauza batzuk ere saihestuko ditugu: gazteak presan bainatzea edo plastikozko igerilekuak nonahi jartzea".

BEÑARDO KORTABARRIA | ANTZUOLAKO ALKATEA

"Jendearendako eta jendearekin gauzak egitea gure izaeraren parte da"

Beñardo Kortabarría Antzuolako alkatearendako lehen aurrekontuak dira, eta herritarrekin egin gura izan dituela azaldu du.

Herritarrekin egindako aurrekontuak direla diozue.

Gure izaeraren, filosofiararen eta estiloaren parte da gauzak jendearendako eta jendearekin egitea. Eta horren ondorio izan da auzoz auzo egin dugun erronda. Ahalegin handia izan da, baina merezi izan du. Bileretan 134 pertsonak hartu dute parte, herritarren %8k. Hori izan da aurrekontuen oinarrietako bat; bestea, hauteskundeetara ekarri genuen programa. Eta hori egiteko, lan saioetan 60 pertsonak baino gehiagok hartu du parte. 200 ekarpenetik gora jaso ditugu, era guztietakoak.

Lau urterako plangintza egin duzuela diozue.

Geneuzkan ideiak, programan aurkeztu genituen asmoak eta herritarrekin izandako harremanetan jasotako hainbat proposamen, ez guztiak, datozen lau urteetan kokatu ditugu. Hortaz, badugu ibilbide bat datozen urteotarako. Ibilbide ireki bat da, uneoro irekita dagoen dokumentu bat delako. EAJrekin izan genuen azken batzarrean, adibidez, onartu genuen Hirigintzako Plan Orokorra egin beharra zegoela, eta hori ere txertatuko dugu plangintzan.

EAJk dio ez duzuela batzordeetan eurekin landu, "eginda" eroan duzuela proposamena.

Bueno, oposizioa egin beharra dago, ezta? Aurrekontuak egitea Gobernu Taldeari dagokio. Bere garaian Gobernu Taldean sartzea eskaini genion EAJri, nahiz eta gehiengo osoa izan, denon artean eraikitzea nahiago dugulako. Ezetz esan ziguten, herriak gobernatzeko agindua guri eman zigula eta. Horrela egin eta aurkeztu genuen zirriborroa, duela hilabete pasatxo. Joan den astean egin genuen bilera EAJrekin aurrekontuaren inguruan, eta hortik atera zen, adibidez,



GOIENA

Hirigintzako Plan Orokorra egiteko konpromisoa datozen lau urteetan; baita ere 2025. urteari begira jarri eta orduko Antzuola nolako izatea nahi dugun denon artean erabakitze konpromisoa.

Langabeziari nola egingo dio Udalak aurre?

Antzuolan, %8koa da langabezia. Hala ere, arduratzen gaitu pertsona bakar bat langabe egoteak. Langabe horiek ezagutu egin behar ditugu, zein eta zelakoak diren, zein aukera dituzten... ea langabe-multzoa ezagututa zerbait egin genezakeen laguntzeko.

Zirkulazio araudia egingo duzue. Aguazilak isunak jarriko ditu?

Aguazilaren zeregin nagusietako bat trafikoa zaintzea da, ziurtatzea jendeak ez dituela abiadura mugak gainditzen, debekatutako norabidean ez duela gidatzen, behar bezala aparkatzen duela... kontua da Antzuolan ez daukagula zirkulazio araudirik. Hau da, ez aparkatzeko seinaleak jartzen ditugu, baina inon ez dago idatzita gaizki aparkatzeko zigorra izango duenik. Hortaz, zirkulazio araudia egin eta onartu beharko dugu. Zergatik? Arauak denon elkarbizitza hobetzeko jartzen dira, denok modu jakin batean jokatzeko.

Zein da Udalaren zorra?

Une honetan 1.561.000 eurokoa da. Aurrez ezarrita dagoen moduan, urtez urteko kuotaren bidez ordaintzen joango gara. Aurten 190.000 euroko amortizazioa egingo dugu.



Sagasti auzoko parkean jarriko da ur-parkea. | MAIDER ARREGI

Basilio Ormazabal
EAJko
bozeramailea



"Inprobisazioa da nabari Udal Gobernuak onartu duen 2016ko aurrekontuan"

"Arau fiskalak onartu zirenean, gure taldeak ezezkoa eman zuen, gehienbat, hondakinen tasetan aurreikusten genuen desfaseagatik. Gaur, aurrekontuetan islatzen da desfase hori, 60.000 euroko desfasea, alegia. Kultura sailak—jaiak barne— urte osorako duen aurrekontua baino gehiago da hori". Bestalde, pentsatzen dugu inprobisazioa dela nabari; eta hori ikusten da, esaterako,

Udal Gobernuak aurreikusten duen obra nagusian: ur-parkean. 133.000 euroko kostua dauka eta inongo kanpoko laguntzarik gabe, gainera. Esperimentu gisa egingo dute. Funtzionatzen badu, ondo, eta kale egiten badu, orduan zer?

Euzko Alderdi Jeltzaleak gobernuan dagoen taldeari komunean lan egiteko prestasuna azaldu dio. Eta 2016ko aurrekontuen Memoria Txostenean jasota dago hori. Elkarrekin eta herriaren partaidetzarekin, noski. Hala, elkarrekin irudikatu behar dugu nolako Antzuola nahi dugun 2025ean. Antzuolako Plan Estrategikoa egin behar dugu, alegia. Eta berdin Antzuolako Plan Orokorrearekin. Buelta batzuk eman behar dizkiogu; izan ere, azken urte hauetan, krisia medio, gauzak asko aldatu dira eta gure herrian.

Miren Arrate Gallastegi
PSE-EEko
bozeramailea



"Ez dugu argi ikusten zein gobernu programa garatu nahi duten"

"Euskal Alderdi Sozialistak (PSE-EE) ez du 2016ko Udal Gobernuaren aurrekontua onartuko. Izan ere, ez dugu argi ikusten EH Bilduk zein gobernu programa garatu nahi duen agintaldi honetan Antzuolako herrian". Ez dakigu zeintzuk diren Udal Gobernuaren lehentasunak eta helburuak. Gainera, ez dugu antzematen lehentasunezko helburuen inolako plangintzarik; ezta ekintzarik ere.

Gainera, aurrekontuak ez daude behar besteko detaileekin eginda. Ez daude behar bezala partidak ezta kapituluak garatuta. Eta 2015eko likidazioaren aurreikuspenean, ohartu gara desfase garrantzitsua dagoela behin betiko aurrekontuaren eta baimendutako aurrekontuaren artean. Horrek erakusten du kudeaketa gaitasun falta daukala Udal Gobernuak. Errekurtso ekonomikoak aurrekontuan izanda, erabakiak ez dira hartu elkarlanean Gobernu Taldearekin hauek %100ean egin ahal izateko.

Azkenik, azpimarratu behar da EH Bilduk ez duela inolako ahaleginik egin euskal sozialistekin aurrekontuak negoziatzeko. Antzuolako herritarren interesen defentsa egiteko, elkarriketarako prest gaudela berriro adierazi nahi diogu EH Bilduko Udal Gobernuari.



Saharako bandera eta ikurrina udaletxeko balkoian. | MAIDER ARREGI

Ikurrina, Saharako banderarekin elkartasuna eta "konpromisoa" erakusteko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zela 40 urte bete ziren zapatuan, otsailak 27. Antzuolako Udalak bat egin nahi izan zuen gertakari historiko horrekin. Hala, Saharako herriarekin duen "konpromiso tinkoa" erakutsiz adierazpen instituzionala aurkeztu zuten ezohiko osoko bilkuran. Aho batez onartu zuten. "Bada garaia herri sen-

titzen den herri bati estatu izaera emateko; onartuta dago eta Saharako zapalkuntza egoerari buelta eman behar zaio", zioen alkateak. Ondoren, Saharako bandera eta ikurrina udaletxeko balkoian jarri zituzten. Festa eta elkartasuna borobiltzeko, Torresoroan musika izan zen gauean. "Oso hunkigarria izan da. 26 lagun boluntario lanetan izan dira eta 585 euro batu ditugu. Mila esker!", dio Anelkarrek.

Iraetako tuneleko lanak egiteko 100.000 euro erabiliko ditu Diputazioak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bidegorriko Iraetako tunela itxi egingo du Diputazioak. "Arrazoia segurtasuna da, ez dagoelako garbi zein egoeratan dagoen. Itxi egingo dute, eta azterketa geologikoa egin ere bai; bai tunel horretan eta baita besteetan ere", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. Eroritako harria kentzeko

lanean ere hasiko dira. "Harria kentzeko, tunela ixteko eta azterketa geologikoa egiteko 100.000 euro erabiliko dituzte".

Bidegorri segurua

"Bidegorria konpontzea eta baldintza onetan jartzea Diputazioak bere gain hartu izana guretako garrantzitsua da; bidegorri segurua gura dugu", dio.

OHARRAK

ANTZERKIA

Gaur, Ipintzako batxilergoko antzerki taldearen emanaldia: *Ayer gauean*. Antzuolarrek ere parte hartuko dute 20:00etan, Torresoroan. Sarrera: 3 euro.

KONTZERTUA

Bihar, Aitz Garbin rantxerak Lupita la Ingrata y el Tierno Desaborio taldearekin, 23:30ean.

BILBORA IRTEERA

Landatxope erretiratuen elkar-teak Bilbora irteera antolatu du. Martxoaren 16an, goizeko bederatzieta irtengo dira Antzuolatik. Izena emateko egunak martxoaren 8a eta 9a, 16:00etatik 18:00etara Landatxo-pekko bulegoetan. Irteeraren prezioa 30 euro da; autobusak 60 eserleku ditu.

Martxoak 8: aldarrikapena eta festa, Olatu Morearekin

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Emakumeen Nazioarteko Egun aldarrikatzeko makina bat ekintza antolatu dute herrian. Hala, martxoaren 7an, Auzoko ekimenaren eskutik, emakumeekin saio berezia egingo dute Olalde elkarteak, 10:30ean. Martxoaren 8an elkarretartzea egingo da plazan, 19:00etan. Aurtengo kartela ere gazte txokokoek egindakoa da. Ondoren, *Sex o no sex* antzezlanak Virginia Imazekin Torresoroan.

Olatu Morea

Lehenengoz, Antzuolako Udalak uholde eta lasterketa morea antolatu ditu. "Martxoaren 12an egingo dugu Olatu Morea. Globo moreak banatu eta bakoitzak bere mezua idatziko du. Ondoren, lau kilometroko lasterketa egingo da globoa eskuetan (nahi duenak oinez)", azaldu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak. Parte-hartzaileak 17:00etan elkartuko dira plazan. Amaieran, aldarrikapena irakurri eta globoak askatuko dituzte. Izena martxoaren 9ra arte eman daiteke udaletxean.

Hitzaldia eta zinea

Martxoaren 15ean, Antzuolako Sortuk antolatua, *Euskal feminismotik, XXI. mendean ditugun erronkak* hitzaldia 18:45ean, Olaranen. Eta martxoaren 11n, *Neska banda* filma Torresoroan, 20:00etan.

Nepalgo dantzak eta afari pakistandarra Auzokoren eskutik

Martxoaren 9an, herritarrendako Nepalgo dantzen tailerra egingo dute 18:00etan Torresoroan. Eta 20:00etan afari pakistandarra gaztetxean. Udaletxean edo liburutegian eman daiteke izena. Auzokoren gaineko dokumentalerako irudiak grabatuko dira.



Eskolak aurrefabrikatutako moduluak ditu egun. | MAIDER ARREGI

Eskola handitzeko lanak egingo dira

Azken urteetan eskola larri-larri dabil espazioarekin. Hezkuntza ordezkaritzak bere gain hartuko dituela eskola handitzeko lanak jakinarazi du. "Eskola handitu ahal izateko, arau subsidiarioetan aldaketa bat egin dugu. Orain, ordezkaritzak egingo du handitzeko proiektua. Proiektuaren inguruko xehetasunetan jarri ondoren hasiko dira handitze-lanak. Noiz? Errazago 2018an 2017an baino", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

'Gau musikalak' erakusketa ikusgai

Aitz Garbi tabernan abenduan egindako musika festako 50 erretraturen bilduma egin du Iker Aizkorbe. Oraingoz, 15 lan jarri daude ikusgai. "Gau hartako oroitzapen polita da; herritarrei eta tabernari eskerrak emateko bidea ere bada".



IKER AIZKORBE

ESKORIATZA

Edukiontzi organikorako txartelak, eguaztenetik aurrera

Martxoaren 9an, 10ean eta 11n egingo da banaketa auzoka

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Laster jarriko da martxan birziklatze sistema berria, bosgarren edukiontzia, Eskoriatzan, eta, esekitakoak kendu ondoren, edukiontzi berriak jarriko dira. Kasu honetan, organikoaren edukiontziak sarrera kontrolatua izango du, eta etxebizitza bakoitzari txartel bana banatuko zaio eguaztenetik aurrera.

Eguaztenean, Huhezi unibertsitateko areto nagusian, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da txartelak banatuko diren lehenengo eguna. Auzo hauetako bizilagunak joan ahalko dira hauek jasotzera: Aingeru Guarda, Antxontxu bidea, Aranburuzabala, Arbiñoste, Dorleta, Kuatrueña eta Olaeta.

Bigarren txanda, berriz, eguean izango da, Ibarraundin, eta

banaketa ordutegi berean egingo da: Eduardo Gorosarri plaza, Elorreta, Gaztañadui, Hidalgo, Jose Arana, Olazar, San Juan, Santa Ana eta Santa Marina auzotako herritarrek pasa beharko dute bertatik.

Azkenik, egubakoitzean, Intxaurtxueta eta San Pedro auzotako bizilagunek jasoko dituzte, Ibarraundin, aurreko egunetako ordutegia errespetatuz.

Txartela jaso ezin duenak

Bizilagunen bat ezin bada dagoen egunean joan txartela jasotzera, martxoaren 14tik aurrera Ibarraundi museoa jasotzeko aukera izango du goizez, 14:00ak arte. Senide edota lagun baten txartela jaso dezake gura duenak, baina, horretarako, harremantarako bere telefonoa eman behar-

ko du txartela eskatzen duenak. Zalantzak argitu nahi dituenak hondakinen informazio bulegotik pasa edo 688 862 527 telefonora deitu dezake.

Elizateetan bizi direnek, aldiz, ez dute txartelik jaso beharko; izan ere, hauek orain arte moduan funtzionatuko dute, auzoetan dituzten edukiontziekin eta nor bere giltzarekin.

Edukiontziazen azalpenak

Txartelak banatuko diren aipatutako hiru egunetan azalpenak ere jasoko dituzte bertaratzen diren herritarrek.

Gune bakoitzean lau mahai izango dira, eta bertan, Mankomunitateko bi pertsona eta Udaletik beste bi ordezkari izango dira txartelaren funtzionamenduaren azalpenak ematen.

ESKORIATZA



Erain Debagoiena lehen ekitaldian, eskoriatzarrak. | JAGOBA DOMINGO

Eskoriatzan ere sinadura festan murgilduko dira

Erain Debagoiena taldeak elkartearen nondik norakoak azalduko ditu Zaldibar antzokian

I.B | ESKORIATZA

Erain Debagoiena taldeak *Zuk erabaki* lelopean ekainaren 12an erabakitzeko eskubidearen alde egin gura duen herri-galdeketa inguruko informazioa helaraziko die herritarrei, Eskoriatzan egingo duten ekitaldian.

Zapatuan 12:00etan elkarretartzea egingo da herriko plazan, eta eskuak elkartuta, kalejiran, trikiti doinuekin lagunduta Zaldibar antzokirako bidea egingo dute. Bertan, ekimenaren aurkezpena egingo da, eta nahi duenak sinatzeko aukera izango du.

ESKORIATZA

Tokiko Osasun Sarea sortzeko lanetan ari dira Eskoriatzan

I.B | ESKORIATZA

Debagoieneko Ospitalea (OSI), Eskoriatzako Osasun Zentroa eta Udaleko Kirol, Prebentzio eta Gizarte Saila osasun sarea sortzeko ahaleginetan ari dira herrian. Eskoriatza ezagutzeko helburuarekin, bertako elementu osasungarriak identifikatu, eta parte-hartze komunitarioaren bitartez, Tokiko Osasun Sarea sortzeko. *Eskoriatza, zure herria, osasuna da* izenpean, inkesta bat prestatu du Udalak herritarren iritzia jasotzeko asmoz.

Otsailean esparru zehatz batzuetan banatu da inkesta hau, eta orain, herri osoan zabaltzen da. Martxoan eskuragarri egongo da kiroldegian, liburategian, Ibarraundin, Huhezin eta udaletxean, eta *on line* ere bete daiteke, Eskoriatzako webgunean.

ESKORIATZA

Abian da Merkataritza Biziberritzeko Plana

Proiektua herrira zabaltzen ostean, galdeketa egingo zaizkie merkatariei eta herritarrei

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak udalerriko komertzioa sustatzeko Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) jarri du abian. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-aren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren finantzaketaren laguntza duen proiektuak, bi hilabeteetan zehar, gaur egun Eskoriatzako merkataritzak duen errealitatea ezagutu eta informazioa bilduko du, ondoren iretenbide bat bilatzeko.

Parte hartzeko deia

Merkataritza Biziberritzeko Plana egingo duen enpresak auzo ezberdinetara zuzendutako galdeketa, beste udal batzuek bisitarien kontaktua eta elkarbiziriketak, edo merkataritza eta ostalaritza sektoreari egingo dako galdeketa zehatz proze-

suaren errealizazioa garatuko du. Hori gauzatzeko, Eskoriatzako merkatarien kolaborazioarekin, sektoreak –merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak– eta berezko hiritarrak parte hartzera animatu gura ditu udalak, eta baita erosketak udalerrian egitea erabakitzen duten bisitariak ere.

Ikertalde enpresak aztertu

Ikertalde enpresak egingo du ikerketa. Aurrez esan bezala, lehenengo, inkesta egingo zaie herritarrei zein merkatariei, batzuei telefonoz eta beste batzuei kalean.

Emaizak jasota, datozen urteetan garatzeko proposamenak prestatuko dituzte, haiek guztiak merkataritza eta hirugarren sektore lokala hobetzera orientatuta.

ESKORIATZA

Emakumeentzako defentsa pertsonal ikastaroa antolatu du Atama Kenpo elkarteak

Emakumeen Nazioarteko egunaren harira, emakumeentzako defentsa pertsonal ikastaroa antolatu du Atama Kenpo elkarteak domekarako. Indarkeria aurreikusteko, saihesteko edo aurre egin behar bada defendatzeko helburuarekin antolatu da. Doako saioa izango da, 10:30etatik 13:00etara bitartean, Joseba Iñurragi frontoian.

ESKORIATZA

Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotuta dagoen Mugibili egitasmoa aurkeztuko dute eguaztenean

Eskoriatzako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako kirol sailarekin batera, Mugibili egitasmoaren formazio saioa antolatu du martxoaren 9rako; Mugibili webgune librea Debagoienean ezagutarazteko eta nola erabili edo norberaren ekintzak webgunean nola sartu daitezkeen azalduko dute. Osoko bilkuren aretoan izango da saioa, 18:30ean, eta azalpenak Bikel Bringasek emango ditu.

ESKORIATZA

Umeentzako 'Beldartxo Jatuna' antzerkia izango da domekan Didau antzerki taldearen eskutik

Bi eta zortzi urte bitarteko haurrentzako *Beldartxo Jatuna* antzerki-ikuskitzuna izango da domekan Zaldibarren. 17:00etan izango da, eta sarrerak aldeztu aurretik erosi daitezke kiroldegian edo *bibe.me* webgunean. Basoan bizi diren bi lagun, Loretxu eta Bartolo, ipuin bila dabilta beti eta oraingoan tximeleta eder batean bihurtzen den beldar txiki jatun baten istorioa kontatuko dute.

LEINTZ GATZAGA

Emakumeei buruzko zinema zikloa martxoan

Martxoaren 6an, 13an eta 20an –domekak– Labidean pelikulak emango dituzte, 18:00etan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Film laburren bildumaren emaldiarekin hasiko da Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan Udalak antolatutako zinema zikloa, emakumea pro-

tagonista duena. Hala, etzi, domeka, Labidean *The Curse*, *Irene*, *Mobile Homes*, *Rae* eta *What to bring to America* film laburrak izango dira ikusgai, 18:00etan. Martxoaren 13an,

berriz, *Pink Saris* pelikula eman- go dute –Indiako neskak bizi- moduaren gainekoa– eta martxoaren 20an, *Coria eta itsa- soa*; emakume saharar borro- kalari baten gaineko filma da azken hori.

Angulak eta bertsoak

Bestalde, Korrika Batzordeak iragarri du aurten ere angula- kiloa zozkatuko dutela martxo- aren 19an, eta ondoren Mendilu- ze eta Sarriegi bertsolariekin afaria izango da.

LEINTZ GATZAGA

Herri kontsulta bultzatzeko sinadurak batzen hasiko dira

Oraingo domekan hasita, Erain Debagoienak bultzatutako erabakitzeko eskubidearen eta herri galdeketaaren aldeko sinadurak batzen hasiko dira herrian. Bertako elkarteetako batzarretara joan, sinadura emateko arrazoiak azaldu eta horrelaxe batuko dituzte. Leintz Gatzagan 40-50 behar dira.

LEINTZ GATZAGA

"Hautabide independentista" aztergai Eskoriatzan

"Gure burua ezker abertzaleko partaide bezala ikusten dugun guztiok gure estrategia eta ildo nagusiak eztabaidatzeko eta adosteko aukera paregabea dugu Abian proze- su barnean". Gonbit horrekin, dei egin dute bihar, zapatua, 10:00etan Eskoriatzako Ibarraundi museoko batzarrean parte hartzeko.

ARAMAIO

Emakumeen Eguna ospatzeko, bingo-afaria

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO
Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Itur-Zuri elkarteak udalarekin elkarlanean. Ospakizunak hasteko bingo-afaria izango dute gaur iluntzean eskolako jantokian. 19:30ean bingoa egingo dute eta 21:00etan afaria –aurrez izena eman behar da–.

Bihar, zapatua, *Mantazpitik* ikuskizuna eskainiko du Kornermorea kolektiboak. Poesia musikatu emanaldia izango da eskainiko dutena. Kultura etxean izango da, 19:30ean.

Maiden Aldairen kartela
Martxoaren 8an kartel lehiaketaren sari banaketa egingo dute kultura etxean, 18:00etan. Aurtengo irabazlea Maiden Aldai



Maiden Aldairen kartela. | UDALA

Parra izan da. Irudiaz gain, aukeratu duen leloa izan da: *Kolpe, kolpe, kolpeka... josi ta josi, josi ta josi*.

Sari banaketaren ondoren bideo kafe emanaldia egingo dute kultura etxean bertan.



Zapatuan Kultureteko klaustroan egindako argazkia. | JAGOBA DOMINGO

Karteletik txartela hartu, argazkia egin eta sarera igotzeko dei egin dute

A.E. | ARAMAIO
Erain Debagoiena elkarteak aurkeztuko dute bihar, zapatua, 13:00etan, Sastiñan. Herri galdeketa bideratuko duen elkarteak da sortu berri dutena. Biherko ekitaldian elkartearen nondik norakoak azalduko dituzte.

'#nikbeERAIN'
Kalean jarri dituzten karteletatik txartelak hartu eta argazkia egiteko dei egin dute; argazki hori, ondoren, sare soziale-tara igo *#nikbeERAIN* traolarekin. Ekitaldi amaieran sinadurak batuko dituzte.

Zuhaitzak landatuko dituzte bihar Kruzeta inguruan

A.E. | ARAMAIO
Zuhaitz Eguna ospatuko dute bihar, zapatua. San Martin eskolak, Zuiako Kuadrillako Tokiko Agenda 21 sailak, Aramaioko Udalak eta Ikasleen guraso elkar-

teak antolatu dute bihar egingo duten ekitaldia.

Bi hitzordu egin dituzte: 9:30ean kiroldegitik irteera dira, oinez, eta 11:00etan Kruzeta elkartuko dira.

Arropa eta oinetako egokiak
Antolatzaileek nabarmendu dute arropa eta oinetako egokiak eramatea ezinbestekoa izango dela landaketak ahalik eta ondoen egiteko –aurreikusita dago euria

egingo duela–. Amaieran, hamai-ketakoa egingo dute denek elkarrekin.

Zuhaitzen landaketa eta mendi ibilaldia familian egiteko aukera izango dute, hortaz.

ELGETA

Euskal Herriko mendizaleek Ibiltarien Jaia egingo dute domekan Elgetan

L.Z. | ELGETA
Euskal Mendizale Federazioak deituta, Ibiltarien Jaia izango da domekan Elgetan. Egunari hasiera emateko, 25 kilometroko mendi irteera antolatu dute. Intxorta, Erdella, Egoarbitza eta Azkonabieta daude ibilbidean. Gaur, martxoak 4, amaitzen da izen-emate epea. Irteera Euskal Herriko Iraupen

Luzeko Ibilaldien 14. zirkuituko azkena izango da. Amaitutakoan, 14:00 aldera, diplomak jasoko dituzte 2015eko finalistek. Bazkaria etorriko da jarraian. Prezioa da 26 euro. Kasu honetan ere, gaur amaitzen da izen-ematea. Interesatuak *turismoa@elgeta.net*, *www.elgeta.eus* edo 943 76 80 22 telefono zenbakian jasoko dituzte argibide gehiago.

ELGETA



Orain dela hiru urteko Martxoaren 8an egindako kartel lehiaketa. | L.Z.

Lasterketa, aurten, berdintasunaren alde

Hainbat herritarrekin egindako erakusketa ere gertu

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Emakumeen Nazioarteko Eguna da Martxoaren 8a, eta Udalak elkarretaratzea deitu du 18:00etarako herriko plazan. Une berean inauguratuko du Alicia Gartzia herriko zenbait amama protagonistak hartuta gertatu duen argazki erakusketa. Hamazortzi argazki osatzen dute erakusketa, eta hilabete egongo da ikusgai.

Gaiarekin lotuta erreportaje berezia egin dute *Puntua* aldizkarian, eta Goiena telebistak *Makinatxo bat lan* izeneko dokumentala emango du Martxoaren 8an, 22:00etan. Amama horietako bost ditu protagonista.

Lasterketa eta jokoak

Eta martxoaren 13rako, domeka, berdintasunaren aldeko lasterketa deitu du herritar talde batek Udalarekin elkarlanean. Lasterketa 11:00etan hasiko da, eta ibilbidea da: herriko plaza, Maala parkea, Maala kalea, Domingo Iturbe kalea, San Roke otea, San Roke kalea, Torrealdea, Salbador otea eta Salbador plaza. Adin guztietako bikote mistoak daude parte hartzera deituak. Udaletxean edo botikan aurki daitezke izen-emate orriak. Amaieran, salda beroa eta jokoak egongo dira, herriko plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera.

ARETO FUTBOLA

AZKEN EMAITZAK	
La Kokotxa - Astuan Villa	6-12
Nahaste Boraste - Jaitxo	2-18

5. JARDUNALDIKO PARTIDUAK	
ZAPATUAN (azken orduko aldaketarik ez)	
16:00 Jaitxo - La Kokotxa	
17:00 Tzibaz United - Astuan Villa	
Epaile lanak: Nahaste Boraste	

OHARRAK

ERRETIRATUAK

Urteko batzar orokorra, gaur, barikua, 17:30ean, Ozkarbi elkartearen Amaitutakoan, pin-txoak egongo dira.

BISITA LUBAKIETARA

Domekan, 10:00etan, bisita gidatua lubakietara. Argibideetarako: 943 79 64 63.

RUPER ORDORIKA

Domekan, 19:00etan, kontzertua Espaloian. Ikus 32. orria.

KZGUNEAK

Dinamizatzailea KZgunean izango da eguaztenean, hilak 9, 16:00etatik 17:30era.

MENDI IRTEERA

Kantsatzeke mendi taldeak irteera egingo du martxoaren 12an, zapatua, Ganaltora. Izen-ematea zabalik da.

ELGETA



JAGOBA DOMINGO

Sinadura bilketa prestatzen

Ekainaren 12an izango da erabakitze eskubidearen aldeko galdeketa Debagoienean, eta Erain Debagoienak 150 bat herritar elkartu zituen, zapatuan, Arrasaten. Tartean zen ekimena babesten duen argazkiko elgetar taldea. Jakinarazi dute Elgetan ere laster hasiko dutela herri galdeketa egin ahal izateko sinadura bilketa. Erronka da 16 urtetik gorako 200 elgetarren sinadurak lortzea.

KIROLA



Istar Dapena eta Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilariak Donostiako Belodromoan izan ziren, Espainiako txapelketa aurreko azken entrenamenduan. | IMANOL BELOKI

ATLETISMOA

Arrasateko atletak prest daude Espainiako txapelketarako

Nagusiak Madrilera eta gazteak Salamancara joango dira lehiatzera

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Arrasateko atletak denboraldiko hitzordu nagusietako bat dute zapatu honetan, pista estaliko Espainiako txapelketa. Nagusiak Madrilan izango dira lehiatzen eta gazteak, berriz, Salamancan. Nagusietan, Malen Ruiz de Azua, Maialen Axpe eta Istar Dapena pertika jauzilariak eta jauzi hirukoitzean Iñigo Uribarren izango dira. Gazteetan, berriz, Ibai Fernandez, (60 metro korrika) Daniel Martinez (400 metro korrika) eta Eneko Carrascal (luzera-jauzia eta salto hirukoitzea). Azken hauek Salamancara joango dira.

Jonathan Perez entrenatzailearen esanetan, aukera asko dituzte arrasatearrek dominaren bat edo beste bueltan ekartzeko. "Malen momentu oso onean dago, duela bi aste bere kategoriako txapelketa irabazi zuen 4,21eko jauziarekin. Askoz gehiago egin dezake, 4,25 ere bai... ez dakit, ikusi beharko da. Maialen ere hor dago borrokan, eta gure erreferente den Naroa Agirre ere bai". Txapelketara marka ezberdinekin joan arren, denek dituzte aukerak.

Istar Dapena, aldiz, 5,05eko markarekin doa Espainiako txapelketara, eta bere bigarren absolutua jokatu du, lehen aldiz pista estalian. Bere esanetan:

"Mundu mailako jendea dago lehiaketan, eta nire helburua bost metro egitea da, eta hortik gora". Iñigo Uribarren, berriz, salto hirukoitzean 15,54ko markarekin

doa txapelketara, eta aurkari gogorak izango dituela aipatu du: "Pablo Torrijos Espainiako txapelduna dago, besteak beste, eta zaila izango da bere mailan egotea; ahal dudana egingo dut".

Gazteak Salamancara

Gazteen mailan hiru arrasatear doaz Salamancako txapelketara, Eneko, Ibai eta Dani. Eneko Carrascal, esaterako, bi probatan izango da: luzera-jauzian eta jauzi hirukoitzean. Jonathan Perezen esanetan: "Aste honetan berarekin egon naiz, eta bi probak irabazi nahi dituela esan dit. Bat gaizki irteten bazaio, bestean borrokatuko dela...".

Mojategira bueltan

Txapelketa honekin amaituko da pista estaliko denboraldia, eta laster hasiko da aire librekoa. Arrasateko hainbat atleta Donostiako Belodromoan izan dira asteen bi aldiz entrenatzen abendutik aste honetara arte. Baina orain, aire zabaleko txapelketak hasten direnez, pertikak jaso eta Arrasatera bueltatu dituzte.

JONATHAN PEREZ | ENTRENATZAILEA

"Entrenamenduetan egiten dena hobera joaten da txapelketan"

Jonathan Perez atletak ez du Espainiako txapelketan parte hartuko, nahiz eta Euskadikoan brontzea lortu zuen. Entrenatzaile izango da Madrilan, arrasatearrek.

Zer dela-eta ez duzu parte hartuko Espainiako txapelketan?

Bost metro lortu behar dira Espainiako txapelketara joateko, eta nik 4,80 metroko saltoa egin nuen ezin izan nintzen sailkatu.



Etxeko lanak egin da dituzte Arrasateko atletak?

Malen, Maialen eta Istar pertika-jauzilariak dominak lortzeko aukera handiak dituzte, eta momentu onean daude. Bestalde, Iñigo Uribarren jauzi hirukoitzean oso indartsu dago. Entrenamenduetan ondo ari dira; uste dut txapelketan motibatatu, eta marka hobea lortuko dutela. Hala ere, Espainiako txapelketan egotea soilik sari bat da.



MALEN RUIZ DE AZUA
ATLETA

"Azken urteotako txapelketa lehiakorrena izango dela uste dut. Izan ere, nahiko parekatuta gaude rankingeko bost atleta inguru. Helburua txapelketan domina ziurtatzea da".



MAIALEN AXPE
ATLETA

"Seniorra naiz dagoeneko, eta absolutuko txapelketan dudak helburu nagusia disfrutatzea izango da. Hala, bada, dena ematen saiatuko naiz, eta nire jauzi onenak emango ditut".



ISTAR DAPENA
ATLETA

"Mundu mailako jendea izango da txapelketan, eta jokatu dudak bigarren absolutua da hau, pista estalian lehen aldiz. Bost metroan jarri dut minimoa, ea hortik gora jauzi egitea lortzen dudana".



IÑIGO URIBARREN
ATLETA

"Garrantzi handiko txapelketa da, eta Espainiako rankingean laugarrena egon arren, gogor borrokatu beharko dut; izan ere, maila handiko jendea dago. Etxeko lanak egin ditugu, eta orain lasai hartu beharko dut".

FUTBOLA



Aretxabaletako jokalaria baloia astintzen, Estalan jokaturako partiduan. | IMANOL SORIANO

Helburu ezberdinak lortzeko puntuak jokoan Ibarra

Aretxabaletak eta Antzuolak derbia jokatu dute, etzi, domeka, 16:30ean Ibarra futbol zelaian

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Aretxabaletak eta Antzuolak Erregional Preferenteko derbia jokatu dute etzi, domeka, 16:30ean, Ibarra. Puntuak inportanteak dira bi taldeendako. Helburu ezberdinak lortu ahal izateko puntuak: UDArendako maila mantentzeko eta Antzuolarendako sailkapenaren zutik irteteko. "Badakigu egoera oso zaillean gaudela, baina ezin dugu amore-rik eman. Matematikoki jaitsi egin garela baieztatu arte, borrokan jarraituko dugu", esan du Antzuolako entrenatzaile Juanjo Nogueirasek.

Oso bestelako borroka eta bidea dute aretxabaletarrek. Sail-

ESANAK

"Irabazteko zorte apur bat behar dugu une erabakigarrietan"

JUANJO NOGUEIRAS | ANTZUOLA

"Gure gabeziarik handiena golak sartzea da"

IBAN RODRIGUEZ | ARETXABALETA

kapenean lasai daude, 28 puntu-ekin, baina ezin dira erlaxatu. "Moral eta emaitza aldetik ondo gaudela. Lesionatuta egon diren jokalaria batzuk berreskuratu ditugu. Esango nuke sasoiko gaudela azken txanpari aurre egiteko", esan du aretxabaletarren entrenatzaile Iban Rodriguezek. Bederatzi jardunaldi geratzen dira, eta, helburuak lortzeko lehian, derbia datorkie domekan. "Partidu bereziak dira. Jokalariak gorri markatuta dute etziko lehia. Borrokatua izango da, eta ezin gara Antzuolarekin fidatu. Azkenak dira, bai, baina horrek ez digu balio partidua irabazteko", azpimarratu du Rodriguezek.

Antzuolako jokalaria ere "gogotsu" daude derbirako. "Jokalarietako batzuek UDAn jokatu izan dute, beste batzuk arrasa-tearrak dira... Gogor lan egin dugu asteon, eta irabazteko asmoz irtengo gara zelaira", dio Nogueirasek. Hori bai, zorte apur bat eskatzen du antzuolarrak: "Azken partiduan gol aukera asko izan genituen, baina ez genuen golik sartu. Ilintxak, aldiz, izandako bi aukeretan bi gol sartu zituen. Beasainen ere egoera berbera izan genuen. Futboleant zorte apur bat behar da".

Aretxabaletarrek gabezia handiena aurrealdean dute. Gol gutxi sartzen dituzte. "Kosta egiten zaigu golak sartzea, eta, gol barik, ez dago irabazterik. Talde lehia-korra izateko ezinbestean irabazi behar ditugu partidua, eta golak beharrezkoak dira", azaldu du UDAREN entrenatzaileak. Baina helburutik oso gertu daude. "Bi arlo lantzen ditugu: lehiakor-rrak izatea eta Hirugarren Mailako taldearendako jokalaria formatzea. Bi horiek kontuan hartuta, lan ona egiten gabiltzala esango nuke", dio.

Bestalde, Erregional Preferenteko Bergarak Usurbilen zelaian jokatu du, azken bola-da onarekin jarraitzeko asmoz. Azken lau partidua jarraian irabazi dituzte bergarrek. Mondrak, berriz, etxean jokatu du Urkomendiren kontra. Irabaztea da Josu Zubiaren mutilen helburua (irakurri 12. orriko albiste).

UDA eta Aloña

Denboraldi bukaera gogorra izango du baita ere Hirugarren Mailako UDak. Zulotik irten ezinda dabil. Aurreko aste bukaeran Zallaren kontra bina berdindu ostean, Deustoren kontra jokatu du Valleren taldeak. Bizkaitarrek 26 puntu dituzte eta aretxabaletarrek, 23. Irabazita, pauso bat gehiago emango lukete.

Azkenik, Ohorezko Erregionalen diharduen Aloña Mendik Elgoibarren zelaian, Mintxetan, jokatu du. Eroso daude oñatiarrak sailkapenaren bosgarren lekuan, 39 punturekin.

SASKIBALOIA

Mondragon Unibertsitateak Burgosen jokatu du

M.B. | ARRASATE

Aurreko aste bukaeran Clavijoren kontra 61-65 galdu ostean, Burgosen jokatu du MUK bihar, zapatua, 19:30ean. Arrasatearrek baino bi garai-pen gehiago dituzte, eta garrantzitsua izango litzateke lehia irabaztea Larreategiren taldearendako.

Bestalde, Natra Oñatik Gasteizen jokatu du. Errobideren kontra galdu egin zuen Zubikoan 59-71, eta oraingoan garaipen gosez doaz Jumar taldearen kantxara.

Azkenik, lider dagoen Eskoriatzak Donostian jokatu du gaur, egubakoitza. Bilintx taldearen kontrako norgehiagoka garrantzitsua da, lehenengo lekuan jarraitu gura badute. Oso parekatuta dago emakumeen sailkapena lehen bost lekuetan.

BTT

Euskadiko BTT Open txapelketa Aramaion izango da

A.E. | ARAMAIO

Datorren domekan, martxoaren 13an, Aramaio IX. BTT sari nagusia jokatu dute, Euskadiko BTT Open txapelketa izango dena. Izen-ematea eta irteera Azkoaga auzoan izango dira, 10:30ean; zirkuitua eta helmuga, aldiz, Barajuen auzoan. Mailaren arabera, ordutegia izango da: 10:30ean infantilak; 11:00etan elite eta 23 urtez azpikoak; 11:02an master 30 eta 40; 11:04an neskak, gazteak eta kadeteak.

ATLETISMOA

Bidali Lilatoiko argazkiak eta irabazi saria

A.E. | ARRASATE

Oraingo domekan, martxoaren 6an, Donostian egingo den Lilatoiko argazkiak bidaltzeko aukera zabaldu du Goienak. Modu horretan, argazkiak Goienan argitaratuko dituzte. Eta bidalitakoen artean, onena aukeratu ahal izango dute *Goiena.eus*-eko erabiltzaileek. Argazki onenaren egileak saria jasoko du: Goienako bazkide-tza urte osorako. Parte hartzeko modua da: argazkia Whatsappez bidali 688 69 00 07 zenbakira; *berriak@goiena.eus* helbidera mezua bidali; edo Goiena App bitartez –aplikazioa jaitsi behar da–.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri lidergoa eustera irtengo da Iturripen

Arrasateko taldeak etxean jokatu du zapatuan; maila berean, Aloña ere etxean jokatu du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Euskal ligan jokatzen duten bi taldeek etxean jokatu dute aste bukaeran. Ford Mugarri Eskolapios Euskadi izango du aurrez aurre Iturripen –zapatuan, 18:00etan–.

Arrasateko taldea sailkapeneko liderra da. 20 jardunaldi jokatu ostean 36 puntu lortu dituzte Patxi Garciaren mutilek. Zapatuan lidergoari eustera irtengo dira etxeko zaleen aurrean. Aurrez aurre Eskolapios Euskadi izango dute –bederatzigarren tokian sailkatuta daude, 19 punturekin–.

Sailkapenean duten aldea kantxan erakutsi beharko dute, arazo barik puntuak irabazi nahi badituzte.

Izarraitz Aloña Mendi

Oñatiarrek ere etxekoen babesa izango dute 21. jardunaldiko lehia aurrera ateratzeko. Zapatuan Zubikoan jokatu dute, 18:15ean, Amazsa Urdaneta taldearen aurka. Aloña Mendi sailkapeneko goiko postuetan dabil; hain zuzen, hirugarren postuan daude 29 punturekin. Lehia irabaztea ezinbestekoa izango dute oñatiarrek goian jarraitzeko. Urdaneta tal-



Arrasateko jokalaria Josu Herrero jaurtiketa egiteko gertu. | GOIENA

deak 22 puntu ditu eta sailkapeneko 6. postuan dago.

Iturritxo Aloña, 2. fasean

Iturritxo taberna Aloña Mendiko neskek euskal ligako bigarren

fasea jokatzen dihardute. Zapatuan, 16:30ean, Zubikoa kiroldegian jokatu dute Quiron Askartzaren aurka. Bi partidua jokatu eta biak irabazi dituzte orain arte.



Domekan aurkeztu zuten Aloña Mendiko triatletek talde berria. | JAGOBA DOMINGO

TRIATLOIA

Aloña Mendiren koloreak Oñatiko duatloirako

XABIER URZELAI | OÑATI

Domekan aurkeztu zuten Oñatiko triatletek talde berria, edo, hobeto esanda, talde berritua. Izenez aldatu dute, eta aurrerantzean Aloña Mendiren koloreak defendatuko dituzte lasterketan, baina oinarrian taldea ez da aldatu. Kirol jarduera hori oñatiarren artean sustatzeko asmo tinkoaz jarraitzen dute, eta herriko lasterketa, Oñatiko duatloia, mimoz antolatzen jarraituko dute.

Duatloiak, zilarrezko ezteiak

Oñatiko duatloia martxoaren 12an izango da, eta 25 urte beteko ditu aurtengo edizioak. Iaz,

zirkulazio motiboak tarteko ibilbidez aldatu behar izan zuten, eta Deskargako itzulia baztertu egin zuten, herri inguruan presatutako ibilbide baten alde. Iazkoa esprint distantzia izan zen, eta datorren astekoa Euskadiko Txapelketa izango da, baina distantzia motzean: "Herrian gehiago gozatuko dugu lasterketa, iazko zirkuituari bi itzuli egingo dizkietelako ziklistek, eta herri-tik pasako direlako. Iaz eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta hala ere, bizikletako sektoreak oso kritika onak jaso zituen lasterkarien partetik", adierazi zuen Mikel Larreak aurkezpenean.

ATLETISMOA

Zazpi metroko marka gainditu du Carrascalek

X.U. | ARRASATE

Pista estaliko Euskadiko Txapelketa jokatu zuten joan den astean Anoetan, eta Arrasateko atletak lan ederra egin zuten, guztira bost domina eskuratuta. Aipatzeko artean daude, batetik, Iñigo Uribarrenen salto hirukoitzean lortutako 15,54 metroko marka -urrezko domina-, eta bestetik, luzera saltoan Eneko Carrascal gazteak -16 urte ditu- egindako saltoa. Duela aste gutxi lortu zuen Carrascalek 6,99 metroko saltoa, eta Anoetan marka pertsonala ondu eta estatuko erreferente bilakatu zen, 7,03 metroko markarekin. Urrea, baina, 25 urteko Asier San Sebastianek irabazi zuen, zentimetro bat gehiagoko saltoa eginda.



Carrascal podiumean. | A.ATLETICO

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Deusto-Aretxabaleta
Domeka. 11:15. Bilbo.

OHOREZKO ERREGIONALA

Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Elgoibar.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Usurbil-Bergara
Zapatua. 15:30. Harane.

Mondra-Urkomendi
Zapatua. 16:30. Mojaitegi.

Aretxabaleta-Antzuola
Domeka. 16:30. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA, IGO.

Bergara-Santo Tomas Lizeoa
Domeka. 17:15. Ipintza.

Mondra-Getariako
Zapatua. 18:30. Mojaitegi.

OHOREZKO GAZTEAK

Amaikak Bat-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Deba.

Zarautz-Mondra
Domeka. 12:30. Asti-Txiki.

Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 16:30. Azkoagaitz.

Bergara-Zumaia
Zapatua. 17:30. Ipintza.

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Amara Berri-Bergara
Domeka. 11:00. Donostia.

GAZTEAK, KOPA

Mondra-Antzuola
Domeka. 16:00. Mojaitegi.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Arizmendi-Intxaurdi
Zapatua. 15:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-UDA-Tudanca
Domeka. 12:00. Ibarra.
Eskoriatza-Oiartzun
Domekan. 11:00. Eskoriatza.

LEHENENGO MAILA

Pizza Per. Mondrate-Eskolapio.
Domekan. 11:40. Iturripe.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatza-Lauburu Ibarra
Zapatua. 19:15. Manuel Mariuz.

GIPUZKOAKO GAZTEAK

Pizza Per. Mondrate-Goierri
Domekan. 10:00. Iturripe.

ESKUBALOIA

EUSKAL LIGAKO SENIORRAK

Izarraitz-Aloña-Urdaneta
Zapatua. 18:15. Zubikoa.

Ford Mugari-Eskolapios
Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO EMAK. SENIOR

Iturritx Tab. Aloña-Quiron
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

EUSKADIKO EMAK. GAZTEAK

Aloña Mendi-Aiala ZKE
Domeka. 12:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Bergara-Donibane
Domekan. 12:15. Labegaraiaeta.

GIPUZK. BIGARREN MAILA

Saieko-Arrasate
Domeka. 11:15. Donostia.

SASKIBALOIA

EBA

Grupo de Santiago-MU
Zapatua. 19:30. Burgos.

EUSKAD. BIGARREN MAILA

Jumar Gasteiz-Natra Oñati
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

GIP. LEHEN MAILA

Cafes Aitona-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.
Askatuak-Soraluce Bergara
Zapatua. 20:00. Donostia.

GIP. HIRUGARREN MAILA

Cafes Aitona-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Donostia.

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

Goierri - Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Urretxu.
Cafes Aitona-Soraluce Bergara
Zapatua. 18:00. Donostia.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

STL Bilintx-Eskoriatza
Gaur. 20:00. Donostia.

PILOTA

OÑATI

Egubakoitza, 19:00
Aloña Mendi-Tartaloetxe (kade.)
Legazpi-Goierri (infan.)

ANTZUOLA

Egubakoitza, 19:00
Olalde-Tolosa (infantilak)

BERGARA

Egubakoitza, 19:30
Bergara-Tolosa (alebinak)
Bergara-Su Berri (gomazko palet.)

GASTEIZ

Domeka, 11:30, Euskadiko
kadete mailako txapelketako
finala:
Umore Oña-Arrasateko.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Gernika-Kanpanzar ART
Zapatua. 16:30. Gernika.


GOIENA.EUS TELEFONOAN

Albisteak eta **agenda**, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !




Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

Profesionalak bezala umeak kantari

A. TXINTXURRETA | BERGARA

Aurreko asteburuan Bergarako Zabalotegi aretoan egin zituzten Kantari karaoke ikuskizuneko grabazioak, eta 230 gaztetxo igo ziren taula gainera abestera. Antzuolako, Bergarako eta Elgetako artista txikiak profesionalak

bezala ibili ziren kantari eta askotariko jantziak eta osagarriak eraman zituzten ikuskizunera.

Bertaratu ziren parte-hartzaileen gurasoek, familiartekoek eta lagunek gogotik animatu zituzten parte-hartzaileak, eta primerako giroa izan zen.

Goiena telebistan

Apirilaren 9tik aurrera ikusi ahal izango dira Bergaran grabatutako saioak Goiena telebistan. Orain, Aretxabaletakoak ari dira eskaintzen, eta martxoaren 12tik aurrera Oñatin grabatutakoak ikusi ahal izango dira.



Agertokian abesten.



Eguzkitako betaurreko eta guzti.



Saio baten amaieran Kantariko kantua abesten, aretoa jendez lepo dagoela.



Pozik, Kantarin parte hartzen.



Gaztetxoak euren ikuskizunen ostean, Aitor Agirianoren galderei erantzuten.



Antzuolako talde bat.



Bergararrak, koloretsu jantzita, Zelan kantua abesten.



Elgetako talde bat agertokira igotzeko prest.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA


ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



KULTURA

Umore garratzarekin gerrei buruz kantuan

- ▶ Albert Pla, Fermin Muguruza eta Raúl Fernández, Amaia antzokian
- ▶ Martxoaren 13an, 19:00ean, 'Guerra' musikala egingo dute

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Musikal bat da; ez da, baina, ohiko ezaugarriak dituen musika ikuskizuna. Antzerkiaz eta musikaz gainera, ikus-entzunezkoak ere batu ditu Pepe Miravetek zuzendu duen *Guerra*-k.

Agertokian izen handiko hiru musikari ezohikoa duten aktore paperean sartuta: Albert Pla, Fermin Muguruza eta Raúl Fernández *Refree*. Amaia Udal Antzokian eskainiko dute, martxoaren 13an, 19:30ean. Sarrerak 20 eurotan daude salgai, antzokian eta *Arrasate.eus* atarian.

Osagai askorekin egindakoa

Formatu berria da agertokian dauden hiru protagonistentzako, Albert Pla aspalditik antzerki munduan badabil ere. Berritzailea ere badela gaineratu du Fermin Muguruzak: "Prestatu duguna ez da musika edo antzerkia bakarrik. Ikus-entzunezko sekulako eskaintza dugu. Era berean, dagoen eskaintza zinematografikoa ere aipatuko nuke: Plak eta biok aldeztu aurretik grabatutako hainbat irudi. Arlo musikarari begiratuta, hor daukagu *Refree* jaurtitzeko duen musika oinarria; horren gainean abesten dut nik. Dramaturgia ere badago. Oso gauza berritzailea da, horixe da askok esan digutena. Inpaktu handikoa. Amorrutik handia dauka. Gaurkotasan izugarria du planteatzen dugun guztiak".

Gerrak, istorioaren abiapuntu

Aktore bakoitza pertsonaia bat da: Alber Pla hiria salbatzera datorren armada humanitario

bat da, eta Fermin Muguruza hiria da. "Zabalik uzten dugu zein hiri izan daitekeen. Bakoi-tzak irudikatuko du kontatzen duguna hiri zehatz baten, eta, zergatik ez, herriren baten ere izan daiteke. Hiria naiz orokorrean: hiri bukatu gabea, hiri harroa, hiri handia, metropolia. Garrantzitsua da hiri zehatz bat ez dela esatea. *Refree*, berriz, pertsonaia abstraktua da. Ez dakit, Espainiako Estatuan, Ibex 35 izan daiteke", dio Muguruzak.

Gerra da izenburua eta baita kontakizunaren abiapuntua ere. "Gaur egungo gizartearen adibiderik garbiena da gerra, kapitalismoaren beharrak eta eraginak ikusteko; izan ere, gizartearen zati bat hobeto bizi ahal izateko, gizartearen beste zatian gerrak probokatzen eta eragiten dituzte. Hortxe aterako dira gero: armen industria, kontrolak, hesiak, bel-durra. Umorea badago; hori bai, umore garratza. Gure burua nola engainatzen dugun eta beste batzuetan nola engainatzen gaituzten kontatuko dugu".

Sarreraren zozketak

Goiena Klubeko bazkideek Udaleko Kultura sailetik jasotako gonbidapenen zozketan parte hartzeko aukera dute. Martxoaren 8a baino lehen bidali e-posta Kluba@goiena.eus helbidera edo idatzi *whatsapp*-a 688.69.00.07 telefonora: KLUBA GUERRA [bazkidearen izena].

Arrasate Irratian ere zozkatuko dituzte. Deitu, bada, 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera.



Albert Pla, Fermin Muguruza eta Raúl Fernández *Refree* dira 'Guerra' ikuskizuneko protagonista. | PEDRO PÁRAMOS

FERMIN MUGURUZA | MUSIKARIA

"Hasieran zaila egin zitzaidan antzokietara moldatzea"

Black is beltza eta New Orleansko proiektuarekin dabil buru-belarri. Azkeneko hilabeteetako Fermin Muguruzaren agendan, baina, *Guerra* ikuskizunak ere toki berezia du.

Albert Plak asmatutako istorioa da. Hark deitu zizun zurekin egin gura zuelako esateko.

Telefonoz deitu eta dena kontatu zidan. Hasieran, oso eszeptiko hartu nuen. Handik egun batzuetara materiala bidali zidan eta segituan erabaki nuen baietz, proiektuaren parte izan behar nuela. Ikusgarria da muntaia; oso gustura nago orain.

Aktore lanetan zer moduz moldatu zara?

Nire pertsonaia oso nirea egin dut. Nire kantatzeko modua dut, baina, horrez gainera, antzeztutako uneak ere badaude. Horretarako, aurrez ohituta ez nagoen etxeko-lanak daude: posizioak eta testuak ikasi... Gustura nago emaitzarekin. Batzuei arrotza egingo zaie, akaso, niri gazte-raz kantuan entzutea.

Ezohiko aretoetan ari zarete. Zelan antzokietan?

Entseguetan hasieran oso zaila egin zitzaidan. Ohituta nago monitore lerro bat izaten aurrean, eta oraingoan,

berriz, pixka bat biluzik sentitu izan naiz. Hasieran, monitoreen babes gabe ohitzera zaila egin zitzaidan. Publikoa ere oso ezberdin dago: eserita, isilik.

50 emanaldi inguru egin dituzue eta Arrasatekoa izango da Euskal Herriko azkena.

laz uztailan estreinatu genuen Bartzelonako Grec jaialdian. Harrezkero Euskal Herrian hainbat egin ditugu, baina ez gura genituen guztiak, areto handietan egiteko ikuskizuna delako. Hemengoz gainera, Palma de Mallorcan, Sevillan, Bartzelonan hainbat alditan... Apirilean Madrilera goaz hamar egunerako. Gero, Zaragozara; eta maiatzean, Hego Amerikara.

Ohituta zaude jende ezberdinarekin lan egiten. Zer moduz moldatu da hirukotea?

Aspaldiko lagunak gara. *Veintegenarios* kantua egin genuen orain urte batzuk Plak eta biok. *Refree*-rekin ere kantu pare bat grabatu nituen, Rockdelux aldizkariaren hamabosgarren urteurrenerako bilduma batean. Beti egon gara erne bakoitzak zer egiten duen jarraitzen. Oraingoan, elkarrekin lan egitea egokitu zaigu eta oso pozik gaude.

Emakume sortzaileen erakusketa Martxoaren 8a ospatzeko asmoz

Herriko eta Debagoieneko artisten eskulanak Ibarraundin bi astez ikusgai

A. ARANBURUZABALA | ESKORIATZA
Margolanak, eskulturak, erliebe-lanak, tailak, piñatak, arropak, osagarriak... Debagoieneko emakumeek egindako askotariko eskulanak erakutsiko dituzte Ibarraundi museoan martxoaren 8tik 18ra bitartean. Astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta asteburuan 11:00etatik 13:00etara izango da erakusketa zabalik.

Udalarekin elkarlanean
"Zapatista elkartetik proposatu genuen, Udalean, emakume sortzaileak batzeko ideia. Urteroko Aste Zapatista antolatzeaz gainera, urtaro bakoitzean zerbait berezia antolatzeko gogoia piztu zitzaigun, eta Martxoaren 8a aitzakia ezin hobea iruditu zitzaigun. Ideia gustatu eta elkarlanean hasi ginen, herriko beste elkarte batzuegana ere hurbilduta", azaldu du Ahinara Zubizarretak, antolatzaile taldeko kideak.

Ahoz aho egin zuten sortzaileak batzeko deialdia, eta 20k baino gehiagok eman zuten baiezkua. "Artista hitzaren harira eztabaida egon zen zeinen eta zelako lanak batu gura genituen zehazterakoan. Ez dugu mugarik jarri,

DATUA

20

EMAKUME SORTZAILE

Debagoieneko emakumeek egindako askotariko lanak batuko dituzte Ibarraundin.

ESANAK

"Jaialdi itzela prestatu dugu martitzenerako Ibarraundin"

AHINARA ZUBIZARRETA | ANTOLATZAILE TALDEKOA

zerbait erakusteko nahia zutenek izan dute bilduman parte hartzeko aukera. Herrikoez gainera, inguruko herrietakoak ere badaude. Artista profesionalak dira batzuk, baina gehienak, eskulanak zaletasun dituzten emakumeak", kontatu du Zubizarretak, Eskoriatzako zapatista taldeko kideak.

Martitzenean jaialdia
Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, zabalduko dituzte erakusketako ateak, eta sekulako jaialdia antolatu dutela kontatu dute ekimeneko bultzatzaileek: "Jende eta elkarte askoren partaidetzarekin antolatu dugu, hori da-eta zapatista elkarte osatzen dugunontzako ardatz garrantzitsua; hau da, guk diogun moduan, beste mundu bat posible delako guztion aktibotasun, elkartasun eta elkarlanarekin. Txalapartariak, bertsolariak, musika eta beste hainbat sorpresa izango dira. Egun berezia da Martxoaren 8a; horregatik, bada, modu berezian ospatu gura dugu gurekin bat egin gura duten herriar edo kanpotik etorri gura duten guztiekin".

Herriko plazan elkarretaratzea egingo dute, 18:00etan, eta ondoren Ibarraundira joango dira; 18:30ean da erakusketaren inaugurazioa. Ibarraundiko ekitaldian moda desfilea ere izango da Debagoieneko diseinatzaileen eskutik; besteak beste, Amaia Albese, Itziar Martinezek, Katalin Antxiak eta Eli Gallastegik jositako arte-lanak erakutsiko dituzte, herriko museoa pasarela bihurtuta.



Iaz Senperen egin zuten batzar nagusia. | XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Euskal Herriko Bertsozale Elkarateak batzar nagusia egingo du bihar

A. A. | BERGARA
Otsailean herrialdeetako batzar-rrak egin ostean, Euskal Herri osotik etorritako Bertsozale Elkarateko bazkideak bilduko dira bihar, zapatua, Irizar jau-rgan, 11:00etan.

Gai zerrenda irekitzeko, Iñaki Murua elkarateko presidentearen gidaritzapean, iazko urtearen errepasoa egingo dute, urteko memoria eta balantze ekonomikoak aurkeztuta.

Aurtengo asmoak
Iazko kontuak bazkideen aurrean aurkeztu ondoren, urte honetarako esku artean dituzten egitasmo nagusien berri emango dute. Hori horrela,

herrialde bakoitzeko lehenda-kariak hitza hartuko du bakoitzaren egoeraren berri emateko.

Ondoren, Bertsozale Elkarateak 2016rako dituen asmoak sailez sail gainbegiratu dituzte. Honako hauek dira gaur egun elkarateak batzen dituen sailak: Koordinazioa, Transmisioa, Sustapena, Lanku, Ikerkuntza, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Genero Taldea eta Komunikazioa. Gai zerrenda ixteko, zuzendaritza taldekoek aurtengo ekimenetarako duten aurrekontua aurkeztuko dute, eta segidan bazkideek bozketa egingo dute. Urteroko hitzordua bazkari batekin borobilduko dute.

'GALDEGAZTE' GOIENA TELEBISTAN

Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa. Hauxe da hurrengo saioaren aurrerapena.

Eskean Kristo gertutik ezagutzen



Ezkerretik eskuinera: Pello Artabe (Eskean Kristo taldeko abeslaria), Unai Etxenautia, Maialen Ballina, Mikel Ullibarriarana (Arrasate Institutuko ikasleak) eta Jokin Bereziartua (aurkezlea). | JAGOBIA DOMINGO

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Eskean Kristo taldea estudiora sartzeaz dagoela pasatu da Pello Artabe abeslaria Goiena Telebis-taren *Galdegazte* saiotik: "Disko berria grabatzen hasiko gara, topera gabiltza. Duela urtebete ateratako azken diskoarekin kontzertu mordoa eskaini ditugu; taldea *in crescendo* doa, aurrera jarraitzeko oso gogotsu". Gaur egungo taldea osatzeko, Arratia eskualdean talde ezberdinetan parte hartu izan zuten musikariak elkartu ziren: "Ez dakit nola elkartu ginen, baina argi genuen ordura arte beste taldeetan egiten genuena baino rock indartsuagoa eta bortitzaagoa egin nahi genuela. Lagunak ginen aspalditik, eta horrek dena erraztu zuen".

Rock taldea da Eskean Kristo, eta, Artabek berak aitortu duenez, ez dute ezer berririk asmatu: "Eus-kara izan daiteke gure bereizgarri, baina, bestela, oso zaila da musi-ka aldetik zerbait berria egitea". Horregatik, erreferenteen zerren-da luzea du: "Esango nuke rocka gustatzen zaigunok etapa ezber-dinetatik edan dugula. Lehenago-tik datorren arren, 1970eko hamar-kadako Led Zeppelin, Black Sab-bath, The Doors eta The Rolling Stones, 1980ko hamarkadako The Cult, Guns N' Roses eta Kiss eta 1990eko hamarkadako Soundgar-den eta Pearl Jam dira gure erre-ferenteetako batzuk, baina zerren-da askoz luzeagoa da...". Urrutira

joan barik, *Azote Kaldüz* diskoan Niko Etxartekin grabatu ahal iza-tea "itzela" izan zela adierazi du.

Aramaioarrak elkarriketatzaille
Arrasate Institutuko Maialen Ballina, Mikel Ullibarriarana eta Unai Etxenautia aramaioarrak izan dira elkarriketatzailleak. Aramaioko Eguzkierripa Rock jaialdian ezagutu zuten Eskean Kristo, taldea ezezaguna zenean, eta ordutik taldearen jarraitzaile dira. Ikasleak eurak rock-zaleak izanik, galdera interesgarriak egin dizkiote hiru ikasleek gon-bidatuari: rock-zalea jaiotzez den rock-zale edo rock-zale izaten ikasi egiten den, kasu: "Rock-za-le bizitzan zehar egiten dela esan-go nuke, ikasia dela. Zure ingu-ruko jendea, lehen kaseteak pasatzen dizkizun osaba edo ira-kaslea... Nire kasuan, behintzat, horiek egin naute rock-zale".



SAIOA IKUSTEKO:
GOIENA TELEBISTA
Eguaztena, martxoak 9
22:00etan.



Ruper Ordorika oñatiarra, duela pare bat urte Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean eskainitako kontzertuan. | I.S.

Ruper Ordorika bakarka Elgetako kafe antzokian

Elgetako Espaloian eskainiko du kontzertua etzi, domeka, 19:00etan

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Martxoaren 6an itzuliko da Ruper Ordorika oñatiarra Elgetara. Askotan egon izan da Ordorika Elgetan, eta arratsaldeko zazpietan eskainiko du emanaldia. Elgeta herri txikia izanda, dio meritu handikoa dela hain polita eta goxoa den Kafe Antzokia jarri izana: "Oso leku polita da eta herriari dinamika handia eman dio, asko gustatzen zait bertan jotzea." Azken aldiz Debagoienean irailaren 19an egon zen, jaiak hasi aurretik, bere herrian, Oñatin.

Gitarra eta ahotsa soilik

Ruper Ordorika orain dela hiru urte inguru hasi zen bakarka kontzertuak eskaintzen, ohiko talderik gabe. Ordorikaren hitzetan: "Badakit domekan ondo babestuta egongo naizela Elgetan, urte askotan ez naiz ausartu bakarrik oholtzara igotzen eta uste dut oso aberasgarria izango dela". Elgetan joko dituen abestiak garai ezberdinetakoak izango direla dio oñatiarrak: "Ez naiz azken diskoa ardatz moduan hartuta ibiltzen, denetarik joko dut eta edozein sasoitako abestiak auke-

ratuko ditut". Kanpoan edo barruan jotzea erabat ezberdina dela dio, eta barruko aretoetan oso soinu ona lortzen dela azpimarratu du.

Sarrerak salgai

Emanaldia Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak antolatu du eta sarrerak merkeago eskuratu ahal izango dituzte bazkideek, 5 eurotan. Sarrerak 8 eurotan egongo dira salgai Espaloian, baita Bergarako Pol-Pol tabernan ere. Egunean bertan leihatilan 10 eurotan eros- teko aukera ere egongo da.

Gaur ekingo diote Tapoi-Fest hardcore jaialdiari Bergaran

I.E. | BERGARA

Gaur hasiko da Tapoi-Fest hardcore festibala Bergarako Gaztetxean, urtero bezala, Txapa Irratiko *Jar Itzazu Tapoiak Mesedez!* irratsaioak antolatuta. Zapatura arte iraungo du. Aurtengoa bosgarren edizioa izanda, berrikuntzekin dator jaialdia; urteotan aritu diren talde guztien abesti banarekin disko bat eskuratzeko aukera izango dute gerturatzen diren guztiek.

Sarrera 5 eurotan

Gauero hamarretatik hasita lau talde arituko dira eta eguneko sarrera 5 euro izango da, bai egubakoitzean eta bai zapatuan. Egubakoitzean Bataalla, Viva Bazooka, Keep Diggin eta Maradona taldeak arituko dira Gaztetxean. Zapatuan, berriz,

Fly Shit bergarar beteranoak, Ezin Izan, Appraise eta Take Warning. Horrez gain, egun bakoitzeko kontzertuak amaitutakoan DJ Mugu, egubakoitzean, eta DJ's Hard of Beats eta DJ Javi Destruye, zapatuan, arituko dira, festibalarari amaiera borobila emateko. Pasa den urtean 120 lagun inguru gerturatu ziren eta aurten ere jende ugari hurbiltzea espero da.

'Movimiento Resistencia'

Zapatuan, kontzertuez gain, Jakue Paskua soziologoak *Movimiento de Resistencia* liburua aurkeztuko du arratsaldeko bostetan. Liburua 80ko hamarkadako euskal punk taldeei buruz mintzo da, eta bertan, hainbat kontzertu, disko eta maketaren kronologia zerrenda ageri da, besteak beste.



Laugarren edizioko Tapoi-Festeko Accidente taldea Gaztetxean. | GOIENA

Huhezinema jaialdiak sari potoloak banatuko ditu

Film guztien proiektzioa eta sari banaketa martxoaren 16tik 18ra izango da Aretxabaletan

KOMUNITATEA GOIENA | IBAN DEL CAMPO
HUHEZINEMA JAIALDIA | ARETXABALETA

Guztira, 113 lan jaso ditugu. Basque Culinary Center Sailera 10 lan aurkeztu dira guztira. MU Ikasleen Sailera 13 film aurkeztu dituzte. 90 lan jaso ditugu sail ofizialean aurtengoan, eta, urtero lez, ez da erraza izan finalera heldu diren 10 lan hauek hautatzea.

10 finalista

10 finalistetatik hiru mutuak dira, hiru euskarazkoak, beste bat euskaraz eta gaztelaniaz dago eta beste bat, Kanbodian filmatutako dokumentala izanda, hango hizkuntza exotikoan entzuteko aukera izango dugu, azpizatzeekin. Gainontzekoak gaztelaniaz dira. Emakumezko zuzendarien

bi lan hautatu dira finalista bezala eta besteak gizonezkoek zuzendutakoak izan dira. *Napoleón y yo* fikziozko dokumentala da eta *Break in* dokumental klasikoagoa. *I said I'd never talk about politics* animaziozko lan bakarra da. *Lobito bueno*, *Bruja hermosa* eta *Duellum* fikzio esperimentaletik gertuago daudela iruditzen zaigu. *Bere bizitzetako bat* eta *Mezu bat hozkailuan* dokumental esperimentalen multzoan kokatu daitezke. Amaitzeko, komediazko bakarra den *Hartz txiki*, *Cenizo* eta *Dantzariak* fikzio klasikoan moduan eginda daude.

Sari banaketa

Martxoaren 18an Aretxabaletako Arkupe aretoan egingo den sari banaketa ekitaldian sari nagusiak banatuko dira. Huhezinema Saria



Huhezinema Jaialdiko antolatzaileak. | HUHEZINEMA JAIALDIA

(10 finalistetako bakoitzari 200 euro), Goiema Saria (450 euro eta 1.500 euroko balioa duen kamera materiala), Vertigo Saria (400 euro) eta ikusleen Saria (300 euro). Egun berean MUko Ikasleen Saila (fikzio onenak 300 euro, dokumental onenak 300 euro eta ikus-

learen saria 100 euro) eta Basque Culinary Saileko sariak ere banatuko dira (600 euro epaimahai saria eta 100 euro ikusleen saria). Egile gehienak eta beste hainbat gonbidatu bertan izango dira Huhezinema jaialdiari itxiera bikaina emateko.

Iñaki Goitia finalista 'Wonderland' programan

I.E. | OÑATI

Iñaki Goitia oñatiarra finalista geratu da RTVEko *Wonderland* programan. Espainiako mikrokontalari onena aukeratzeko da bertan eta Goitiaren kontakizunak *Pasar a mejor vida* du izena. Orain dela urtebete irabazteko aukera izan zuen eta ordutik lau aldiz geratu da finalista. Saria irabaziz gero, Bartzelonako Ateneoan kurtso bat irabazteko aukera izan dezake. Maila oso altua dagoela dio Goitiak, lehiaketa Espainia mailan antolatzen baita. Finalista izanda ez du esan nahi irabazteko aukera izango duenik. Finalistak eta irabazlea egun berean iragartzen dituzte, finalistek bigarren edo hirugarren postua hartuz.

Arantzazu Ampudia | Marrazkilaria

"Gasteizko kiroldegirako logotipoa diseinatu nuen; lehiaketetan parte hartzeko aukera ere izan dut"

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Arantzazu Ampudiak (Oñati, 1996) txikitatik dihardu marrazten, erretratuak eta aurpegiak marraztea gustatzen zaio eta haiekin barnean dituen sentimenduak adierazten saiatzen dela dio. Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza ikasten ari da Arrasaten, eta gradu horretarako marrazten trebea izatea onuragarria izan dela dio. Usakora marraztera joatea gustatzen zaio, lasaitasun osoz egoten baita bertan.

**Zerk bultzatu zintuen marrazketa-
ra?**

Txikitatik marraztu izan dut, baina marraztera bultzatu ninduen nire sentimenduak adierazteko beharra izan zen. Sentimenduak agian ez nizkien besteei adierazten, eta marrazkien bidez adierazten hasi nintzen. Momentu txar bat izan nuen, eta, hori gainditzekotan, marrazten jarraitu nuen, orain arte. Aurpegiak marraztea gustatzen zait, batez ere; espresioak eta jendea, oro-korrean.

Zein da zure lan prozesua?

Internetetik argazkiak bilatzen hasten naiz lehenengo, argia, itzalak eta kolorea nolakoa den begira hasten naiz. Aztertzen hasten naiz gero, begitik begira distantzia kalkulatz, gero begitik sudurrera, sudurretik ahora, baita belarriko neurriak ere. Neurri horiek hartuta, papera eta arkatza hartu eta neurriak paperean marrazten hasten naiz ordenagailura begira. Silueta marrazten dut, eta, gutxi gora-behera neurri guztiak marraztuta ditudanean, ordenagailura begiratu gabe nire kabuz marrazten jarraitzen dut. Askotan, ez da argazki originala bezala irte-ten, nire kabuz moldaketak egi-ten ditudalako.

Marrazketarako talentua behar dela uste duzu ala praktikarekin lor daiteke?

Gustatu egin behar zaizu, eta, aurrera jarraituta, esfortzuekin dena lortzen da. Ez saiatuta, ez da ezer lortzen.

Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza ikasten ari zara Arrasaten; urte askoan zehar marrazten egon izanak onurarik izan du ikasteko orduan?

Bai. Artistiko izena duen ikasgai bat dut, eta bertan, hainbat produkturen karkasak diseinatzen ditugu. Horretarako, zirriborroak

marraztu behar ditugu eskuz, eta, horiek lantzeko, marrazketan gaitasun minimo bat izan behar-ko genuke. Askotan, arkatza erabiltzeko aukerarik ere ez dugu izaten, boligrafoz landu behar da. Zirriborro horiek egiteko zaletasuna izatea beharrezkoa da. Zati handi batean marrazketarekin oso lotuta dago gradua.

Jasotzen duzu enkargurik?

Bai, jasotzen ditut. Burruntzi batzuk marrazteko eskatu didate. Kamisetak ere diseinatzen ditut; nik marraztutakoak Adobe Photoshop programara igotzen ditut eta bertan editatzen hasten naiz. Webgune batetik eskatzen ditut kamisetak, eta etxera bidaltzen dizkidate. Lagunei oparitu izan dizkiet, eta, normalean, inguruko jendearekin konpartitzen ditut. Kamisetez aparte, logotipo bat diseinatu nuen Gasteizko kiroldegirako. Hainbat logotipo eta marrazki lehiaketetan ere parte hartu izan dut.

Berri Txarrak taldearen abesti baten letra duzu bizkarrean tatuatuta, eta taldeak antolaturiko tatuaje lehiaketa irabazi zenuen; nolakoa izan da esperientzia?

Tatuajearen ideia nirea izan zen hasieran, eta abestiaren letra zati bat aukeratu nuen horretarako. Tatuaje dendara joan nintzenez, bien artean erabaki genuen diseinua, eta tatuaje-egileak asko lagundu zidan. Oso ondo sentitu nintzen irabazi nuenean, diseinuarekin oso gustura bainago.

Non ikusten duzu zure burua hemen-dik urte batzuetara?

Marrazteari ez diot utziko. Gradua amaitutakoan masterren bat egitea gustatuko litzaidake, eta graduari ikasitakoarekin erlazio-natuta dagoen lan bat izatea.

Zer esango zenieke orain marrazten hasi berri direnei?

Gustatzen bazaie, aurrera jarraitzeko. Gustukoa izanda eta esfortzuekin aurrera jarraituta edo-zer gauza lor daiteke eta.

PERTSONALA

Artista bat: Agnes Cecile.

Margolan bat: Erretratuak.

Tresna bat: Pintzela.

Kantu gustukoena: Berri Txarrak-en *Ez naiz aldatuko (esan zuen kamaleoiak)*.

Telesail bat: *Mentes Criminales*.

Amets bat: Gustukoen dudana egiteari ez uztea.

Marrazteko leku bat: Nire logela.

Bizitzeko leku bat: Oñati.

Txokorik gogokoena: Usako.

Arantzazu Ampudia
oñatiarra marrazkiz
inguratutik.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zubillaga (Oñati). Eraikuntza berria. Bi logela, komuna, sukaldea, egongela, 35 metro koadroko terraza. 115 metroko lorategia. Garaje itxia. Igogailua garajetik. Guztiz jantzita. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 660 04 06 14 edo 665 72 18 54

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza bila gabiltza. Gela bakarrekoa, bikoa edo hirukoa. Bikote euskalduna. Eskerrik asko. 664 54 53 37

Arrasate edo Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 688 71 55 53

Arrasate. Bi logelako etxebizitza behar dut errentan. ahal bada, erdigunean. 688 29 97 05

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, prezio onean. 698 47 41 33

Bergara. Etxebizitza bilanabil. Gela bakarrekoa edo bikoa, eta igogailua duena. 697 86 48 91

Bergara. Euskaldun bikote batek etxe bat hartuko luke errentan. Berdin da txikia bada ere. 649 65 06 39

La Pineda edo Cambrils. Bergarako familia bat gara eta abuztuan 15 egunez apartamentu bat hartuko genuke errentan La Pinedan edo Cambrilsen. 680 17 33 61

Oñati. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 00 35 57

Oñati. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 2002tik bizi naiz Oñatin eta lan kontratua daukat. Bakarrik nago hiru seme-alabekin. 635 70 69 83

105. ETXEA OSATU

Logela errentan Oñatin. Logela errentan ematen da erdiguenetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona ardurasua eskatzen da. Wifi konexioa rekin. 656 74 29 49

2. GARAJEAK

201.SALDU

Aretxabaleta. Santakurtz 24an, garaje itxia salgai. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 615 78 27 84 edo 661 45 17 05

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. 24 metro koadroko garaje itxia ematen da errentan Alkabieta kalean, kanposantu aldamenean. Ate automatikoak ditu. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 635 72 64 08 edo 657 79 65 54

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 130 metro koadroko lokala salgai erdigunean. Hainbat autorendako garaje moduan erabiltzeko lizentziarekin. 60.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 80 92 89

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokala ematen da errentan alde zaharrean. Arte-kale 5ean. Bi solairukoa, guztira 150 metro koadro ditu. Errenta ekonomikoa. Negozioa jartzeko edo 18 urtetik gorako partikularrendako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 00 71 46

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Ospitalera joateko laguntzailea. Hilean 4-5 aldiz gutxi gora behera, Txagorritxu eta Gurutzetako ospitaletera familia bat garaiatu eta laguntzaile lanak egiteko pertsona bat behar da. Arrazoi kulturalak medio, emakumea izan behar da. 637 13 16 23

402. ESKAERAK

Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta sukaldean laguntzaile bezala lan egingo nuke. Emakume esperientziaduna. Ordu-tegi aldetik, arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 20 59 43

Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. Umeak edo nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta sukaldean lan egingo nuke. Bertako emakume esperientzia handikoa. Ordu-tegi aldetik, arazo barik. Eskerrik asko! 647 10 58 72

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Erizain titulua daukan mutil euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Dependentsiadun pertsonak zaintzen eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 69 98 13

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Sukalde garbiketan esperientzia daukat. Gozoki dendan, nagusi eta umeak zaintzen edota atariak garbitzen ere bai. Hiru urteko esperientzia dut zerbitzari lanetan. Presazkoa da. 676 44 85 58

Arrasate. 48 urteko emakume euskalduna, etxek etxeko zerbitzuak laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 71 50 14 (Maribel)

Arrasate. Bertako emakumea, euskalduna, orduka edo egun osoz lan egiteko gertu: umeak edo nagusiak zaintzen zein etxeko lanak egiten. 688 66 76 91 edo 943 79 60 89

Arrasate. Mutila gertu nagusiak edota laguntza behar duen jendea zaintzeko. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 08 57 69

Arrasate. Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 15 36 59

Arrasate. Orduka lan egingo nuke garbiketak egiten edota nagusiei laguntzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 698 47 41 33

Bergaran eta inguruan. Mutila sukalde laguntzaile moduan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. 687 69 71 86 (Jesus)

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Ordu-tegi aldetik ez daukat arazorik. 629 06 94 11

Debagoiena. Arratsaldean hasi, eta baita etxean bertan bizi izaten ere, lan egingo nuke. Aste-buruetan ere lan egiteko gertu nago. 699 66 33 63 (Marlen)

Debagoiena. Banatzaile, gidari, mezu-lari, dendako kuxan edo apalak betetzean, zerbitzari, margotzen edota etxeko langile moduan jarduteko gertu nago. Autoa daukat. 634 29 33 69

Debagoiena. Emakumea lane-rako gertu. Nagusi edo umeak zaintzen, garbiketan edo etxeko lanak egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita base-

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Iraskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

rrietan ere. Lege agiriak dauzkat. 606 64 16 09

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Dependentsiadun pertsonak zaintzen eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 96 30 87

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila zaintza lanetarako gertu. Etxeko lanak egiten eta bertako jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Etxean bertan bizizizaten, gauak egiten, edo edozeinako ordutegiarekin. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientziadun mutila pertsonen zaintzan lan

egiteko gertu, orduka. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 634 94 31 59

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 722 28 81 56

Debagoiena. Etxeak garbitu, lisatu, umeak zaindu, nagusiak zaindu eta kalera lagundu, tabernako sukaldean lagundu eta abar egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 634 84 41 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, zaintzan. Arrasaten bizi

naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 22 80 04

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 722 28 81 56

Debagoiena. Etxean bertan bizizizaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 46 41 76

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 17 39 35 (Gloria)

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Esperientzia dut nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. 632 47 71 72

Debagoiena. Etxeko eta baserriko lanetan, nagusiak zaintzen zein denetarik garbiketak egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95 (Judith)

Debagoiena. Garbiketak egiteko gertu nago. Orduka eta jardun osoz. Esperientzia dut. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 29 32 64

Debagoiena. Garbitzaile profesionala naiz eta lau urtez lan egin dut horretan. Gainera, barran eta sukalde laguntzaile ere aritutakoa naiz. Nagusiak zaintzen ere lan egin dezaket. Kontratuarekin egingo nuke lan. 625 99 75 99

Debagoiena. Gizarte laguntzailea naiz eta umeak eta nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Umeak zaintzen esperientzia dut. Autoa daukat. 686 59 28 41

Debagoiena. Lan bila nabil. Lan ezberdinak egiten gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 05 58 21

Debagoiena. Lan egingo nuke umeak eta nagusiak zaintzen. Orduka ere bai. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 34 70 53

Debagoiena. Leuntze lanetan esperientzia duen mutila lan bila: automozioan, autoen llantak, tronpeten piezak eta abar. 631 05 41 08 / 943 04 77 58 edo arjunrg2013@outlook.es (Arjun)

Debagoiena. Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen, garbiketak egiten edo sukaldari laguntzaile ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 85 64

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, mekanikari, ostalaritzan eta abarrean. Ikasketak ditut. Kontratuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 674 50 83 61

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak edota garbiketak egiteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zaindu nituzke etxean bertan bizi izanda. Erreferentziak aurkez

ditzaket. 39 urteko neska nikaraguarra naiz. 631 72 38 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko zein sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetarako gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 97 78 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketak egiten ari-zeko gertu nago. Esperientzia daukat eta erreferentziak aurkez ditzaket. 686 44 70 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 14 27 02

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 72 94 98 (Rosario)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abar-rean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan eta sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Manikura egiten ere bada- kit. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 71 55 53

Debagoiena. Nagusiei laguntzen, umeak zaintzen, taile- rrean, lantegiak garbitzen zein bestelako lanetan aritu izan naiz. Ordu-tegi aldetik arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizizizaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 12 30 22

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 689 10 48 38

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Ordu-tegi arazo barik. 685 64 84 78

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen 6 urteko esperientzia daukan emakumea, etxeko lanetarako edo pertsonak zaintzeko prest. Aurretik lan eging-dako familiarekin hitz egiteko aukerarekin. 634 00 30 33

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukan emakumea, orduka pertsona nagusiak edo garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 85 12 14

Debagoiena. Taberna edota elkar-teak garbitzen eta pertsona nagusiei janaria prestatzen lan egingo nuke. Bertako platerak prestatzen dakit. Elikagaiak erabiltzeko titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 625 28 38 11

Debagoiena. Zerbitzari moduan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 29 11 23

Lan eskaera. Garbiketak egiten eskarmentua duen emakumea eskaintzen da orduka etxeko garbiketak egiteko. Bergara, Arrasate eta Aretxaba-

leta inguruan lan egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 86 46 80

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. Marrazketa artistikoko klaseak jasotzeko, pertsona baten bila nabil. 629 98 42 56

Arrasate. Txinerako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Egubakoitze-tan, 17:00etatik 18:30era izango litzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 40 55 95

Bergara. Goi mailako ikaske- tentzat eskola partikularrak jaso nahi ditut. 605 26 24 62

6. MOTORRA

602. EROSI

Autokarabana erosiko nuke. 10.000 euro baino gutxiagoko autokarabana erosiko nuke. Zaharra bai, baina barrutik zein meka- nika aldetik ondo zaindua behar du. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 43 64 29

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Ama Bordel Collie bikaina da. Martxo erdialdera arte amarekin egon- go dira. Deitu lasai zenbaki hauetara: 675 70 82 05 edo 635 20 09 53

8. DENETARIK

801. SALDU

Logelako altzariak. Avatar etxekoak, kalitate oso onekoak. Idazmahai, bi armairu handi, ohe indibiduala eta azpian beste ohe bat, kaxoi-altzaria eta apalak. Interesatuok ikus- tea komeni da. Arrasaten. 645 72 25 24 (Julen)

802. EROSI

Mendirako bizikleta. Bigarren eskuko mendirako bizikleta erosiko nuke. Merkea. 653 70 84 09

Mendirako eskiak. Bigarren eskuko trabesiarako eskiak ero- si nahiko nituzke. Tel.: 628 51 22 78

Motozerra. Motozerra elektri- koa erosiko nuke. 656 75 76 98

806. GALDU

Mugikorra galdu dut Ber- garan. Samsung etxeko mugikorra galdu nuen otsailaren 2ko iluntzean Artzamenditik plaza- ra bidean. 943 76 05 54

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Alemana praktikatzeko Bergaran. Alemana praktika- tu ahal izateko, taldea sortu dugu Bergaran. Oraingoz, egu- bakoitzero elkartzen gara 18:30etik aurrera. Gurekin alemanez berba egiteko intere- sabaduz: 663 65 76 06 edo maitemugica@yahoo.es

904. BESTELAKOAK

Neska bila. 38 urteko muti- la neska-lagun bila. Interesa- tuok deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Uxue Kortabarría Maskariano
Martxoaren 8an, 6 urte.
Zorionak, Uxue! Gure etxeko sorgintxuak 6 urte bete ditu. Orain bezain alai izaten jarrai dezazula. Muxu potolo bat: Naroa, aitatxo eta amatxo.



BERGARA
Hodei Elkorobarrutia
Martxoaren 8an, 6 urte.
Zorionak zure lagun Julenen partetik!



ANTZUOLA
Nora Ezkurra Alonso
Martxoaren 8an, urtebete. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure egunean, sorgintxo! Besarkada eta patxo handi bat etxeko danen eta, batez ere, Alazneren partetik.



OÑATI
Unai Sanchez Gomez
